



**puntuatza**

+

Ignacio Mendiola  
soziologoari  
elkarrizketa

Espainiako  
errege-erreginen  
bisita 2004an

## MASKARA NAHITAEZ

Atzo ezker, derrigorrezkoa da kalean  
ere musukoa erabiltzea / 4



Herritarrek kalean,  
maskara jarrita,  
Arrasaten, atzo.

JONE OLABARRIA

## GOZAMENA AUKERAN

Kultura ikuskizunak gozagarri dira  
kalean udako egunotan / 40



Hika Teatroa taldearen  
Tonbola antzezlanak  
Aretxabaletako  
plazan, eguaztenean.

XABIER URZELAI

**EH Bildu nagusi  
Debagoiengan eta  
herri guztietan,  
Eskoriatzan izan ezik;  
EAJK eutsi dio han / 2**

**Usakon 30 pertsona  
bainatu ahal izango  
dira aldiro eta  
belardian bi txanda  
egongo dira / 34**



**Mondragon Taldeko  
zuzendaritzako kideei  
ETAk estortsioa egin  
ziela aitortu dio  
Goienari Cataniak / 6**

**Euskararen Bikain  
Urrezko Ziurtagiria  
jasoko du Bergarako  
Udalak, puntuazio  
altua aterata / 24**

### SINADURAK

	XABIER MUGARZA / 8		AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 26
	OIANA SANCHEZ / 12		ELIAS ZUMALDE / 34
	MIKEL IRIZAR / 48		


SEAT ATECA

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

### Emaitzak Debagoienan



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

### Boto-konparaketa Debagoiengan

	2016	2020	Aldea
<b>EH BILDU</b>	12.357 %37,95	<b>13.498</b> <b>%45,30</b>	+7,35 puntu
<b>EAJ</b>	11.821 %36,31	<b>10.980</b> <b>%36,85</b>	+0,54 puntu
<b>PSE-EE</b>	2.399 %7,37	<b>2.283</b> <b>%7,66</b>	-116 -0,29 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	4.059 %12,47	<b>1.711</b> <b>%5,74</b>	-2.348 -6,73 puntu
<b>PP+CS</b>	1.338 %4,11	<b>511</b> <b>%1,71</b>	-827 -2,4 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>306</b> <b>%1,03</b>	306 +1,03 puntu
<b>VOX</b>	4 %0,01	<b>142</b> <b>%0,48</b>	138 +0,47 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAILAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.  
ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

# EH Bilduk lortu ditu boto gehien

Bailarako herri guztietan koalizio abertzalea izan da bozkatuena, Eskoriatzan izan ezik; botoen %45,30 lortu ditu EH Bilduk eta EAJ izan da bigarren indarra; PSE-EE hirugarren alderdi bozkatuena izan da eta Elkarrekin Podemos-IU nabarmen jaitsi da

#### Eneko Azurmendi ARRASATE

EAJ izan da nagusi inoizko parte-hartzerik baxuena izan duten Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan -%52,86-. Jeltzaleek 31 eserleku eskuratu dituzte; EH Bilduk, 22; PSE-EEK, 10; Elkarrekin Podemos-IUk, 6; PP+Cs koalizioak, 5; eta ultraeskuineko Vox alderdia Parlamentura sartu da, ordezkari bat lortuta.

Debagoiengan, hala ere, EH Bildu izan da bozkatuena, 13.498 boto eskuratuta. Halaber, boto kopuruan gora egin duen bakarra izan da koalizio abertzalea, 2016ko hauteskundeekin alderatuta, %9,23 gehiago.

EAJ bigarren indarra izan da, 10.980 botorekin, baina botoetan behera egin du bailaran, 841 boto gutxiago jasota: -%7,11.

Alderdi sozialista, oro har, mantendu egin da boto kopu-

ruari dagokionez, baina 116 boto gutxiago eskuratu ditu Debagoiengan: -%4,84.

Elkarrekin Podemos-IU izan da gehien galdu duena, jaitsiera nabarmena izan du-eta botoetan. 1.711 besterik ez du lortu, 2016an baino 4.059 gutxiago: -%57,85.

Herriz herri aztertuta, bestalde, nabarmenezkoa da Eskoriatzan izan ezik Debagoieneko gainontzeko herri guztietan EH Bildu nagusitu dela, baita Aretxabaletan eta Arrasaten ere -EAJren esku dago alkatetza bi herri horietan-.

#### "ETORKIZUNERA BEGIRA, TENDENTZIA POSITIBOA AZALTZEN DUTE EMAITZEK"

MIKEL BIAIN, EH BILDU

#### Lehen hiru indarrak, pozik

Hauteskunde guztietan moduan, askotariko erreakzioak izan dira hauen ostean ere. EH Bildu eta EAJ izan dira garaile nagusiak, eta ordezkarien balorazioak positiboak izan dira.

Mikel Biain EH Bilduko batzarkide oñatiarrak dio ezohiko hauteskundeak izan direla: "Akasoa, momentu honetan egin behar ko ez lirakeenak". Hala ere, behin eginda, nabarmendu du EH Bildu izan dela botoetan gora egin duen bakarra. "Oso emaitza onak izan dira. Hasiera

#### "EAE-KO BIZTANLE GEHIENEK HAUTATU DUTE KONFIANTZA ETA SEGURITASUNA"

AINZANE OIARBIDE, EAJ

batean, 20 eserleku lortzea aurreikusten genuen. Beraz, 22 lortuta, oso pozik gaude. Tendentzia positiboa azaltzen dute emaitzek etorkizuneko beste hauteskunde-ziklo batzuei begira", azpimarratu du.

Aintzane OiARBIDE Elgetako zinegotzi eta Gipuzkoako diputatu jeltzalea ere gustura azaldu da EAJk lortutako emaitzekin. "Zorioneko gaude, hauteskundeak irabazi eta hiru eserleku gehiago lortu ditugulako. EAJk historikoki izan duen eserleku kopuru handienetakoa izango du legegintzaldi honetan. Euskadiko biztanle gehienek konfiantza eta segurtasuna hautatu dituzte Iñigo Urkullurengan eta EAJrengan konfiantza jarritz".

Alberto Alonso Bergarako zinegotzi eta aurrerantzean legebiltzarkide sozialista izango denak abstentzioaren balioa nabarmendu gura izan du. "Historiako handiena izan da eta horrek bere ondorioak ekarri ditu emaitzetan. Gure alderdiari dagokionez, nahiz eta abstentzioa handia izan, oso emaitza onak dira, legebiltzarkide bat gehiago lortu dugulako", nabarmendu du oñatiarrak.

#### "LEGEBILTZARKIDE BAT GEHIAGO LORTU DUGU; OSO EMAITZA ONAK DIRA"

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

#### Hausnarketarako momentua

Arrasateko Elkarrekin Podemos-IU koalizioak onartu du ez direla esperotako emaitzak eta orain autokritikarako eta hausnarketarako sasoi dela. Abstentzioak kaltetu egin dituela ere nabarmendu dute.

Hala ere, eskualdean "alternatiba eraldatzailea" eraikitzeke aukerak badaudela eta horrek itxaropena ematen diela azaldu dute: "Eskualdean ezkerreko alderdiak gehiengoa izateak ere itxaropena ematen digu aurrera begira ezkerreko alternatiba eraldatzailea eraikitzeke aukera dagoelako. Jarraituko dugu ezkerretik alternatiba politikoak eraikitzeke bidea zabalitzen eta gure eskualdean ere aldaketa politikoa errotzen".

#### Abstentzioak eragina izan du

Haien alderdien emaitzak ez ezik, emaitza orokorrak ere aztertuta dituzte bailarako ordezkari politikoek, eta OiARBIDEk, esaterako, azaldu du abstentzioaren ondorioz EAJ izan dela alderdi kaltetuena. "Ikusten duguna da Podemoseko boto emaitzak EH Bilduri eman diotela botoa oraingoan. Era berean,

#### "EZ DUGU ARAZORIK ONARTZEKO EZ DIRELA ESPEROTAKO EMAITZAK IZAN"

EVA ABUIN, ELKARREKIN PODEMOS-IU



abstentzioak alderdi guztiei egin die kalte, baina kalterik handiena EAJri egin diola esango nuke", adierazi du.

Biainek dio gobernuaren blokea mantendu bakarrik ez, hobetu ere egin dela emaitza hauekin. "Baina ikusten da EH Bildu alternatiba moduan sendotzen doala hauteskunder hazteak", gaineratu du.

Alderdi sozialistako legebiltzarkide berriak nabarmendu du abstentzio altuaren ondorioz ultraeskuina sartu dela Eusko Legebiltzarrean, eta hori ez dela albiste ona. "Sentsazio gazi-goza utzi digute emaitzek, alde horretatik", dio.

#### Debagoieneko emaitzei buruz

EH Bilduko batzarkidearen iritziz, besteak beste, Zaldibarko krisiak eragina izan du Debagoieneko eta Debagoieneko emaitzetan. "Higadura bat sortu du EAJrengan eta alderdi sozialistarengan, eta EH Bildu indartu egin da eskualde horietan. Herriarrek euren botoekin hori islatu dute, nahiz eta Zaldibarkoa ez izan eragile bakarra", nabarmendu du.

## Sei debagoiendar egongo dira Legebiltzarrean



**AITOR URRUTIA**  
EAJ

Aitor Urrutia eskoriatzarra da, 1973an jaioa. Eskoriatzako EAJren alkategaia eta zinegotzia izan zen 2007tik 2014ra bitartean eta 2015ean Maria Eugenia Arrizabalagaren lekua hartu zuen Eusko Legebiltzarrean, gaur egun arte.



**ALBERTO ALONSO**  
PSE-EE

Oñatin jaio zen Alberto Alonso, 1976an, eta gaur egun, Arabako Mendoza herrian bizi da. Bergaran alderdi sozialistak duen zinegotzi bakarra da, eta lehen aldiz izango da legebiltzarkide legegintzaldi honetan.



**LORE MARTINEZ**  
EH BILDU

Aretxabaletarra da Lore Martinez, eta 1971n jaio zen. Informazio Gizartearen zuzendaria izan zen Diputazioan 2011tik 2015era, eta EAko eta Bilduko zinegotzi izan zen Aretxabaletan. Lehen aldiz izango da legebiltzarkide.



**ANDER RODRIGUEZ**  
EH BILDU

Arrasatearra, 1982an jaioa. 2011tik 2015era, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako foru diputatu, eta 2017tik EH Bilduren Gizarte Politikako idazkari. Iaztik legelegebiltzarkide; Pello Urizarren ordezkari izan zen.



**REBEKA UBERA**  
EH BILDU

1972an jaio zen Rebeka Ubera, Elgetan. 2007tik, Elgetako zinegotzi izan zen Ezker Batua Berdeak-Aralar koalizioarekin, eta Gipuzkoan batzarkide izan da. Azken legegintzaldian legebiltzarkide izan da, eta datorrenean ere hala ariko da.



**LUIS JAVIER TELLERIA**  
EAJ

Antzuolan jaio zen Luis Javier Telleria, 1957an, baina gaur egun, Gasteizen bizi da. Antzuolako zinegotzi izan zen 2015-2019 agintaldian, eta Eusko Legebiltzarrean 2012tik dago. Beraz, hirugarren legegintzaldia izango du hau.

Bide Azpiegiturarako diputatuaren iritziz, berriz, EAE osoan izan den joera gertatu da Debagoienean ere; hau da, Elkarrekin Podemos-IUren boto asko EH Bildura joan direla: "Bailarako herri guztietan nabarmena izan da hori, Antzuolan izan ezik".

Biainek esandakoari erantzunez, halaber, Oiarbidek dio Eibarren EAJk eskuratu dituela boto gehien. "EH Bildu izan da bigarren indarra eta urte askoan Udal Gobernuan izan den alderdi, PSE-EE, hirugarren geratu da. Nik hor ez dut ikusten gu kaltetuak izan garenik".

Debagoienari dagokionez, Oiarbidek azaldu du azken urteetan boto aldaketa handiak izan direla hauteskunde batzuetatik besteetara. "Ikusi beharko da ezkerreko boto hori EH Bildun egonkortuko den edo ez".

Biainek, azkenik, azpimarratu gura izan du Eibarren aldaketa nabarmena izan dela, eta Debagoienean ere EH Bildu indartu izanari balioa eman gura izan dio. "Oñatiren kasuan, esaterako, EAJ dezente jaitsi da eta EH Bildu, aldiz, asko igo da", zehaztu du.



## ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

Lanbide-irteera asko dituen goi mailako Lanbide Heziketako ziklo bat.

Biolan nekazaritzako elikagaien sektoreari aplikatutako teknologian erreferentziatzeko enpresa bat da, bioteknologiko oinarria duena. Zamudioko Parke Teknologikoko instalazioetan elikagaien kalitatea eta segurtasuna kontrolatzeko biosentsoreak garatzen dituzte. Bertan lan egiten dute Lea Artibai ikastetxeko lau ikasle ohik, *Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea* goi-mailako Lanbide

Heziketako zikloa ikasi dutenak. Eider Omaetxebarriak eta Pello Del Hoyok 2018-19 ikasturtean prestakuntza duala egin zuten eta Kelly Da Cruz Aldeias eta Jon Bedialauneta, prestakuntza amaitu ondoren, laster hasiko dira bertan lanean kontratu batekin.

Asier Albizu Biolaneko kudeatzailearekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta Lea Artibai ikastetxearekin lankidetzan izandako esperientziak galdetu diegu:

#### Nola egokitu dira gazteak taldera?

Egokitzapena oso erraza izan da, taldea gaztea delako eta lan-giroa oso atsegina delako. Ikasteko eta laguntzeko gogoz zetozen, eta, egia esan, oso ondo moldatu dira, eta horregatik sartu dira lantaldean.

#### Egokitzat jotzen duzu Lanbide Heziketan ematen den prestakuntza-maila?

Eskurabutsako prestakuntza teknika garantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da pertsonen lanaren aurrean duten jarrera eta ikasteko gogoia izan ere, Biolanen egiten dituzten zereginak

oso espezifikoak dira, eta Lea Artibai ikastetxeak eskaintzen diren aukerak aprobetxatzea prestakuntza-oinarri honen ezaugarri bat da.

#### Zer onura dakartzeko sistema dualak enpresari?

Pertsonak behar beste denboraz ebakitzeko aukera ematen digu, eta ikasleei ere aukera hori benetan aukera bat den baloratzeko abagunea ere ematen die.

#### Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio elikadura osasuntsuari eta elikagaien kalitateari. Hori kontuan hartuta, uste duzu etorkizun hurbilean arlo horietan langile kualifikatuen beharra egon daitekeela sektorean?

Elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloan langile kualifikatuen beharrak gora egiten jarraitzen du; izan ere, mundu mailan gure jardura eritimo onean hazten ari da, agintariek betearazten dituzten ziurtagirik eta kontrolak oso zorrotzak direlako eta kontsumitzaileek ere gero eta gehiago eskatzen dutelako.



Markina-Xemein  
94 616 90 02

info@leartik.com  
www.leartik.com

# Maskarak derrigorrez eta ondo jantzita, atzotik

Ostalaritzako establezimenduetan jateko edo edateko unean soilik erantzi daiteke maskara eta gehienez hamar pertsona egon daitezke mahai edo mahai-multzo bakoitzeko. Hondartza eta igerilekuetan ere erabili behar da; ez, ordea, bainatzeko

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

"Egoeraren bilakaera ikusita eta epidemia kontrolatu beharra kontuan hartuta", eguaztenean iragarri zuen Nekane Murga Osasun sailburuak atzo ezkerro derrigorrezkoa dela maskaren erabilera Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala, uztailaren 16an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako aginduaren arabera, "personen arteko tartea edozein dela ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan, bai erabilera publikoko gune itxietan edo jendearentzat irekita dauden lekuetan".

Era berean, maskara behar bezala erabili behar da derrigor, sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino –barne– estaliz. Ostalaritzako establezimenduetan, jateko edo edateko unean bakarrik erantzi daiteke maskara; bestela, jantzita izan beharko da. Eta gehienezko okupazioa hamar pertsona izango da mahai edo mahai-multzo bakoitzeko. Hondartzetan eta igerilekuetan, bainua hartzerakoan edo eremu zehatz batean bagaude, ez da beharrezkoa izango maskara erabiltzea; betiere, erabiltzaileen arteko segurtasun-tartea errespetatu badaiteke.

## Maiatzaren 7tik, altuena

Azken hilabeteetako COVID-19 positibo daturik kezagarriena erregistratu da aste honetan Euskal Autonomia Erkidegoan; izan ere, uztailaren 14an, martitzena, egindako PCR probek 60 kasu berri baieztatu zituzten. Maiatzaren 7a geroztik ez zen gairitu 60 positiboan langa EAEn, aste honetara arte. Balarako datuei erreparatuta, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza izan dira azken astean, uztailaren 8tik 14ra arte, PCR bidezko proben bitartez eginda-



Herritarrek maskara jantzita Arrasateko Olarte kalean, atzo. J.O.

ko testetan COVID-19 positibo kasuak erregistratu dituzten herriak.

## Eskoriatzako agerraldia

Joan den asteko eguenean, hilak 9, jakin zen Eskoriatzako Hotela tabernako bezero batek

positibo eman zuela COVID-19aren PCR proban, eta ordutik kezka zabaldu zen herritarren artean. Hala, Hotela tabernako jabeek ere proba egin, eta bietako batek positibo eman zuen. Egoera horretan, 50 laguni baino gehiagori egin zizkieten orduan PCR probak. Herrian zabaldu zen izuagatik hainbat gurasok haurrak udalekuetara ez eramatea erabaki zuten eta bertan behera geratu ziren astelehenera arte. Hainbat tabernak atea ixtea erabaki edo neurri bereziak hartu zituzten.

Uztailaren 9an COVID-19an positibo eman zuen eskoriatzarrak –Hotela tabernako bezeroa– hilik aurkitu zuten domekan, hilak 12, bere etxebizitzan. Eskoriatzako udaltzainen arabera, positibo diren herritar guztien jarraipena egiten ari zirela, harekin kontaktatzerik izan ez zuten etxebizitzara bertaratu ziren. Atea zabaltzen ez zuenez, Oñatiko suhiltzaileak bertaratu, eta balkoitik sartu ziren etxebizitzara. Behin barruan, hilda aurkitu zuten herritarra. Auzitegiko medikuak ziurtatu zuenez, heriotza naturala izan zen.

## Kutsatuak uztailaren 8tik 15era

	Positiboak	Positibo metatuak
Arrasate	2	253
Oñati	0	50
Bergara	0	57
Aretxabaleta	1	63
Eskoriatza	5	20
Antzuola	0	7
Aramaio	0	5
Elgeta	0	8
Gatzaga	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>463</b>

ITURRIA: OSAKIDETZA



Gidari bat autoan deskargako autobidean zehar, Antzuolako irteerara bidean. GOIENA

## A-636 autobidearen bidesariaren zenbatekoa zehaztu dute asteen

Ez dute adierazi noiz hasi beharko den ordaintzen, baina 2022ko ekaina baino lehen izan beharko du

**J.O.** DEBAGOIENA

Beasain eta Bergara arteko A-636 autobidea erabiltzeagatik ezarriko den ordainsaria finkatu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak asteen. Oraindik ez dute zehaztu ordaintak noiz hasiko diren, baina, azaldu dutenez, ezingo da izan 2022ko ekainaren 30a baino beranduago.

## Bidesariaren zenbatekoa

Hala, ibilgailu guztiendako tasak ezarri dituzte, motozikletentzako izan ezik. Bertan zehazten denez, Beasaindik Bergarara doan erabiltzaileak, esaterako, 2,53 euro ordaindu beharko ditu, ibilgailu arina izanda, eta deskonturik gabe. Ordaintak egiteko erabiltzaileek "baliabide teknikoak" eduki behar dituztela jakinarazi dute, edo, bestela, matrikula ordainbide batekin lotzen duen informazioa eman

beharko dute. Bestetik, Gipuzkoan erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hileko "deskontu gorakorak" eta hileko "gastu mugak" ere aplikatuko dituztela aurreratu dute, "baldintzak beteta".

## Zerga bilketak, behera

Eider Mendoza bozeramaileak jakinarazi duenez, Gipuzkoako zerga bilketa metatua 1.402,5 milioi eurokoa izan da ekainera arte –iaz baino 184,5 milioi euro gutxiago–, baina konfinamendu garaian atzeratutako ordainketen "zati handi bat" berreskuratuta dela azaldu du: "Lehen hiruhilekoko ordainketa apirilaren 27an zen egitekoa eta ekainaren 1era mugitu genuen. Ondorioz, autolikidazio hauek guztiak 2019ko maiatzean zenbatu ziren, eta aurten, aldiz, ekainean". Urte amaierarako zerga bilketaren %20ko jaitsiera aurreikuspena mantendu dute.

## 2020ko artile bilketa kanpaina martxan da Gipuzkoan

Gipuzkoan artile bilketa ahalik eta modu simple eta merkean egiteko asmotan, Gipuzkoako Foru Aldundia, ardi sektoreko elkarteak, gestio etxeak, nekazaritzako sindikatuak eta landa garapenerako elkarteak aurtengo bilketa kanpaina abiarazi dute. Uztailaren bigarren hamabostaldian egingo dute artile bilketa Gipuzkoan, eta, Debagoiena-

ri dagokionez, zehazki, uztailaren 22an izango da.

Eskualde bakoitzean gune bat zehaztu dute bilketa egiteko eta Epeleko zabortegira (Elorregi auzoa z/g) eraman beharko da artilea. Zerbitzua jasotzeko interesa duten artzainek 696 43 36 02 telefonora deitu beharko dute eta bertan emango diete informazio guztia.

Jakinarazi dutenez, finantza-ketaren zati bat Aldundiak lagunduko du eta bestea artzainek ordaindu beharko dute.



Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Uztailaren 16tik 22ra

Aurreztu

**10**  
%



Zure erosketetan\* **egunero.**

\*50€-tik gorako erosketengatik Antzuola, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Arrasate eta Oñatiko EROSKI Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoengatik EROSKI Arrasate Hipermerkatuan.

Kutxatik igarotzean zure EROSKI club txartela pasatzen baduzu, egindako erosketaren %10ari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Erosketa bakoitzean gehienez sartu daitekeen zenbatekoa: 250€. Kontsulta itzazu gainerako baldintzak zure ohiko EROSKI dendan.

Baita [supermercado.eroski.es](http://supermercado.eroski.es)-en ere.



**EROSKI**

zurekin

# "ETArekin hartu-emanak genituela ziotenean, ETAk estortsioa egiten zigun"

Espainiako errege-erreginak 2004an Arrasatera etorri zireneko gogora ekartzen dute gaur 'Puntua'-k eta Goiena telebistak. Jesus Catania MCCko buru ohiak dihardu orduko hartaz. Testuingurua eta bisitaren arrazoiak kontatu ditu

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE

Hamasei urte dira Espainiako errege-erreginak Arrasateko kooperatibetara gonbidatu zituztela, eta *Goiena*: 20 urte 20 albiste erreportaje sortaren barruan gai horri helduko dio gaurko *Puntua*-k. Horretaz gain, gaur, egubakoitza, 21:30ean, Goiena telebistak gai horren bueltan egindako erreportajea emango du.

Erreportajeko protagonisteko bat Jesus Catania da. Mondragon Taldeko orduan MCC-presidentea izan zen 2002tik 2007ra bitartean. Eta eskusiban egin du berba Goienako kameran aurrean. 2004ko abenduaren 9an, Espainiako Juan Carlos I.a eta Sofia errege-erreginak etorri ziren Arrasatera, MCCko zuzendaritzak gonbidatuta. Garaia ikerkuntza gunearen lehen harria jartzera eta Fagor Etxetresna Elektrikoen linea berria, Garagartzan, inauguratzera etorri ziren.

**Urteetan, isilpean**

Gonbidapen horren atzean, baina, beste motibo batzuk zeuden, orduko MCCko presidentek aurreratu moduan: "Espainiako eskumako hainbat sektoretatik, bereziki ultraeskuinarekin lotura estua zutenen partetik, presioak jasotzen genituen. Kanpaina antolatuta ziren, MCC eta ETA lotzen saiatzen ziren, eta zuzen jotzen zuten MCC taldeko zenbait enpresaren kontra. Bereziki, Eroskiren, Fagorren eta Caja Laboralen kontra. Hala, Espainiako errege-erreginak gonbidatu izana kanpaina horri aurre egiteko estrategia moduan ulertu behar da", adierazi dio Goienari Cataniak.

Horrekin batera, hedabideen aurrean lehenengoz aitortu du



Jesus Catania, Donostian –hantxe bizi da–, joan den astean. XABIER URZELAI

2002an ETArekin partetik estortsio gutuna jaso zutela taldeko zuzendaritzako kide guztiek, eta 2004an beste gutun bat jaso zuten. MCCk ETArekin hartu-emanak zituela leporatzen zieten batzuek. "Eta, bitartean, ETAk estortsioa egiten zigun", adierazi du Cataniak. Eta zera gehitu du kooperatiben taldeko buru ohiak: "ETArekin partetik gutun bat jasotzerakoan, hiru aukera zeuden: isilik geratu eta ezer ez egin; ordaindu; edo polizia estortsioaren berri eman eta euren gomendioak jarraitu. Guk hirugarren aukeraren alde egin genuen eta Eusko Jaurlaritzatik babes osoa jaso genuen. Bereziki, laguntza psikologikoa lagundu gintuen asko. Zuzendaritzako batzuek ez zioten inori ezer kontatu, nik emaztearekin egin nuen berba, eta erabaki genuen seme-alabei ezer ez esate.

**"KANPAINA ANTOLATUAK EGIN ZITUZTEN MCC ETA-REKIN LOTZEKO"**

JESUS CATANIA, MCC-KO BURU OHIA

tea. Duela lau zapabost urtera arte isilpean mantendu dugu, eta halako batean gaia atera zen eta gutunak erakutsi nizkien etxekoei, biak ditut gordeta".

**Bisitak, ezinegona**

ETArekin mehatxu horrez aparte, dena den, Espainiako errege-erreginen bisitak ezinegona, eztabaida eta haserrea piztu zituen herritarren eta MCCko langile askorengan. Eta orduko mobilizazioak eta testuinguru politikoa ere erakutsiko ditu Xabier Urzelaik *Puntua*-n eta Goiena telebistan landu duen erreportajeak.

Hala, esate baterako, Cataniaren testigantza gain, Utzune Urrizalki Herri Anitza herri plataforma legez kanporatuko kidearen eta Maria Agirre kazetariaren berbak ere jaso ditu erreportajeak.

**"ESTORTSIOAREN BERRI EMAN GENION JAURLARITZARI; ASKO LAGUNDU ZIGUN"**

JESUS CATANIA, MCC-KO BURU OHIA



2018an egin zen Txakolin Eguneko irudia. AITZIBER ARANBURUZABALA

## Txakolin Eguna ospatuko dute bihar, azokarekin batera

Bailarako hiru txakolingile izango dira bertan: Otxia (Arrasate), Belaskua (Oñati) eta Murgialdai (Oñati)

**Uxue Igarza Loiola** ARRASATE

Bihar, hileko hirugarren zapatua izanik, baserritarrek azoka egingo dute Arrasateko Seber Altube plazan. 09:00etan hasi eta 14:00ak arte egongo da azoka, eta berezia izango da biharkoa; izan ere, Txakolin Eguna ere ospatuko da. Hala, Debagoieneko hiru ekoizle beren txakolina eskainiko dute plazan, baserritarren gainerako produktuekin batera: Oñatik Belaskuak eta Murgialdaik eta Arrasateko Bedoñako Otxiak.

Antolatzaileen esanetan, txakolina erosteaz gain, dastatzeko aukera ere izango dute bertaraten direnek. Gainera, 11:00etatik aurrera, baserritarren gazta, ogia eta gildak ere egongo dira, txakolinarekin batera, sabela betetzeko. Azokako erosketatxartelarekin doan izango dira pintxoak, eta, bestela, euro baten truke salduko dira.

## Urteko batzarrak egiten ari dira Fagor Taldeko kooperatibak

COVID-19ak eragindako egoera dela-eta Fagorren baitako kooperatibek uztailera atzeratu dituzte ohiko bilerak, eta osasun protokoloak aintzat hartzen ari dira prozesuan: presentzia fisikoa murriztu dute eta soilik beharrezkoak diren erabakiak hartzen ari direla esan dute.

Azaldu dutenez, alarma egoerak eragindako "kolpe ekono-

Bestetik, ekainekoari jarraituz, antolaketa berezia izango dute postuek: alde batera begira bakarrik egongo dira kolatuta eta postuen artean distantziak mantenduko dira. Horrez gain, nahitaezkoa izango da maskara jarrita eramatea.

**Guztira, 16 postu**

Azokan askotariko produktuak izango dira, eta, guztira, 16 postutan banatuko dira: ogia, haragi ekologikoa eta gazta; egurrezko tresnak sukalderako; lautadaren promozioa; arrain kontserbak; euskal pastela eta ardi-gazta; barazki ekologikoak; barazkiak eta gazta; ahate deribatua; nekazaritza tresnak; marmelada ekologikoa; ardi-gazta; ezti; deshidratatutako produktuak eta hazi garrapiñatuak; marokoar erako pastak; ogia eta zogozintza; eta gailetak, bizkotxoak eta enpanadak.

mikoari" aurre egiteko neurriak adosten ari dira, eta batzarrak bazkideei azalpenak emateko ere baliatuko dituzte: "Egoeraren berri modu zuzenean eta zehatzean emango dugu, eta, ahal den neurrian, urte bukaerara begira aurreikusten dugun eboluzioa azalduko dugu".

Urteko batzarren prozesua hilaren 10ean hasi zuen Fagor Elektronikak; gaurtik aurrera, kooperatiba bakoitzak berea egingo du. Hilaren 29an, berriz, batzar orokorra egingo dute.



**Ondarea, nortasuna****MAIA RUIZ ZABALA**

ARAMAIO

Ugariak dira ahuldutako egoera ekonomikoa suspertzeko ahaleginetan egunotan eskaintzen zaizkigun aukerak komunikabideetan. Turismoaren esparrutik, oraindik ezagutzen ez ditugun gertuko bitxiak bisitatzera gonbidatzen gaituzte, eta eskualde-lurralde bakoitzak bere izaera eta historia islatzen dituen baliabideak modu erakargarrian eskaintzen dizkie bisitariei.

Debagoienaren sustraia metala da. Bailararen garapena ekarri zuten lantegien sorrerak eta hauen bilakaerak eraiki zuten debagoiendarren historia. Hasierako tailer haietako makina, dokumentazio eta langileen testigantzak batu, babestu eta partekatzea beharrezkoa da.

Arrasate da kooperatibismoaren jaiolekua. Ezohikoa zen apaiz nekazekin batek gizartea eta elkarlana ulertzeko era bat bultzatu zuen. Indar eta ahalegin haien omenez, kooperatibismoaren

oinarriak eta filosofia munduarekin partekatzea beharrezkoa da.

Gure bailararen nortasuna, historia eta ondarea erakusteko, industria museoa sortu beharko litzateke. Espazio ireki honetan, etxeko zein atzerriko bisitariak zailtasun anitzeko garai gogor haiei aurre egiteko gakoak zeintzuk izan ziren ezagutuko lituzkete: etorkizuneko erronkei aurre egiteko giltza.

**Izan bidea gurekin!****ENRIKE LETONA BITERI**ARRASATEKO SAREREN IZENEAN  
ARRASATE

Ekimen polita antolatu du Sarek, oroitarazteko presoen egoera ez dela aldatu eta herri honek aurrera egin nahi badu, arazo honi adarretatik heldu eta konpondu beharra dagoela.

Beste garai batzuetan, *mendira joan/ mendira jo* esaerak beste konnotazio batzuk zituen. Oraingoan, mendira joango gara presoen aldeko kilometroak egitera. Sarek sortutako aplikazioa eskuko telefonoan instalatu eta Euskal Herriak dituen adina biztanle kilometro egiteko.

Mendira oinez, korrika edo bizikletaz joan gaitezke. Gaur egun, konfinamendua *pasatu* ondoren, kirola hainbeste jendeke egiten duen garaian, zergatik ez gehitu

aldarrikapen bat ekintza horri. Zergatik ez zabaldu lau haizetara presoak Euskal Herrian nahi eta behar ditugula. Zergatik ez ozen adierazi ezin dela normaltasunik egon presoek espetxean jarraituz.

Zenbat aldiz entzun izan dugu indarkeriarik gabe dena dela posible. Aspaldi ez dago alde bateko indarkeriarik! Baina indarkeriari eusten diote astero-astero presoen senideak milaka kilometro egitera behartzen dituztenek eta baita hori aldatzeko nahikoa ez dutenek egiten ere.

Biteri plazan elkartuko gara igandean, uztailaren 19an, goizeko bederatzietan, eta hortik abiatuko gara. Pentsatzen baduzu presoek Euskal Herrian, kalean, egon behar dutela, ez gelditu etxean, izan bidea! Etorri gurekin mendira, egin kilometro batzuk presoen alde.

**Oñatiko Caritas-ek, esker onez****IRATXE BARRUSO**OÑATIKO CARITAS-EKO BOLUNTARIOEN  
IZENEAN  
OÑATI

Lerro hauen bitartez, Oñatiko Caritas-eko kideok, berriz ere, premia egoeran Oñatiko herriak erakutsi duen eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu. Pandemia izan dela-eta martxan jarri dugun

kanpainaren erantzuna eredugarria izan da: 40.000 euro baino gehiago batu ditugu. Doakizuela gure esker ona Fagor Industrial, Ulma Fundazioa, Matz Erreka, Cartonajes Arregi, La Caixa eta era anonimoan mezetan zein beste biderik erabilia zuen ekarpena egin duzuen guztioi. Jasotako guztia beharrezko direnekin ditugun proiektuetan inbertitzeko gure konpromisoa duzue.

**Arrain hilketak****JOSU GARITAO NANDIA**'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN  
ARDURADUNA  
BERGARA

Ohikotzat daukagu ibaia zikin ikustea; olio zikinduta zegoen urtarrilaren 26an Bergaran. Tristura handiz esan behar da ia urtero azaltzen direla arrainak hilik: apirilaren 3an Antzuolan, 2018ko otsailean eta 2013ko abenduan Osintxu eta Soraluez artean zianuroaren eraginez, 2011ko irailean ahateak eta arrainak Bergaran. Oraindik ez dituzte aurkitu hilketak hauen arduradunak.

Segi ibaia zaintzen: edozer gauza arraro sumatuz gero, deitu 112-ra, ez ipini aitzakiarik pentsatuz beste batek deitu duela eta... Dei egin eta froga dezagun hemen askori inporta zaigula Deba ibaiaren egoera.

## Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali  
[gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

## Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

**HAUXE BAI JENEROA!****GARBIÑE UBEDA**



ZABALIK

XABIER MUGARZA

## 'Joxe Mari bertsolari'

Idatzi hori topau eben zapatu goizian herritar batek bere etxe aurreko paretan. Herriko bertsolari barri batendako animuak? Ez. GOIENA aldizkarixan bere iritzia emutiarren jaso eben erregalotxua, opari koldar eta gaiztua.

Konfundiuta ez baldin banau, ekintza honen aurka ez da gaitzespen publikorik egin, ez Udalaren ezta beste inoren partetik be. Deigarrixa bere horretan; are deigarrixaua, herrixan bertan gertau dan beste egoera batekin alboraketan baldin badu.

Egin daigun ekintza hau Euskadiko kontestutik etarateko ariketia, ea ze adjetibo urtetan doskun ekintza deskribituko. Bai, ezta? Ba, hemen, adjetibo hori beste batzundako era eskusibuan gordeta daku. Guzti honek argi izten dau ondiok be iraganeke eskemak presente jarraitetan dauella gurian eta bide luzia dakula ondiok egitteko.

Egoera honeiri bueltia emutia guztixon arduria dala esaten du, baina "guztixon" esate horrek, askotan, arduria hatz artian desagerketia dakar. Arduria norbanako bakoitzana da, bakoitzak dako zer aportau eta zer egin ibilbide honetan, eta, gehixenbat, herritar honen idatzixari beste idatzi batekin erantzun xauen eremu

### GUZTI HONEK ARGI IZTEN DAU ONDIOK BE IRAGANEKO ESKEMAK PRESENTE JARRAIKETA DAUEILA

politikua; idatzi hori egittiatik, zorionez, sekula pinttadarik jasoko ez dauenak.

EH Bilduk ardura berezixa dako gai honetan. Batez be, kualiziñuan Sorturen bidelagun dianak, mundu hortan emun biharreko aldaketan influittuko aukera gehixen eurak baitakoi. Eta justu honetxetan nau ezkorren, hauxe ikusten baitoit:

-Ezker abertzale ortodoxuari bide barrixa irakustera ausartu zan Aralar, ezker abertzale ortodoxua bidian jarritta, euzen lekuan itxoin barik, bidia atzeruzka egin dauena.


-Guztiz fagotizatutako sozial demokrazia, hautsitta dauen EA.

-Iñoiz soberanista izan ez dan, eta konbenientzia enkajia lortu dauen Alternatiba.

Idatzixa amaitzeko, nere animorik senduenak herritar honi eta bere etxekueri. Denuntziarik larrixena ekintza mota honeiri eta euren egilliei. Ia noizbait norberaren iritzixa publikoki emuteko eskubidia era aske baten ulertzen ikasten dogun danok. Bide asko dau egitteke.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Algoritmo gorrotagarria

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gure nekazari agroekologikoak auzolan bat deitu zuen eta poz-pezik joan nintzen piper eta tomate landareak itotzen ari zituzten belarrak kentzera. Ortuaren beste emakumeekin batera kukubilko jarrita bi orduz lan egin ondoren, goxo lur jota heldu nintzen etxera: gorputza akituta, baina burua erlaxatuta.

Egun horretan elkarrizketa bat argitaratu nuen eta ezin izan nuen eutsi Twitterren sartzeko tentazioari. Datsegit eta bertxio ugari topatu nituen, baina denbora lerroan

Espanian ospe handiko feminista baten txio LGBTIfobo gogaikarri bat nabarmendu zitzaidan. Sututa erantzun nuen, nahiz eta jakin Twitter ez dela barne eztabaidarako leku egokia. Minutuak pasa ahala sentitu nuen bihotzean samina, buruan lainoa, lepoan uzkuradura. Hain nengoen haserre eta goibel, feminista multzo batek ultraeskuindarrekin gorroto diskurtsoa konpartitzen dutela ikusita, non gau horretan ez nintzen alaba lokartzeko gai, nire ezinegona kutsatu nion eta.

Hurrengo egunean Twitterreko nire kontua desaktibatu egin nuen. Sei

egun baino ez nion eutsi erabakiari, baina amorrualdia adierazteko modu bakarra nuen.

Erbestealdi horrez gozaten nembilela, teknologian aditua den Marta Peirano kazetariaren azalpen bat irakurri nuen: Facebookek, Googlek eta Twitterrek darabilten algoritmoek eduki eskandalagarriak eta sumingarriak amplifikatzen dituzte, emozio horiek *engagement*-a bermatzen dutelako: plataformara engantxatuta mantentzen gaituzte, interakzioak biderkatuz.

Enfin, gero eta argudio gehiago ditut ziberoptimismoa pikutara bidaltzeko.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

#### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

#### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza,  
Maite Igartua.

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua:

SS-965/2014  
ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Segurtasuna oinarrizkoa da gailu elektronikoetan"

**SALVADOR TRUJILLO** IKERLAN-EKO ZIBERSEGURTASUN ARLOKO ARDURADUNA

**Maialen Santos** ARRASATE

Ikerlan zentro teknologikoak TÜV Rheinlanden ziurtagiria eskuratu du zibersegurtasuna kudeatzeko duen sistemarako. Aitortza horrek egiaztatzen du zentroak produktu elektroniko ziberseguruak garatzeko duen ahalmena. **Zer esangura dauka, zehazki, egiaztagiri horrek?**

Egiaztagiri horri esker frogatu dezakegu enpresak produktu ziberseguruak garatu ditzakeela IEC 62443-4-1 araudiak ezarritako baldintza zorrotzei jarraituta. Estandar horrek neurtzen du erabiltzen dugun metodologia.

**Zertan laguntzen du zibersegurtasunak?**

Zibersegurtasuna faktore gakoa da produktu elektronikoak, konexioak eta informazio fluxua seguruak direla bermatzeko.

**Nola kontrolatu daiteke hori?**

Esate baterako, denbora pasa ahala sistema elektronikoek gero eta akats gutxiago izaten dituzte; softwarea frogatuago



Salvador Trujillo, Ikerlaneko zibersegurtasuneko arduraduna. IKERLAN

izaten dutelako. Telefono mugikorretan, baina, aplikazioak eguneratu egiten dira uneoro. Gertatzen dena da, aplikazio bat eguneratzen den bakoitzean akatsen bat izateko probabilitate

handiagoa duela, eta hori kontrolatu egin behar da; kontrolatzen zaila izan arren. Izan ere, eguneratze prozesu horietan segurtasuna ere oso kontutan hartu beharreko faktorea da.

**Nolakoa izan da prozesua?**

Enpresa barruan prozesu batzuk garatu genituen zibersegurtasuna lantzeko. Ziurtagiria eman diguten TÜV Rheinland taldekoak Alemaniatik etorri izan dira, lanean nola ari garen ikustera. Ikusatu egin gaituzte; jarraitzen ditugun urratsak zeintzuk diren azaldu diegu, eta urrats horiek jarraitzen ditugula frogatu egin behar izan dugu. Ikusi dute enpresak produktu ziberseguruak garatu ditzakeela, eta egindako lana aitortu digute.

**Zein ekarpen egiten dizue aitortza hau lortzeko enpresari eta langileei?**

Oso garrantzitsua da. Beste toki batzuetan produktu elektronikoak egiten dituztenean, ziurtagiri hau eskatzen diete, baina ez dute izaten. Are gehiago, askok ezagutu ere ez dute egiten. Horrek esan gura du ziurtagiriak gure enpresak eremu honetan duen posizionamendu garrantzitsua balioztatzen duela.

**Noiztik ari zarete proiektu honetan lanean?**

2016az geroztik, gutxienez. 42 ikertzaile ditugu industriako zibersegurtasuneko bi espezializazio taldetan antolatuta.

**Industriako zibersegurtasunaren espezializatzea da Ikerlanen apustu handietako bat...**

Industriak duen erronkarik handienetako bati erantzuten dio zentroaren espezializazioak; izan ere, gero eta handiagoa da konektibitatearen eskaera eta, orokorrean, produktuen eta prozesuen digitalizazioaren eskaera. Horrek ekarri du mehatxuek eta zaugarritasunek ere gora egin dutela.

**Digitalizazioak gora egiteak, zer dakar?**

Zibersegurtasunaren beharra dakar. Adibidez, tren sektorean digitalizazioa sekulako bilakaera ari da izaten. Trenbide pasaguneak, seinaleak, sarbideak, potentzia eta abiadura kontrola... sistema horiek guztiak gailu elektronikoek bidez kontrolatzen dira, eta horien zibersegurtasuna bermatzea oinarrizkoa da.

**Segurtasun funtzionaleko ziurtagiria ere lortu zenuten 2012an...**

Bai, hala da. Europan hori eskuratu zuen lehen erakundeetako bat izan ginen. Espainiako lehena izatera ere iritsi ginen. Uste dugu aitortza bikoitz horrek finkatu egiten duela zentroak duen erreferente posizioa.

## ITURRI ONETIK

### Artista bergarar bat, 'Huarte' arte bilduman Bilbon

Bilboko Arte Ederretako Museoak asteon inauguratu du *Maria Josefa Huarte* bilduma. 47 artelanek osatzen duten bildumatik, 40 Bilboko museoan daude ikusgai. 19 artistaren lanak. Horien artean, hauenak: Jorge Oteiza, Antoni Tapies, Pablo Picasso, Mark Rothko, Vasili Kandinsky, Eduardo Chillida... Eta baita Manu Muniategiandikoetxearen *Rodchenko rojo* ere. 2004an Arco feriarako egindako lana. Artistak esan du artelana ikusi eta Huarte maitemindu egin zela hartaz berehala.

## ALBISTE IZAN ZEN

2010-07-22

### San Frantzisko Borjakoaren gaineko liburua

*San Frantzisko Borjako Oñatiko Madalena ermitan* izenburuko liburua argitaratu zuten Jose Antonio Azpiatzuk eta Jerardo Elortzak, 500 urte bete zirelako haren jaiotzatik. 1510ean Gandian jaioa, Carlos V.a Espainiako erregearen gorteko kide izan zen. Ostean, Erromara egin zuen eta aita santuak kardinal egin nahi izan zuen, baina horri uko egin zion eta Oñatira egin zuen. 1551n eta 1552an egon zen Santxolopeztegiko Madalena ermitan.



## HAU BE BADOGU!

### 'Egin' egunkaria gogoratu dute sarean

22 urte igaro dira *Egin* egunkaria itxi zutenetik, eta sare sozialetan, #egin22urte traola erabilia, gertakaria gogoratu dute erabiltzaileek: @alauzirika: "Gaur duela 22 urte 200 polizia *Egineko* Hernaniko egoitzan sartu eta egunkaria itxi zuten. Hurrengo egunean kalean zen *Euskadi Informacion*. *Egineko* zuzendaria eta hainbat kide espetxeratuak izan ziren. #Egin22urte.

@sakatiok: "Zenbat #gaztegin irakurri ditugun, a zer nolako portadak! Bat bi hiru! Asteburuko agendak, kontzertuak... #Egin #Egin22urte".



# EH Bildu, lehen, 5 urteren ostean

Abstentzio altuak markatutako hauteskundeak izan dira; alderdi guztiek egin dute behera botoetan, EH Bilduk izan ezik. EAJk eta PSE-EEK parte-hartze mailaren pare egin dute behera eta Elkarrekin Podemosek jasotakoak baino boto gehiago galdu ditu

## Xabi Gorostidi ARRASATE

2015eko udal hauteskundeetatik hona EAJ nagusitu izan da Arrasaten egindako botaketa guztietan, batean izan ezik: 2019ko maiatzeko hauteskundeetan EH Bildu lehena izan zen Europako Parlamenturako botaketan. Salbuespen hori alde batera utzita, domekako emaitzek azken bost urteetan EAJk izandako nagusitasun joera eten dute.

## Abstentzio historikoa

Baldintza berezietan egindako hauteskundeak izanik, zaila edo arriskatua izan daiteke ondorio garbiak ateratea; batez ere, abstentzio-maila altua ikusita. Orokorrean %45,55ekoa izan da Arrasaten, baina bi hauteskuletan %60 gainditu du; auzoetan

–Garagartza eta Gesalibar–, %62,20; eta Makatzenan, %60,80, hain zuzen ere. Aldiz, Uribe eta Erdialdea izan dira abstentzio baxuena izan dutenak; %35,5 eta %38,5, hurrez hurren.

2016ko Legebiltzarrerako hauteskundeekin alderatuta ia zazpi puntu jaitsi da parte hartzea –%6,97–, eta 2019ko udal hauteskundeekin alderatuta, aldiz, ia hamabi –%11,85–.

## EH Bilduk, boto gehiago

EAJri 352 botoko aldea aterata lehen indar izen EH Bildu, eta boto kopuruan gora egin duen alderdi bakarra izan zen domekan. Kontuan izanda abstentzioa %7 handitu zela, 2016an baino 244 boto gehiago jaso zituzten. Alderdi botatuena izan ziren

Erdialdean, Musakolan eta Erguinen; bigarrena San Andresen, Uriben eta auzoetan; eta hirugarrena Makatzenan. Azken honetan EAJk baino 12 boto gutxiago jaso dituzte –2016an aldea 123koa izan zen–.

"Pozik gaude lortutako emaitzekin, bai EAE mailan, bai herri mailan, non lehenengo indarra izan garen. Azken garaiotan zantzu argiak ikusten bagenituen ere, domekan konfirmazioa iritsi zen: Ezkerreko independentismoa herri honetan alternatiba politiko erreal gisa kontsolidatu da. Eta are garrantzitsuagoa: etorkizunari parez pare begira jarri gara. Emaitzek ez gaituzte hain ustekabeen harapatu. Lorpenak ez dira zerutik eta doan erortzen. Ilusioz

eta gogotik egin dugu lan herri honi merezi duen proiektua eskaintzeko, eta lan horren fruitua dira igandeko emaitzak. Bestalde, lau urtean sei hauteskunde ziklo igaro ditugu eta guztietan gure egitasmo politikoa indartzen joan gara. Aldaketa ez da hasi besterik egin eta EH Bilduk gogor jarraituko du lanean herri justu, feminista, ekologista, euskaldun eta libre baten alde".


## EAJ, bigarren indar

Jeltzaleek behera egin du botoetan –2016an baino 228 gutxiago–, baina normaltzat jo daiteke, abstentzioa ikusita: parte hartzea %6,97 jaitsi da, eta EAJren emaitza 2016koa baino %6,74 baxuagoa da. Botoak gutxitu arren, botoen ehunekoan gora egin du

EAJk, %1,84. Lehen indar izan dira San Andresen, auzoetan eta Uriben, eta azken bi horietan gora egin dute botoetan; Uribeko kasuan, bigarren izatetik lehenak izatera pasa dira.

"Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu 3.381 boto horien atzean dauden Arrasateko emakumeei eta gizonei, EAJri beraien botoa eta konfiantza emategatik. Bestalde, datu bereizgarria eta aztertzea da abstentzio maila hain altua izatea Euskadin eta Gipuzkoan, eta, ondorioz, honek ere isla izan du gure herrian. Horregatik, abstentzio maila hain altua kontuan izanik, pandemiaren eragina, azken finean, hauteskunde hauek izan dituzten ingurunea eta baldintzak, Lege-

## Emaitzak Arrasaten



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa eta emaitzak

	ARRASATE 2016 Abstentzioa: %38,61	ARRASATE 2020 Abstentzioa: %45,55	Aldea Abstentzioa: -6,94 puntu	Erdialdea	Musakola	Makatzena	San Andres	Erguin	Uribe	Auzoak
<b>EH BILDU</b>	3.489 %32,65	<b>3.733</b> <b>%39,32</b>	+244 +6,67 puntu	1.824 %44,70	461 %42,30	144 %21,90	329 %29,80	631 %38,30	242 %42,20	102 %41,80
<b>EAJ</b>	3.609 %33,77	<b>3.381</b> <b>%35,61</b>	-228	1.556 %38,10	371 %34,00	156 %23,70	428 %38,80	505 %30,66	256 %44,60	109 %44,70
<b>PSE-EE</b>	1.145 %10,71	<b>1.095</b> <b>%11,53</b>	-50 +0,82 puntu	283 %6,90	133 %12,20	193 %29,30	184 %16,70	247 %15,30	38 %6,60	12 %4,90
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	1.601 %14,98	<b>713</b> <b>%7,62</b>	-888 -7,36 puntu	236 %5,80	76 %7,00	109 %16,60	93 %8,40	161 %9,78	26 %4,50	12 %4,90
<b>PP+C'S</b>	601 %5,62	<b>245</b> <b>%2,58</b>	-356 -3,04 puntu	83 %2,00	26 %2,40	25 %3,80	44 %4,00	45 %2,73	8 %1,40	6 %2,50
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>99</b> <b>%1,04</b>	99 +1,04 puntu	51 %1,24	6 %0,55	6 %0,90	7 %0,63	26 %1,58	2 %0,35	1 %0,41
<b>VOX</b>	-	<b>68</b> <b>%0,72</b>	68 +0,72 puntu	28 %0,70	8 %0,70	9 %1,40	10 %0,90	11 %0,67	1 %0,20	1 %0,41

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE. • 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN. • 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



biltzarrerako hauteskundeetarako EAJk atera dituen emaitzekin pozik gaude. Gipuzkoan eta Euskadin lehen indarra izaten jarraitzen dugu eta guk lanean segituko dugu bide honetatik jarraitu dezagun".

#### PSE-EE, autokritiko

Sozialistek hirugarren indar bezala jarraitzen dute, eta eurek izan dute beharakada txikiena: 50 boto gutxiago, 2016an baino %4,5 gutxiago. Makatzenan, adibidez, lehen indar izatera itzuli dira, EAJri aurre hartuz.

Hori guztia kontuan hartuta ere, ez dira emaitzekin konformatzen eta zer hobetu badutela hausnartu dute. "Tradizionalki emaitza onenak izan ditugun hauteslekuetan abstentzio-maila Arrasateko batez bestekotik gora izan da. Konkretuki, San Andresi, Erguini eta Makatzenari buruz ari naiz, non parte hartze-maila %45en bueltan egon den. Makatzenako hiru mahaietan are baxuagoa izan da: %38, %41 eta %43, hurrenez hurren. Aldiz, boto emaile nazionalistek emaitza hobeak dituzten hauteslekuetan parte hartzea askoz handiagoa izan da. Kulturateko mahaiak aztertuz gero, adibidez, %67, %64, %62, %60... batez beste, %65eko parte hartzea. Kongresuko edo udal mailako hauteskundeetan boto emaileak mobilizatzea lor-

tzen dugu, baina Legebiltzarerako kasuan, gehiago kostatzen zaigu. Ez dugu asmatzen gure boto emailei hauteskunde hauen garrantzia transmititzen, eta hori gure errua da", azaldu du Blanca Roncalek.

#### Elkarrekin Podemos, behera

Herrian ordezkartza duten alderdien artean Elkarrekin Podemosek izan du beharakada nabarmena. 2016an 1.600 botoen langa gainditu zuten, baina botoen erdia baino gehiago galdu dituzte. Emaitzak ikusita, onartu egin dute ez direla esperotakoak izan: "Ez dira guk esperotako emaitzak eta ez daukagu arazorik onartzeko. Autokritikarako eta hausnarketarako garaia da. Hala ere, eskualdean "alternatiba eraldatzailea" erakitzeke aukerak badaudela eta horrek itxaropena ematen diela azpimarratu dute: "Eskualdean ezkerreko alderdiak gehiengo izateak ere itxaropena ere ematen digu aurrera begira ezkerreko alternatiba eraldatzailea erakitzeke aukera dagoelako".

#### PP-C's: %60ko galera

PP-Ciudadanos koalizioak beharakada izan du, 2016an bakoitzak bere aldetik batutakoa baino %60 gutxiago; Voxen botoak gehituta %48 gutxiago. Aipatzen da Equo-Berdeak alderdiak jasotako 99 botoak.

## Kiroldegiko igerilekua egunero erabili ahalko dute abonatuak

Hasieran bi egunean behin joateko araua jarri arren, hori malgutzea erabaki dute. Hala, eguaztenetik aurrera, abonamendua dutenak egunero joan ahalko dira igerilekura. Txanda bakarrean joan ahalko dira –goizez edo arratsaldez– eta aurretiazko hitzordua hartzearena derrigorrezko bezala mantenduko dute. Frontoian eta tenis kantxetan

lau pertsona sartzeko aukera ezarri dute –lehen, bi laguneko muga zegoen– eta muskulazio aretoa ere erabilgarri izango da.

Kardio makinaren gimnasioa hitzordu gabe irekita dago. Beraz, abonatuak nahi duten uanean joan daitezke instalazioak erabiltzera. Salbuespen bakarra 14:00etatik 15:00era izango da. Eskuoihala erabiltzea derrigorrezko izaten jarraituko du, baita behin jarduera bukatuta norberak erabilitako makina garbitzea ere.

## 'Arrasateri bira' antolatu du Sarek domekarako

Biteri plazatik abiatuta, Kurtzetxiki, Musakolako Balkoia, Anporreta eta Monterron zeharkatuko dituzte, *Pausoz pauso preso eta iheslariak etxera!* lelopean. "Elkarbizitzaren eta konponbidearen alde, preso eta iheslariak etxean nahi ditugula esango dugu ozen", azaldu dute Arrasateko Sareko kideek. Hitzordua: 09:00etan, Biteri plazan.

## EAJk hauteskunde legea urratu du

Bergarako barrutiko Hauteskunde Batzordeak bigarren ezbatzi du EAJk Hauteskunde Legea urratu duela. LOREG legearen 50. artikulua dio hauteskundeak deitzen direnetik egiten direnara debekatuta dagoela obren edo zerbitzu publikoen inaugurazio ekitaldiak egitea.

Lehena apirilko deialdian izan zen, eta bigarrena, uztailekoan.

Uztaileko deialdiari lotuta Batzordeko presidenteak aditzera emandako akordioak dio EAJk LOREG 50. artikuluari dagokionez lege-haustea egin duela "udal igerilekuen irekierari buruzko, Udazabali buruzko, haurrentzako ur parkeari buruzko eta erosketa bonuei buruzko berriak" publikatuta.

Bi kasuetan EH Bilduk jo du Hauteskunde Batzordera, EAJk "publizitate instituzionala" egin duela irizita, eta bietan eman diote arrazoia. "Martxoan, Hauteskunde Batzordeak jeltzaletan eskatu zien eten zezatela jokaera hori. Kontua are larriagoa da, oraingoan bigarren ezbatzean egin dutelako". Zapatuko hausnarketa egunean eman zuen horren berri EH Bilduk. EAJtik adierazi zuten "errespetu osoa" diotela Batzordearen ebazpenari eta ez zutela baloraziorik egingo. "Gaur hausnarketa eguna da eta EAJk ez ditu adierazpenak egiten", adierazi zuten.



# Auzotarrak, batuta, konponbideak eskatzeko

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako bizilagunek auzo-elkartea sortu dute, auzoak dituen arazoak kolektiboki aldarrikatzeko. Irisgarritasunaren eta euste-hormen prekaritatea konpontzeko inbertsioak eskatu dituzte presazko izaerarekin

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Astelehen iluntzean egin zuten elkartearen aurkezpen bilera jendetsua, eta argi utzi zuten "auzotik eta auzoarentzat" sortutako elkartea dela, "inongo erabilera politikorik onartuko ez duena".

Bi kale horien bueltan 31 atarte daude, eta 2017ko erroldaren arabera 1.065 lagun bizi dira bertan. Horien ia %25ek 65 urtetik gora dituzte, eta horiek dituzten irisgarritasun arazoak konpontzea da elkartearen lehen-tasunetako bat.

## Irisgarritasuna

Udal Gobernuak martxan du inguru horretako irisgarritasuna hobetzeko igogailuen proiektua. Auzotarrek begi onez ikusten dute inbertsio hori, baina diote "konponketa txiki eta ximple gehiago" behar direla pertsona nagusien irisgarritasuna era integralean hobetzeko. Egoera txarrean dauden eskailera eta barandak eta arrapalarik gabeko sarbideak konpontzea beharrezkotzat jo dute.

Esan beharra dago 2019-2023 irisgarritasun planaren barruan Udalak esku-hartze batzuk aurreikusten dituela bi kale horietarako, baina bizilagunek diote "motz" geratzen direla.

## Euste-hormak

Malda baten gainean eraikitako auzoa izanik, euste-horma ugari daude, eta horien egoera prekariora salatu dute. "Arrakalez beteta daude, ur-filtrazioz josita daude, eta zulo handiak eragiten dituzte; beldurtzeko eta arduratzeko moduko zuloak", azaldu du elkarteko bozeramaile Juan Carlos Davilak. 2019ko aurrekontuetan magalak egonkortzeko 200.000 euroko partida bat zegoela adierazi dute, baina oraindik ez dela exekutatu. Hala, udal teknikariei beste azterketa

bat egitea eskatu diete, presazko izaeraz, ordutik hona egoerak okerrera egin duelako eta bizilagunen kezka handituz doalako argudiatuta. Udalak auzoko espaloiak konpontzeko 660.000 proiektu bat ere egin zuela azaldu dute, 2019 eta 2020 bitartean egin beharrekoa, baina lan hauek oraindik egin gabe jarraitzen dutela adierazi dute.

Udal Gobernuari gai hauei buruz galdetu die GOIENAK, eta adierazi diote aste honetan bertan egingo dutela batzarra auzoko ordezkariekin.



Bizilagun ugari batu ziren astelehenean egindako aurkezpenean. XABI GOROSTIDI



Egurra ustelduta duen auzoko banku bat. X.G.

## Hiri-altzaritza "zaharkitua"


Hiri-altzaritza "oso egoera txarrean" dagoela salatu dute, eta banku zaharkituak edo borratzetik gertu dauden zebra-bideak jarri dituzte adibidetzat. Berriki, bi banku berri jarri dituzte, baina "modu txarrean jarri ostean" aste gutxira jada erabilgaitz daude.



Santa Teresa 1,3 eta 5 atarteen ostean landaredia ugari. X.G.

## Segurtasuna eta saneamenduak

Bi alor horietan hobekuntzak eskatu dituzte. Lurrean goroldio ugari dagoenez neguan "irristakor" egoten dela adierazi dute, eta Santa Teresa 1, 3 eta 5. atarteen atzealdean dagoen landaredia ia etxeak ukitzera heltzen dela ere salatu dute.



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

## Muturreko itotzaileak

Kotxean irratia piztuta lanera bidean noala, herriko kaleetan musukoen erabilera erabat igo dela konturatzan naiz. Ia aldi berean, mikrofonotik esatariak 17tik 10 autonomi erkidegotan dagoeneko derrigorrezkoa dela ziurtatzen du. Arriskua bueltan da. Segur aski, testu honek argia ikusten duenerako funtzioetan dagoen gure Gobernu

orojaleak derrigorrez ahoak estaliko dizkigun neurria onartuta izango du.

Hotz-hotzean gogoeta egin eta nire buruari galdetzen diot: noiz eta nola heldu gara egoera honetara? Zer mundu bilakatu da gurea? Zer egin dugu soilik arnasa hartzeak heriotza ere suposatu dezakeen puntu honetara heltzeko? Erantzuna samurra eta zoritxarrekoa da;

jakin badakit. Airea ez da bakarrik gaixotasunez, ke beltzez eta zikinkeriaz bete; baizik eta harrotasunez, gorrotoz eta axolagabekeriak ere kutsatu dugu.

Orain, bueltan, mendekua dakar. Uda partean beroz itoko gaituen mendekua, ahoetako irribarrea lapurtuko –edo hobeto esanda, estaliko– digun merezitako mendekua, alegia.

## OHARRAK

### Gongetako meatzeak

Udalatxen magalean dagoen meatzea ezagutzeko mendi irteera. Hitzordua domekan, 09:00etan, Herriko Plazan.

### Euskaraldiko arropak

Gaur, 19:30ean, Zalbibarren jarriko dute postutxoa; bihar, zapatua, Seber Altuben, 11:00etan; eta eguaztenean, hilaren 22an, Cordoba y Oron, 19:00etan.



# Udalak ez du San Isidro ermita botatzeko asmorik

Eraikina Donostiako Gotzaindegiaren jabetzakoa da, eta auzotar talde batek kezka azaldu du, ustez Udalak eraikina erosi eta bota egingo zuelakoan. Gobernuak argitu du eraikina eta erretiratuen etxea mantentzea eta teilatua konpontzea nahi duela

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Zapatuan, herritar talde batek eraikinaren inguruan entzundako zurrumurruek berri eman zuen *Musakola.com* atarian. "Jakín dugunagatik, San Isidro ermita Arrasateko Udalarik saldu nahi ei dio Gotzaindegiak. Arrasateko Udalak eraikin honen zer egingo duen ziurgabetasunaren aurrean, eta eraikina botako duen zurrumurruek aurrean, askoren alarma piztu da eta honen ondorioz eraikin hau babesteko mugimendu herritar bat sortu da".

**Udal Gobernuaren erantzuna**

Martitzenean heldu zen Udal Gobernuaren erantzuna, prentsa ohar bidez. "Udala San Isidro ermita mantentzearen aldekoa da; ez du ermita erosteko ez eta botatzeko asmorik ere".

**Teilatua, konpontzeke**

Ohar berean adierazten zuten auzo-alkatetzak aspaldi jakinarazi zuela ermitaren teilatua egoera txarrean zegoela, eta hori ikusita Udalak prest azaldu zen 2017an hura konpontzeko eta ordaintzeko, baldintza batekin: jabeak, Donostiako Gotzaindegiak, erretiratuen egoitza bertan mantentzea. Konponketa lanen proiektua



San Isidro ermita, kiroldegiko aparkalekutik ikusita. XABI GOROSTIDI

eta 177.689,99 euroko aurrekontua pasa zioten Gotzaindegiari, baina, adierazi dutenez, oraindik ez dute erantzunik jaso. "Teilatua konpontzeko jabearen baimena behar dugu, eta ez dugu eurengandik erantzunik jaso. Udalaren asmoa da Donostiako apezpikuari eskatzea ermita Musakolako auzoari eta Arrasateko herriari dohaintzan eman diezaiola".

Eraikina saltzeko eta teilatua konpontzeko asmorik duten argitzeko, GOIENA Donostiako Gotzaindegiarekin harremanetan

jarri da, baina, gaur-gaurkoz, ez du erantzunik jaso.

**Union Cerrajerak eraikia**

Union Cerrajera SAREN eraginpean eraiki zen ermita, duela 75 urte, eta 70eko hamarkada erdialdera arte enpresak sostengatu zuten diruz. Luis Astiazaran Galarza arkitektoak gidatu zuen ermitaren eraikuntza, San Isidoren eskultura Francisco Letamendiak zizelkatu zuen eta argizuloko freskoak Jesus Arraiz margolari bilbotarrak margotu zituen.

## GORA ETA BEHERA



### Janari eta edari arrastoak, lurlean botata

Herrian berriki zabaldutako janari kate baten produktuen soberakinak lurlean botata azaldu dira, asteburuan, Mojategi kanpo aldeko bankuen inguruan. Hori ikusita, kontsumitzaileek izandako "utzikeria" eta "jarrera" salatu nahi izan ditu irakurle batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



GOIENA



SAIOA ALZUA

## Giza bihotza, Txatxilipurdirentzat

32 lagun batu ziren astelehenean, Herriko Plazan, elkarteari eskerrak emateko. "32. urtez Arrasateko haur eta gazteak erdigunean jarri dituzue! Eskertzekoa da urtean zehar herriari egiten diozuen ekarpena. Are gehiago bizi izan dugun egoeran, haurren eta gazteen aisialdi euskaldun eta hezitzaile baten beharra inoiz baino handiagoa izan denean, hor egon zaretelako".

arbolapeta

arrasate

beinke

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**ion** ELEKTRIZITATEA

*Gu ere arrasatearrek!*

Mantentze lan integralak  
Konponketa txikiak eta handiak  
24 orduko zerbitzua

**658 99 59 12**

Deitu!!!



# "Harmailetan ahots bat gehiago izango naiz"

**MIKEL AREJOLALEIBA** SASKIBALOI JOKALARIA

Bizitza erdia baino gehiago Ointxe!-n egon ostean, klubeko jokalaria izateari utzi dio arrasatearrak, baina dio edozertan laguntzeko prest izango dela aurrerantzean ere

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Guztira, 17 urte egin ditu Ointxe!-n, eta lehen taldean, 13. Gaur egun, 30 urte ditu.

**Zerk bultzatuta utzi duzu taldea?**

Arrazoi nagusia da Gasteizera noala bizitzera, eta, Bergaran lan eginda, zaila izango litzateke entrenamenduetara etortzea. Gainera, ez nago LEB mailak eskatzen duen konpromiso hori hartzeko moduan.

**Penaz utziko zenuen taldea...**

Bai, noski. Ointxe! nire familia modukoa da eta pena galantarekin noa. Gainera, modu honetan utzi behar izateak eman dit pena handiena, azken partidua jokatu barik.

**Nolakoak izan dira urte hauek?**

Umetan ikasi beharreko guztia, ikastolan eta etxean bai, baina Ointxe!-n ere ikasi dut: talde lana, sakrifizioa, diziplina, gauzak ondo ordenatuta eramatea, eta abar. Beraz, asko eman dit klubak, bai. Kirol arloari dago-kionez ere, denetik pasatu dut taldean: jaitsierak, igoerak edo ta kopa garaipenak... eta horretatik ere asko ikasten da.

**Gasteizen saskibaloian jarraituko duzu, beste maila batean bada ere.**

Bai, hori da. Talde bat aurkitu dut, Urgatzi, eta han jokatu dut datorren denboraldian. Lehen Nazional mailan izango da, EBA



Mikel Arejolaleiba, Iturripen. IBAI ZABALA

**"OSO POZGARRIA ETA ABERASGARRIA IZAN DA NIRETZAT KLUB HONEN PARTE IZATEA; ESKERRIK ASKO!"**

baino bat beherago. Beraz, konpromiso txikiagoa izango da, partidu guztiak Euskal Herrian eta inguruan izango direlako, eta ez Valladoliden, esaterako. Disfrutatzeko helburua jarriko diot nire buruari.

**Hala ere, Ointxe!-ri lotuta jarraituko duzu aurrerantzean.**

Bai. Oraintxe bertan ere monitore lanetan ari naiz campusean eta aurrerantzean ere ahal dudan guztian lagunduko dut. Harmailetan ere ahots bat gehiago izango naiz, zale bat gehiago.

**Mezuren bat helarazi gura duzu?**

Oso pozgarria eta aberasgarria izan da niretzat klub honen parte izatea eta eskerrak eman gurako nizekieke entrenatzaile, taldekide eta zale guztiei. Klubak aurrerapausoak ematen jarrai dezan gurako nuke.



Campuseko ikasleak, gurpil aulkian, aktibitate bat egiten. IBAI ZABALA

## Kirol egokitua landu dute asteen Mondrako campuseko ikasleek

Datorren asteen, berriz, lehen sorospenak eta elikadura izango dituzte ardatz; 183 hurrek eman dute izena

**E.A. ARRASATE**

Hiru astetan banatu dute Mondrak antolatutako campusa, eta, futbolaz gain, aste bakoitzean gai batean oinarritu dira. Lehen asteen, natura eta ingurugiroa landu zuten. "Udalako Ingurumen Eskolara txangoa egin genuen eta aktibitate batzuk egin genituen", azaldu du Josu Zubiak, campuseko arduradunak.

Zubia Gipuzkoako Kirol Ego- kituko Federazioko teknikaria ere bada, eta, hain zuzen, hori izan da asteen landu duten gaia: kirol egokitua eta inklusiboa. "Sentsibilizazio saio bat egin

dugu asteen, eta gaur, egubakoitza, urritasuna duten hainbat haur gonbidatu ditugu, saio inklusiboak egiteko".

Datorren asteen, azkenik, Gurutze Gorriarekin lehen sorospenak landuko dituzte. "Elikadurarekin lotutako beste aktibitate batzuk ere egingo ditugu".

**Izena emateko aukera, irekita**

Lehen asteen, 75 ume aritu ziren; asteen, 68; eta datorren asterako, 40 umek eman dute izena. Oraindik, gainera, eman daiteke izena, *mondrafutbolcampusa@gmail.com* helbidera idatzita.



REAL SOCIEDAD

## Maitane Lopez fitxatu du Realak

Luis Mari eta Aitor Lopez Rekarte Realeko jokalaria ohi arrasatearren bidea jarraituz, Lopez familiako hirugarren belaunaldia ere iritsi da Donostiako taldera: aipaturiko bien iloba, hain zuzen. Maitane Lopez 2015az geroztik Valentziako Levante taldean aritu da, eta Realak fitxatu du arrasatear jatorriko jokalaria; urtebeterako kontratua sinatu du.

## Campuseko monitore lanetan

Elkarrizketan aipatu moduan, Arejolaleibari zaila egingo zaio Ointxe!-tik aldentzea, eta horren erakusle da oraindik ere monitore lanetan diharduela udako saskibaloia campusean. Txikienekin hiru astez aritu dira campusean, eta datorren asteen bukatuko dute. Beste taldeak aste honetan bukatu du dagoeneko. 85 bat ikaslek hartu dute parte campusean.



Arejolaleiba, Iturripen, campuseko ikasleak atzean dituela. I.Z.



# Arrasate Blues, inoiz baino bluesago aurten

Laukoa beharrean, bi eguneko egitaraua osatu du aurten Ibai-artek, halabeharrez, baina, merkatarien elkarteko presidente Jon Apraizek azaldu duenez, jaialdiaren izenari zor, iazkoak baino blues kutsu nabarmenagoa izango du aurtengoak, gaur zein bihar

## Gaur, bi emanaldi; eta bihar, lau



### The Song

Euskal Herria plazan ariko dira gaur, egubakoitza, 19:00etatik aurrera. Luis E. Pinedo, Juan Manuel Guereñu eta Javier Rodríguez dira taldekideak.



### Serious Business

Plazan emango dute kontzertua, gaur, 22:00etan. Aitor Badiolak, Maria Armendarizek, Antxon Sarasuak eta Ander Zulaikak osatzen dute taldea.



### Patakbra Blues Duo

Bihar, zapatua, 13:00etan hasita, Izozkitegi inguruan ariko dira Oskar Rementeria eta Josean Garcia, gitarrekin eta harmonikarekin.



### Broken Brothers Brass Band

Bihar, zapatua, 19:30ean hasita, herriko kaleak girotzeko helburua izango du 2006an Iruñean sortutako taldeak, euren doinu dantzagarriekin.



### Iker Piris & Niko Wayne

Plazan eskainiko dute kontzertua bihar, 20:00etan. Iker Piris tolosarrak gitarra jotzen du eta Niko Wayne frantziarrak, berriz, harmonika.



### Travelinn Brothers

Jaialdia talde bizkaitarrak itxiko du, bihar, 22:00etan. 2003an sortutako taldeak blues, funk eta swing doinuak nahasten ditu, esperientzia handiarekin.

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Baldintzak aintzat hartuta kartel "txukuna" osatu dutela azpimarratu du Apraizek. "Pozik gaude. Kontuan hartu behar da aurten berandu ibili garela eta egoera ere ez dela errazena izan horrelako jaialdi bat antolatze-ko. Lau eguneko programa geneukan buruan hasieran, baina, pandemia dela eta, bi egunera jaitsi dugu. Talde ezberdinekin hitz egiten hasi ginen eta batzuek esan ziguten entsegu faltan zeudela eta ez zeudela prest zuzenean jotzeko. Beste batzuk, ordea, animatu egin dira. Gainera, esango nuke aurten benetako blues jaialdia izango dela, talde guztiak direlako musika estilo horretakoak".

Horrez gain, adierazi du "oso talde onak" direla seiak eta segurtasun neurri guztiak hartuta baina disfrutatzeko momentu ona dela hau. "Beraz, iaz hasi genuen jaialdi hau aurten ere arrakastatsua izatea espero dugu, eta herritar guztiak animatzen ditugu musikaz goatzera; betiere, arduraz jokatzuz".

### Goi mailako sei talde

The Song taldeak emango dio hasiera jaialdiari, gaur bertan. Hala, The Beatles, The Rolling Stones, Carole King, Pink Floyd, The Kinks, Duke Ellington, Muddy Waters, Neil Young eta Credence Clearwater Revival taldeen konposizioez gozatu ahal izango dute zaleek; betiere, hirukotearen nortasun propio eta pertsonalarekin.

Serious Business taldeari dagokionez, duela bost urte sortu zuten eta bluesean eta rokkean oinarritzen dute euren musika. Duela gutxi, 2019ko urrian, kaleratu zuten bigarren diskoa: *The Last Port Sessions*.

Euskarazko, gaztelaniazko zein ingelesezko kantu propioak ditu Patakbra Blues bikoteak, eta, euren esanetan, abestiak "fotokopiatzetik" urrun daude, estilo propio bati balioa emanda.

Broken Brothers Brass Band, berriz, kontzertu ibiltarrietan zaildutako taldea dela esan daiteke. Estatikoan baino gehiago, kalez kale ibiltzen dira gehienbat iruindarrak, eta lau disko dituzte kaleratuta. New Orleanseko doinuak dituzte oinarri.

Iker Piris tolosarra proiektu berrian murgilduta dabil orain, musikari frantsesekin: Iker Piris & His Dual Electras. Horiekin batera, gainera, harmonika-jotzaile entzutetsuenetako bat izango da, Niko Wayne.

Jaialdia Travellin' Brothers seikoteak itxiko du bihar. Baxuak, gitarak, bateriak, pianoak, saxoak eta ahotsak blues, funk eta swing nahasketa gustagarria plazaratzen dute.

### Kamisetak salgai kontzertuetan

Berrikuntza modura, kamisetak salduko dituzte aurten. "Ternuarekin akordio txiki bat egin dugu eta oso prezio onean utzi dizkigute. Marka sortzea da helburua, baina aurten 300 bakarrak jarriko ditugu salgai, askotariko kolore eta neurrietakoak. Kontzertuak egingo dituzten lekutan salduko ditugu, baina, gehienbat, plazan, musika taldeen diskoekin batera", dio Apraizek.

### Jaialdiko garagardoa

Halaber, egubakoitzean zein zapatuan, tabernetan Arrasate Blues 18/70 zerbeza egongo da eskuragarri, Kajoi, Itzala, 1990 Gastroteka, Izozkitegia eta Monte tabernetan, besteak beste. Mota bakarra egongo da, horia, eta 2,20 eurotan salduko dute.

## Konfinamendu osteko lehen emanaldia, arrakastaz beterikoa

Ekiñe Casadok eta Tabu bikoteak –Miren Iturbe eta Naroa Agirre– kontzertua eskaini zuten gaztetxean

### E.A. ARRASATE

Arrasateko gaztetxeak konfinamendu osteko lehen kontzertu akustikoa antolatu zuen joan den domekarako, eta segurtasun distantziak errespetatuta jarri zituzten 80 eserlekuak bete egin

zituzten zaleek. Musukoa ere derrigorrezkoa izan zen, eta, gaztetxeko kide Inesa Ugalderekin esanetan, ikus-entzuleek oso ondo erantzun zuten. "Egoera arraroa izan zen guztiontzat, baina ondo errespetatu zituzten

neurri guztiak. Musukoak jantzita eduki zituzten une oro eta zigarro-puntak ere ez zituzten lurrera bota", adierazi du.

Ekiñe Casado eta Tabu bikotea aritu ziren oholtza gainean. Azken horientzat bigarren kontzertua izan zen domekakoa.

Ugaldek azaldu duenez, naberitu zen herritarrak zuzeneko kontzertuen gose zirela, eta udara begira beste emanaldiren bat antolatzeko asmotan direla azaldu du. "Hala ere, oraindik ez daukagu ezer lotuta".



80 ikusle inguru batu ziren gaztetxean, neurriak errespetatuta. ARRASATEKO GAZTETXEA

# EH Bilduk boto kopuruan gora eginda irabazi du

Joan den domekan egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Aramaion %32ko abstentzioa izan zen: 782 herritarrek eman zuten botoa. EH Bildu koalizioa izan zen indar bozkatuena, eta EAJ-PNVrekiko aldea handitu egin zuen, gainera

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Ezohiko egoeran egin ziren domekan Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Aramaioiko kasuan, 1.150 herritar zeuden botoa ematera deituta. Segurtasun neurriak hartu zituzten eskolako jangelan, pilaketak saiheste-ko; boto-emaileek ate batetik sartu eta beste batetik irten behar izan zuten. EAEko datuetan ikus daitekeen moduan, Aramaion ere abstentzioa handia izan zen domekan: 782 herritar joan ziren botoa ematera; abstentzioa %32koa izan zen. 2016ko datuekin alderatuta abstentzioak 2,45 puntu egin zuen gora domekan.

## EH Bilduk, gora

Aramaion EH Bilduk jaso zituen boto gehien: 441. Botoen %56,5. Nabarmendu behar da 2016arekin alderatuta abstentzioa handiago izan zela kontuan hartuta, EAEn moduan, Aramaion ere EH Bilduk irabazi egin zituela botoak. 2016an baino zazpi boto gehiago izan zituen EH Bilduk. Bigarren geratu zen EAJ, 264rekin; azken horrek galdu egin zituen botoak eta egun Udalean dauden bi alderdien arteko aldea areagotu egin da.

Hirugarren postuan Elkarrekin Podemos-IU geratu zen. Koalizio moreak boto galera handia izan

zuen 2016ko hauteskundeekin alderatuta: 41 boto gutxiago jaso zituen domekan.

Nabarmenezko beste datu bat da botoak irabazi dituen beste alderdia Vox dela. 2016ko hauteskundeetan 4 boto lortu zituen eta domekan, aldiz, 5.

PSE-EE PSOEek bi boto galdu zituen 2016ko datuekin alderatuta eta PP-Ciudadanos koalizioak boto bakarra eskuratu zuen. 2016ko hauteskundeetan, PPK bost boto lortu zituen.

## "Herritarren babesa"

Aramaioiko alkate Lierni Altunak "pozik" hartu ditu domekako datuak: "Kontuan hartu behar

da autonomia mailako hauteskundeak izan direla; eta, hala ere, Aramaion bertan gora egin dugu boto kopuruan". Udal hauteskundeetan eta Legebiltzarrerako hauteskundeetan ezberdin botatzen dela uste duen arren, Altunaren ustez emaitzek erakusten dute egiten duten lana herriak baloratzen duela: "Ikusten da jendea gustura dagoela eta baloratzen dutela egiten dugun lana". Alde horretatik, Aramaioiko Udalean egiten duten eguneroko jarduna herritarrek babesten dutela uste du, eta horrek "poztu" egiten du.

"Gainera, garai gogorak bizi ditugun honetan herriaren ba-

besa izatea oso eskertzekoa da", gaineratu du Altunak emaitzen balorazioa egiterakoan.

## Abstentzioak "min" egin die

Aramaioiko Udalean EAJko zinegotzi den Pedro Elosegi normaltasunaren barruan kokatu ditu domekan Aramaion izandako emaitzak. Balorazio positiboa egin du: "Hauteskundeak EAJk irabazi dituen arren, Aramaion beharakada bat izan dugu eta EH Bilduk, aldiz, irabazi egin ditu boto batzuk".

Abstentzioak min egin diela uste du: "Abstentzioa handia izan da eta talde guztietan eragin du. Boto kopuruan behera egin dugu alderdi gehienek. EH Bilduk, hala ere, igo egin du. Boto finkoa du EH Bilduk, leiala". Elosegik hiru arrazoi ikuste ditu abstentzioaren atzean:

"Batetik, kontuan hartu behar da uda dela, eta horrek eragina du jendea botoa ematera joaterakoan; bestetik, bizi dugun osasun egoera kontuan hartuta beldurra dagoela esan behar da; eta, azkenik, inkestek irabazle bakarria ematen zuten. Jendeak pentsa dezake: zergatik joango naiz botatzera, zergatik nire osasuna arriskuan jarri, baldin eta badakit EAJk irabaziko dituela hauteskundeak?".

Aramaioiko emaitzez gain, Elosegi pozik dago EAJ-PNVk Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan izan dituen emaitzekin: "Pozik izateko moduan gaude. Lurralde bakoitzeko eserleku bat irabazi dugu, eta hori sekulakoa da". Horrez gain, zera dio Elosegik: "Uste dugu guri eragin digula gehien abstentzioak".


## Boto-konparaketa Aramaion

	2016 Abstentzioa: %29,55	2020 Abstentzioa: %32,00	Aldea Abstentzioa: +2,45 puntu
<b>EH BILDU</b>	434 %51,85	<b>441</b> <b>%56,54</b>	7 +4,69 puntu
<b>EAJ</b>	289 %34,53	<b>264</b> <b>%33,85</b>	-5 -0,68 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	77 %9,20	<b>36</b> <b>%4,62</b>	-41 -4,58 puntu
<b>PSE-EE-PSOE</b>	16 %1,91	<b>14</b> <b>%1,79</b>	-2 -0,12 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>9</b> <b>%1,15</b>	9 +1,15 puntu
<b>VOX</b>	4 %0,48	<b>5</b> <b>%0,64</b>	1 +0,16 puntu
<b>O.E.</b>	-	<b>3</b> <b>%0,38</b>	3 +0,38 puntu
<b>AULKI ZURIAK</b>	1 %0,12	<b>2</b> <b>%0,26</b>	1 +0,14 puntu
<b>PP+C'S</b>	5 %0,60	<b>1</b> <b>%0,13</b>	6 0,47 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Emaitzak Aramaion



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Foru funtsetik uste baino diru gutxiago jasoko dute herriek

Aurreikusitakoa baino %24,8 gutxiago jasoko du Aramaio; "zorionez", egoera "ona" dela dio alkateak

## A.E.G. ARAMAIO

Arabako Aldundiak diru gutxiago izango du Arabako herrien artean banatzeko. Hau da, herriek Aldundiko diru-funtsetik jasotzen duten diru partida murriztu egin da: 57 bat milioi gutxiago

izango ditu Aldundiak 51 herrien artean banatzeko.

Aramaioiko kasuan, %24,8ko jaitsiera izango da. Urte hasieran aurreikusitako 865.454,67 euroak jaso beharrean, 650.493,63 euro jasoko ditu Aramaio.

"Urte hasieran, Fofelek aurreikuspena egiten du. Gertatzen dena da koronabirusa dela-eta asko jaitsi dela ekonomia guztia. Orain, aurreikuspen berria egin dute eta uste zena baino %25 gutxiago izango dugu", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Urteko lehenengo lau hilabete-koan Aldundiak izan duen diru-bilketa %12,3 txikiagoa izan da; eta, aurreikuspenen arabera, urte amaierako jaitsiera %22koa izango da. Aramaio izango duen jaitsiera hori nola bideratu era-

bakitzeko, Ogasun batzordearen bilera egin zuten joan den astean: "Zorionez, ez daukagu zorrik eta egoera ekonomikoa ona da. Guk lehenetasunak ezartzen ditugu urtero, arlo guztietan, eta beti dago zertan inbertitu". Ze gastu kontrola dezaketen beratu zuten: "Erabaki dugu ez dugula aldaketarik egingo aurrekontuan; hala ere, murrizketa batzuk egingo ditugu partida batzuetan". Iazko likidazioa, esaterako, positiboa izan zela nabarmendu behar da.

## Ordutegi berezia izango du osasun zentroak irailera arte

Uztailaren 13tik irailaren 4ra arte udako ordutegia izango du Aramaioiko osasun zentroak. 08:00etatik 12:00etara bitartean, osasun zentroan bertan artatuko dute, aurrez txanda hartuta; 12:00etatik aurrera, erreferentziako osasun zentrorra jo behar-ko dute pazienteek. Larrialdi kasuetan, Arrasateko ospitaleko larrialdietara.





Aramaioko pilotariak, uztailaren 5eko lehian. PILOTA ELKARTEA

# Aramaiok Guardia hartuko du herriartekoan

Txapelketako final-laurdenetako kanporaketa izango da. Bihar, zapatua, jokatu dituzte partiduak, Aramaioko frontoian, 18:30ean hasita. Nahiz eta aurkari gogorra egokitu, kanporaketa irabazi eta finalerdietara sartzeko gogotsu daude pilotariak

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Aramaioko pilotariak Arabako Herriarteko Txapelketako final-laurdenak jokatu dituzte bihar, zapatua, 18:30ean hasita, Guardiaren aurka.

Uztail hasieran hasi zuten txapelketa: zazpi talde lehiatu dira, bi taldetan banatuta. Hala, Aramaiok B multzoa osatu du Amurriorekin, Laudioarekin eta Agurainekin batera. Ligaxkako lehenengo hiru jardunaldiak jokatu ostean, hirugarren postuan sailkatu da Aramaio. Orain, txapelketako final-laurdena jokatu beharko du A taldeko bigarren sailkatuaren aurka: Guardia.

## Aurkari gogorra

Biharko partiduan ez dute inolako aurkaria izango aramaiok: Guardia 2019ko txapelduna da. "Aurkari gogorra da, baina nik uste dut kanporaketa berdintsua izango dela. Baditugu irabazteko aukerak eta finalerdietara pasatzeko au-

kerak", azaldu du pilota elkarte-ko zuzendaritzako Heriberto Arriolabengoak.

Gogora ekarri du, gainera, Aramaiori talde gogorrena egokitu zaiola: Amurriorekin eta Laudioarekin.

## Hiru maila, hiru lehia

Kadete mailako, gazte mailako eta senior mailako partiduak

jokatuko dituzte. Kanporaketa irabazten duenak finalerdiak jokatu ditu uztailaren 25ean, Santiagorekin. Finala, aldiz, uztailaren 31n izango da, San Inazio Egunean, Aretan.

Arabako Herriartekoa udaberrian jokatu ohi da, baina aurtengo egoera bereziak uztailera atzeratu du txapelketa. Nabarmendu behar da 50. edizioa dela.

## Pilotan izena emateko aukera

Aramaioko pilota elkarteak zabaldu du 2020-2021 ikasturterako izena emateko epea. "Aukera eman nahi diegu umei pilota ezagutzeko; ondo pasatzeaz gain, pilota zer den ikasteko aukera izango dute", dio Heriberto Arriolabengoak. Ikasturte amaieran eskoletara joan ohi dira deialdia egitera, baina aurten ezin izan dute horrelakorik egin. Aurrebenjamin, alebin eta infantil mailetakoen entrenamenduak egingo dituzte; nahiz eta oraindik, egoerak hala behartuta, dena airean duten: "Eskolartekoak geldi daude, Diputazioak hala eskatuta". Izena eman gura duenak [aramaiopelota@gmail.com](mailto:aramaiopelota@gmail.com) idatzi beharko du edo ondorengo telefono zenbakietara deitu: 680 58 70 02 –Alfonso–; 696 38 06 56 –Heriberto–; eta 617 85 66 88 –Mertxe–.



A.E.

## Hasi dira umeak udalekuetan

Hartu beharreko segurtasun neurri guztiak hartuta, hasi dira haurrak eta gaztetxoak udaleku irekietan. 12 begirale eta 79 ume dabilta; bi aste iraungo dute udalekuek, uztailaren 24ra arte. Bestalde, azkeneko hiru egunetan eta hurrengo asteko astelehenean eta martitzenean gazte udalekuak egingo dituzte. 12 gaztetxo animatu dira ekintza horiek egitera.

## Higiene neurriak areagotu eta garbiketa egin dute frontoian

Hartu beharreko neurrien artean higieinak duen garrantzia kontuan hartuta, aurten, garbiketa berezia egin dute Aramaioko frontoian. Harmailak, barruko kristalak, lurra... garbitu eta desinfektatu dituzte.

Udalak 1.330,45 euro gehi BEZa bideratuko ditu garbiketa lan horiek egiteko. Udalak erabaki hau hartu du bi arrazoi nagus-

sigatik: "Batetik, bizi dugun egoerari aurre egiteko higieine neurri bereziak areagotzea". Bestalde, nabarmendu behar da, orain dela bi aste bukaera, herriko jaiak izango zirenean, norbait pilotalekuan sartu zela eta su-itxalgailuak hustu zituela. Su-itxalgailuek hauts zuri bat botatzen dute eta horrek eskatzen du garbiketa berezia egitea. Hori guztia kontuan hartuta, martitzenean, uztailaren 14an, egin zuten garbiketa sakona pilotalekuan.

## Abarrategi eta Igoa, 'Oholtzapetik' egitasmoko finalean

Gaur, barikua, Araia kaleko frontoian egingo dute *Oholtzapetik* egitasmoko finala, 20:00etan. Han izango dira bi aramaiok: Peru Abarrategi eta Xabi Igoa. Laukotea osatuko dute Felipe Zelaietak eta Oihane Perek. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Aintzane Irazusta ibiliko da.

Abarrategi bigarren saioan, Artziniegan jokatuakoa, lortu

zuen finalerako txartela. Igoak, aldiz, joan den barikuan Maeztun jokatuakoa lortu zuen finalean egoteko txartela. Gaur, oholtza ginetik egingo dute kantuan lau bertsoari eta ez da irabazlerik izendatuko.

Antolatzaileek eskatu dute saioaren eremura denboraz joateko. Gainera, maskara jantzita sartu eta irten behar da eremutik, metro eta erdiko distantzia mantentzerik ez bada. Saioak irauten duen bitartean maskara ken daitekeela gaineratu dute.





Basotxo erretiratuen elkartearen egoitza, osasun etxearen kokalekua izango den eraikina. MIRARI ALTUBE

## Osasun etxe berriaren proiektua, aurrera bidean

Basotxoren eraikinean izango du lekua osasun etxe berriak eta Eusko Jaurlaritzak proiektua idazteko lehiaketa deia egin du oraintsu. 1.700 metro koadroko eraikina guztiz eraberritzea da asmoa, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek ere izango dute lekua

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Osasun etxearen leku beharra ez da gaur egungo kontua, eta Eusko Jaurlaritzak horri irten-bidea eman gura dio. Basotxo erretiratuen etxea –antzinako zaharren egoitza– izango da kokaleku berria, eta horren proiektua idazteko lehiaketa deitu zuen uztailaren 1ean. Idazte lanen

aurrekontua 137.038 euro da –BEZa barne– eta uztailaren 22an bukatuko da aurkezteko epea.

### 1.250 metro koadro

Eraikinak 1.700 metro koadro ditu lau solairutan banatuta –sotoa, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea– eta horietatik 1.250 metro koadro era-

biliko dira. Guztiz eraberritu gura da eraikin hori, eta bertan kokatu osasun etxean ematen diren zerbitzu guztiak. Hala, zehaztu beharko dituzte, besteak beste, lehen mailako arretari dagozkion gunea –medikuntza orokorreko bost kontsulta, beste horrenbeste erizain gela eta pediatriaren kontsulta–, odola


## 'Ibiltarien sarea' osatzera deitu dituzte aretxabaletarrak

Kirola eginez argazkiak atera eta sare sozialetara igotzea eskatu dute Izan Bidea ekimeneko kideek

**M.A.** ARETXABALETA

Maiatz bukaeran aurkeztu zuen Izan Bidea ekimena Sarek; horren helburua da "presoen eta iheslarien auzia behin betiko konpontzeko urratsak egitea, jendartea aktibatzea eta Euskal Herriaren aniztasuna batzea".

Dinamika horren ardatza erronka bat da: 3.127.326 kilometro egitea, hau da, Euskal Herriak dituen biztanle adina kilometro. Eta horretarako, ibiltariak gura dituzte: "Gure herriko biztanle bakoitza ibiltari izatea nahi dugu. Izan norbanako moduan, familian,



Ekimenera deitzeko agerraldia. M.A.

lagunekin edo era kolektiboan", adierazi zuten eguaztenean egingdako agerraldian, eta gaineratu: "Gure herrian ere Gari Aretxabaletara ekarriko duen *Ibiltarien sarea* osatzera dei egiten dugu".

Egingdako kilometroak pilatzeko mugikorrek aplikazio bat jarri dute martxan –oraingoz, Androiderako bakarrik–; eskuratzeko bidea hemen: [www.labur.eus/appizanbidea](http://www.labur.eus/appizanbidea). Argazkiak ateratzera ere gonbidatu dituzte herritarrek: "Patinetan, takarran, oinez, piraguan... Aldarriak soinean hartu, atera argazkia, grabatu bideoa eta igo sare sozialetara edo bidali guri". Hona hemen helbidea: [atxabat-takosare@gmail.com](mailto:atxabat-takosare@gmail.com). Eta gaineratu dute: "Etxeratzeko bidea egiteko garaia da; izan gaitezen bide honen parte eta ekar dezagun Gari Aretxabaletara!".



Biribilgunea egingo duten bidegurutzea. M.A.

## Biribilgunearen lanak, lehiaketara

Basabeko bidegurutzean –GI-627-31 lotunea– biribilgunea egiteko lanen proiektuaren lehiaketa deitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kontratuaren aurrekontua 198.534 euro da –BEZa barne– eta horiek aurkezteko azken eguna, uztailaren 30a.

ateratzeko, sendaketak egiteko eta beste proba batzuetarako gunea, baita larrialdietakoa ere; eta ginekologia gunea –hiru kontsultarekin eta erditze-unea gertatzeko gelarekin–.

Gainera, COVID-19ak agerian utzi du gainerako gaixoekin harremanik izan gabe arreta eman beharra osasun etxeetan, eta hori ahalbidetzeko kanpoko sarrera independentea eta aparte egongo den artatzeko gunea izan beharko ditu.

Gizarte Zerbitzuei ere egingo diete lekua han, teilatupean.

### Erretiratuak, komentura

Osasun etxe berriak ekarriko du erretiratuen elkarte handik atera beharra. Komentura pasatuko dira horiek. "Jaurlaritzak lehenbailehen hasi gurako ditu lanak; hortaz, geu ere mugitu beharrean izango gara", adierazi du Unai Elkoro alkateak, eta proiektuaren kontratua egunotan sinatu dutela onartu: "Nola finantzatu aztertu beharko dugu ondoren, eta zelan egin lanak, zatika, adibidez; hain zuzen ere, proiektuan bertan aurreikusita dago hala egitea".



BASOTXO

## Aldaketak Basotxon

Basotxo erretiratuen elkarte martxoan zen egitekoa batzar orokorra, baina osasun krisiak bete-betean harrapatu zuen eta oraindik ezin izan dute egin. Lanean jarraitu ahal izateko, zuzendaritza berri dute, eta martitzenean elkartu ziren horretarako, udal ordezkariekin batera. Aitor Alberdi izango da presidentea: "Lanerako gogotsu sartu gara, Basotxoko kideak pozik uzteko".



# UDAre batzar orokorrean hainbat aspektu aztergai

2019-2020 denboraldiaren xehetasunak eman zituzten batzar orokorrean. Horrekin batera, aurrera begirakoak ere izan zituzten hizpide, eta sekzio guztietako entrenamenduak abuztuaren 26an hasiko dituztela azpimarratu zuten, besteak beste

**Imanol Beloki** ARETXABAETA

UDAk aurtengo batzar orokorra egin zuen joan den egubakoitzean, Arkupe aretoan, 2019-2020 denboraldiak utzitako datuak jakinarazteko, baina datorren denboraldiaren aurreikuspenen berri emateko ere aprobetxatu zuten hitzordua. UDAko presidente Agurtzane Elkororekin batera, batzarra gidatzen aritu ziren Adrian Merino, Julen Eceiza eta Nerea Olmedo.

## Helburuak, beteta

Lehenik, 2019-2020 denboraldiaren xehetasunak eman zituzten, eta, Elkorok aipatu bezala, amaitu berri den denboraldiari dagokionez, hiru puntu positibo zehaztu zituen: "Lehenengoa da denboraldia beharrezkoa genuen futbol zelai berri batekin hasi genuela; bigarrena, UDAk kudeatzaile berri bat duela -Ainara Muga- elkartean diharduten kirolariaren kudeaketa eramateko; eta, azkenik, kirol arloan UDAk izugarriko denboraldia egin duela".

Guztira, 612 kirolari aritu dira UDAk dituen sail ezberdinetan: 156 futbol eskolan, 177 oinarriko futboleant, 66 senior futboleant, 14 areto futboleant, 24 beteranoeant, 56 Leintz Arizmendin, 28 karatean, 26 gimnasia erritmikoan eta 65 pilotan.



UDAre batzar orokorra, Arkupe. IMANOL SORIANO

## Datorren denboraldia

2020-2021 denboraldia ere izan zen hizpide batzar orokorrean. Izan ere, Elkororen esanetan, UDAk bi agertoki aukera ditu datorren denboraldira begira: "Lehen agertokia litzateke partiduak urrian hastea, nahiz eta arlo batzuetan egoera oso zaila ikusten dugun. Karatean, esate baterako, txapelketak leku itxietan izaten dira, baina kirolariaren arteko kontaktua ezinbestekoa da. Bigarren agertokia, berriz, 2021eko urtarrilean hastea litzateke, eta, kasu honetan egongo

bagina, atzerapausoa litzateke, gure helburua kirola egiten jarraitzea delako". Horrekin batera, Elkorok aipatu zuen arlo batzuetan federazioek hartutako erabakien zain egon beharko dutela; besteak beste, pilotan eta futboleant.

## Abuztu amaieran, lanera buelta

Amaitzeko, abuztuaren 26tik aurrera sekzio guztietako entrenamendu guztiak hasiko dituztela adierazi zuen. Azpimarratu zuen segurtasun neurri guztiak bermatuta izango dituztela.



Iaz, Andra Mari egunean, Milagroko bandaren saioa. GOIENA

## Aretxabaletako Udalak bertan behera utzi ditu Andra Mari jaiak

Jaiei keinu bat egingo zaie ekitaldi sinboliko batekin: Milagroko musika bandak kontzertua eskainiko du

**I.B.** ARETXABAETA

Udalak bertan behera utzi ditu andramaixak. Erabaki hau jaiak programa murriztuarekin ospatzeko aukera baloratu ondoren hartu da, eguneko ekitaldiekin soilik eta COVID-19aren ondoriozko egoerara egokituta; betiere, osasun eta urruntze neurriak betez.

Ez da festarik izango, baina Andra Mari egunean ospakizunei keinu bat egingo zaie ekitaldi sinboliko batekin. Ohienez, abuztuaren 15ean, Milagroko musika taldeak kontzertua eskainiko du herriko plazan. Edukiera mugatua izango da eta ikusleak elkarrengandik urrun dauden aulkietan jarriko dira.


Unai Elkoro alkateak adierazi duenez: "Zuhurtziaz jokatzera eta erantzukizun publikoa lehenestea dagokigu, nolabait pilaketak eragin ditzaketen egoerak saihesteko. Gure helburua he-

rritarren segurtasuna eta osasuna zaintzea da".

Azken egunotan Udala herriko hainbat eragilerekin bildu da, jaiak bertan behera utzi dituztela jakinarazteko. "Faktore asko baloratu behar izan ditugu. Bere garaian esan genuen egoerak uzten bazuen errealitate berrira egokitutako jaiak antolatuko zirela, baina osasuna da lehentasuna", gaineratu du Elkorok.

## Portasolekoak, bertan behera

Uztailaren 16tik 19ra egitekoak ziren Portasolgo jaiak ere bertan behera geratu dira. Izan ere, Udalak eta jai batzordeak lanean jardun dute normaltasun berrira egokitutako jai egitaraua gertatzeko, baina, hain zuzen ere, azken astean "koronabirusa izaten ari den joera ikusita", Udalak jaiak bertan behera utzi erabaki du.





**Durana**  
Hartz Klinika

<b>Odontologia estetikoa</b> <b>Endodontzia</b> <b>Inplantologia</b>	<b>Ortodontzia</b> <b>PADI zerbitzua</b> <b>Hortz protesiak</b>
<b>Asteheneretik ostegunera: 08:30-20:00</b> <b>Ostiralean: 09:00-16:00</b>	
<b>Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55</b>	



# EH Bildu nagusi: EAJK baino 121 boto gehiago

Boto kopuruan gora egin duen alderdi bakarra izan da EH Bildu eta orain dela lau urteko emaitzei buelta eman die. Beherakadarik handiena Elkarrekin Podemos-IUK eta PP-Ciudadanosek izan dute; abstentzioa, oster, igo egin da nabarmen, 6,44 puntu

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ezohiko eran egin behar izana ekarri du ezohiko egoerak, eta, ondorioz, Ibarra kiroldegian kokatu behar izan zuten hauteslekua, segurtasun neurriak mantentze aldera. Giro lasaia izan zen egun guztian, eta ez zen pilaketarik izan; hain zuzen ere, orain dela lau urte baino herritar gutxiago joan zen botoa ematera eta abstentzioak gora egin du 6,44 puntu.

**Botoak irabazi dituena, EH Bildu**

EH Bilduren eta EAJren arteko aldea oso txikia dela Aretxabaletan argi utzi zuten emaitzek, ehun botoren bueltakoa, hain zuzen ere. EH Bilduk eskuratu zituen boto gehien domekan (%43,34) eta EAJ izan zen bigarren indarra, 121 boto gutxiagorekin (%39,56). Boto kopuruan gora egin zuen bakarra izan zen EH Bildu, eta batzuek nabarmen egin zuten behera: Elkarrekin Podemos-IUK 6,32 puntu eta PP-Ciudadanosek 2,55 puntu. Alderdi Sozialistak 25 boto galdu zituen eta hirugarren indarra izatera pasatu zen, botoen %7,41 lortuta. Vox izan da nobedadea aurten, eta 16 boto eskuratu zituen.


**Alderdien balorazioak**

EH Bilduren bozeramaile Ion Albizu pozik agertu da emaitzekin: "Parte-hartzea txikiagoa izan da, eta hori inoiz ez da poztekoa, baina, gainerakoan, oso gustura, nahiz eta guk esana genuen ez zela momentua hauteskundeak egiteko". Eta gaineratu du: "Uste dut EH Bilduren posizioa indartzen dabilela, alternatiba sendotzen dabilela, eta jendeak aldaketa hori gura duela, parte-hartze txikiagoarekin botoetan irabazi egin dugulako".

EAJko Unai Elkorori abstentzioak eragin dio kezka: "Parte-hartzea asko jaitsi izana pena da, eta gure kasuan kalte handia egin digu. Konturatu gara, gainera, herriaren beheko parteko kaleak batzen dituzten mahaiaitan igarri dela gehien jaitsiera

hori; ez dakit hauteslekua kiroldegira aldatu izanak eragina izan duen...". Eta gaineratu du: "Dena den, 100 boto inguru galteza ez da hainbesteko jaitsiera. Gainera, azken lau hauteskundeetako portzentajerik handiena lortu dugu".

## Emaitzak Aretxabaletan



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa Aretxabaletan

	2016	2020	Aldea
	Abstentzioa: %34,64	Abstentzioa: %41,08	Abstentzioa: +6,44 puntu
<b>EH BILDU</b>	1.278	<b>1.387</b>	109
	%36,32	<b>%43,34</b>	+7,02 puntu
<b>EAJ</b>	1.372	<b>1.266</b>	-106
	%38,99	<b>%39,56</b>	+0,57 puntu
<b>PSE-EE</b>	262	<b>237</b>	-25
	%7,45	<b>%7,41</b>	-0,04 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	419	<b>179</b>	-240
	%11,91	<b>%5,59</b>	-6,32 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>37</b>	37
	-	<b>%1,16</b>	+1,16 puntu
<b>PP+C'S</b>	131	<b>37</b>	-94
	%3,72	<b>%1,16</b>	-2,56 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>16</b>	16
	-	<b>%0,50</b>	+0,50 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.  
ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## 'Erraiak' ikus-entzunezkoak saria jaso du Montevideon

VI. Montevideo World Film Festivalean saritu dute irrintziaren gaineko Ekain Martinez de Lizarduyren filma

**M.A. ARETXABALETA**

Uruguako hiriburuan egin berri den zinema jaialdian, dokumental laburraren saileko saria jaso du *Erraiak* ikus-entzunezkoak (2018, 33 min.). "Errekonozimendu bat da saria, gure kulturaren altxor txiki bati egin-dako errekonozimendua, baita munduan zehar zabaltzeko aukera paregabea ere", azaldu du Ekain Martinez de Lizarduy zuzendariak.

Irrintziaren jatorria eta horren hedapena ardatz dituen filma 2018an estreinatu zuen Martinez

de Lizarduy irakasleak -Aretxabaletan bizi den donostiarra-, Arteman Komunikazioarekin elkarlanean ekoizita. "Urte eta erdi luzea igaro da Aretxabaletan aurkeztu genuenetik, eta orduetik emanaldiak izan dira 40 herritan, dozenaka elkarrizketa, Filmin plataforman ikusgai dago, eta orain, nazioartean entzutetsua den zinema jaialdi batean garai-le. Askok eman du, baina ziur nago ezustekoren bat edo beste egongo dela oraindik". Hala, beste jaialdi batzuetan aurkezteko asmoa agertu du.

## GORA ETA BEHERA



### Trialsin-guneko txabolaren kristalak, apurtuta

Oztopo taldeko kideek salatu gura izan dute trialsin-guneko txabolaren bi kristal apurtu dizkietela: "Bigarren aldia da, pasa den sanmigeletan beste kristal bat apurtu ziguten eta. Txabola barruko materialik ez dute lapurtu; hortaz, grazia egitearren apurtzen dituzten susmoa daukagu".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



OZTOPO

### Etxekalte taldearen kontzertua bihar, bidegorri alboan

Bermeoko Etxekalte taldea gonbidatu dute *Hemengaz* ekimenaren bueltako elkarteek, eta bihar, zapatua, bidegorri alboko skate parkean izango dira (19:30). Punk-rock doinu melodikoak lantzen ditu laukote bizkaitarrak, eta Citizen eta antzeko taldeak gustuko dituzten musikazaleei "hutsik ez egiteko" gomendatu diete.

**Jou Diaz**

*Starakiua*

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



# "Oreka-Covadonga erronka gauzatu dugu, baina ondo sufrituta"

Joan den zapatuan, hamar lagun irten ziren, goizaldeko seietan, Eskoriatzatik Asturiaserainoko bidea egitera. Asmoa Covadongako aintziretako portuaren hasierara iristea zen, baina, behin hara iritsita, parte-hartzaile guztiek igo zuten portu gogorra

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Joan den zapatuan irten ziren hamar lagun Eskoriatzatik Covadongako aintziretako erronka egitera, bizikletan. Hordagoa bota, apustua egin, erronka bihurtu, animatu eta helburua bete dute egitasmoa burutzera animatu diren hamar txirrindulariek. Uste baino hobeto aritu dira, gainera; izan ere, guztiek lortu dute ibilbide osoa gauzatzea eta Covadongako aintziretako puntu goreneraino iristea.

*Oreka-Lagos* erronka izenpean, joan den zapatuan 06:00etan irten ziren Eskoriatzatik Asturiaserainoko bidea egitera hamar lagun, eta hauekin batera hiru furgoneta joan ziren asistentzia eta laguntza ematera. Egitasmoa nola bururatu zitzaizen adierazi dute parte-hartzaileek. "Apustu batetik sortu zen guztia", adierazi du Iker Ibabe txirrindulariak: "Kuadrillakoak gazteagoak zirenean aste batean egin zuten Eskoriatzatik Asturiaserainoko bidea bizikletan, eta nik egun batean egitea posible zela esan nien; hala hasi zen guztia. Iker Eskibelekin komentatu, eta egi-

tea erabaki genuen. Hala, erronka moduan hartu genuen, eta taldetxoa batu ginen egiteko; Oreka bizikleta dendako jabeak eta mekanikariak dena antolatzen asko lagundu digute, eta beraiei eskertu beharrez ere bagaude... Gauzak horrela, esperientzia izugarria izan da. Beste bat egiteko prest gaude guztiok, duda barik".

**Hamar lagunek helburua beteta**

Hasiera batean, Covadongako aintziretako portu hasierara iristea zen helburua, baina, hara iritsita, goraino igotzen denak animatu zirela adierazi du Iker Eskibel *Oreka-Lagos* erronkako parte-hartzaileak: "Zapatuan 06:00etan irten ginen Eskoriatzatik eta 19:00 aldera Covadongako aintziretan geunden. Guztira, 315 kilometro inguru egingo genituen, baina aurreikusitako baino samurragoa izan da; izan ere, giro ederrean joateak samurtu egiten du gogortasun hori. Hala, asistentzia eta laguntza ematen hiru lagun etorri dira furgonetekin, eta beraien laguntza ezinbestekoa izan da; atsedendietarako zein bertatik

bueltatzeko. Denok iritsi ginen goraino, eta, erronka gauzatuta, gure artean taldetxoa osatu dugu. Hori horrela, datorren urtera begira ideia batzuk baditugu garatzekotan daudenak, baina egingo dugu irteeraren bat edo beste, seguru".

**Gurpil zulaketak eta erorketa**

Ander Zubia eskoriatzarrak, bestalde, adierazi du ez zuela pentsatzen, hasiera batean, erronka gauzatzeko gai izango zenik. Hala ere, egindakoarekin pozik agertu da: "Eskoriatzatik irten ginen, eta lehen geltokia Laredon egin genuen; bertatik Torrelavegara eta gero Unquerara, han indarrak hartu, eta Covadongako aintziretan portu hasieraraino joan ginen. Berriz atsedendia egin eta portua igo genuen, guztiok batera".

Esperientzia izugarria izan dela adierazita, gurpilen zulaketak eta erorketa bat ere izan dituztela adierazi du Zubiak: "Zulatu batzuk izan genituen gurpiletan, eta 50 kilometroren faltan erorketa bat izan nuen. Hala ere, ez zen ezer larria izan, eta oso pozik gaude egindakoaz".




Eskoriatzan, erronka hasi aurreko talde argazkia. ARGAZKIAK: OREKA CYCLING SPACE



Covadongako aintziretan, erronka amaituta.




Ander Zubia eskoriatzarra argazkilaria agurtzen.




**IKER ESKIBEL**  
TXIRRINDULARIA

"Aurreikusitako baino samurrago egin dugu. Izan ere, taldean joateak, hizketan eta entretenituta, gogortasun hori kendu edo ahantzazten du".



**IKER IBABE**  
TXIRRINDULARIA

"Hasierako kilometroak egin zitzaizkidan gogorrenak. Dena den, egun-pasa ederra egin dugu, errepikatze modukoa izan dena".



**ANDER ZUBIA**  
TXIRRINDULARIA

"Ez nuen uste amaituko nuenik. Hala ere, denok lortu dugu, eta esan beharra dago laguntzera etorri direnak gabe ezingo genuela erronka amaitu".



Hamar parte-hartzaileak batera.



Mokadutxo hartzen.



# Alderdi bozkatuena izanda, EAJ garaile

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Joseba Iñurrategi pilotalekua izan da aurten hautesleku Eskoriatzan. Parte-hartzea %55,15ekoa izan da eta boto gehien jaso dituen alderdia EAJ izan da: 741; bigarren, berriz, EH Bildu, 713 botorekin

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJ izan da bozkatuena Eskoriatzan: botoen %42,08rekin, 741 jaso ditu. Garaipenari eutsi arren, galdu egin ditu botoak. Izan ere, 2016an, 763 boto jaso zituen; beraz, orain dela lau urte baino 22 gutxiago jaso ditu. EH Bildu, berriz, 713 boto jaso ditu, duela lau urtekoarekin alderatuz 69 boto gehiago; hala, elkarren arteko aldea murriztu egin da. Gainerakoek, bestalde, behera egin dute. PSE-EEK 128 jaso ditu -22 gutxiago-, Elkarrekin Podemos-IUK 108, akten arabera - Jaurlaritzak eman dituen datuetan 84 agertu arren-, eta PP-Ciudadanosek 20. Voxek, oster, 10 eskuratu ditu, akten arabera -Jaurlaritzak eman dituen datuetan 34 agertu arren- eta Equo-Berdeak 21.

**Akatsa kontakizunean**

Eusko Jaurlaritzako emaitzak konprobatzean, akats bat dagoela ere adierazi dute Eskoriatzako alderdi nagusietako ordezkariak. Behin-behineko emaitza ofizialetan txarto jaso zuten 2A mahaiko emaitza, eta akten Voxek 0 boto atera zituela jaso zuten eta Elkarrekin Podemos-IUK, aldiz, 24. Hori horrela, guztira, Voxek 34 boto izan beharrean 10 boto izango lituzke eta Elkarrekin Podemos-IUK, berriz, 84 boto beharrean 108. Hala, erreklamazioa eginda, gaurko hauteskunde-batzordean onartzea aurreikusten dute.


**EAJ: "Konfiantza berretsi dugu"**

EAJko ordezkariak "pozik agertu dira uztailaren 12an Eskoriatzan izandako emaitzekin: "Oso balorazio baikorra egiten dugu, Eskoriatzan, Gipuzkoan eta Euskadin hiritarren konfiantza berretsi egin dugulako, gure lu-

rraldean legebiltzarkide bat gehiagorekin, gainera. Guztira, hiru gehiago, emaitza historikoak guretzat. Horregatik, guran konfiantza izan duten guztiei gur esker ona helarazi nahi diegu, baita ere hauteskunde hauetan parte hartu duten guztiei. Eta

baita berme demokratiko eta osasun segurtasunarekin egun hori posible egiteko lan egin zuten guztiei, udal langileei, garbiketara eta desinfekzioa lanean aritu zirenei, postariei eta gaitontzekoei. Orain, guztion artean eraiki behar dugu etorkizuna

## Emaitzak Eskoriatzan



ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA

## Boto-konparaketa Eskoriatzan

	2016	2020	Aldea
	Abstentzioa:	Abstentzioa:	Abstentzioa:
<b>EAJ</b>	763 %39,64	<b>741</b> <b>%42,08</b>	-22 -2,88 puntu
<b>EH BILDU</b>	644 %33,45	<b>713</b> <b>%40,49</b>	69 +10,71 puntu
<b>PSE-EE</b>	150 %7,79	<b>128</b> <b>%7,27</b>	-22 -14,67 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	241 %12,52	<b>108</b> <b>%6,13</b>	-133 -55,19 puntu
<b>PP+C'S</b>	69 %3,58	<b>20</b> <b>%1,14</b>	-49 -2,44 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>21</b> <b>%1,19</b>	21 +1,19 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>10</b> <b>%0,57</b>	10 +0,57 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

eta denok laguntzeko prest egon beharko dugu, gobernu berria osatuko dugun alderdiok eta baita ere oposizioan geratuko direnek. Hori lortzeko eta gure herri proiektu aurrera ateratzeko, eskua beste alderdiei luzatuko diegu, gurekin bat egiteko eta oposizio baikorra egiteko. Ekarpen guztiak ongiatorriak izango dira, baina ez dugu ahaztu behar gure herriak zer proiektu aurrera eratu duen, eta hori errespetatzea eskatzen dugu. Gobernu sendoa osatuko dugu, eraginkorra eta aurrerakoa, aurrera begira ditugun erronkei aurre egiteko gai izango dena, inor atzean utzi gabe. Garai gogor hauetan hiritarren ondoan lan egiten jarraituko dugu", esan du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak.

**EH Bildu: "Emaitza bikainak"**

Eluska Irazu EH Bilduko bozeramaileak, berriz, honako hau adierazi du: "Igendekoak gaziagoak utzi zituen. COVID-19aren bilakaerak utzitako ezusteko goibela; lerro hauetatik, gure doluminak senide eta gertukoei. Baldintzak ez dira onak izan; pandemia baten erdian eta, oraindik, Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiketa politikoak. Eskoriatzako emaitzak bikainak izan dira; abstentzioa %6,5ekoa izanik, EH Bildu izan da indar bakarra botoetan igo dena: 69 boto gehiago 2016tik, %7,1. Eraldaketa eredu gara, krisi honen aurrean inor atzean utzi gabe, elkarbizitzan, herri hobeto batean duintasunez bizi nahi dugu. Herriaren eraikuntza eskoriatzar guztien parte hartzearekin. Zorionak eta eskerrik asko!"



Ibarraundin bonuak saltzen. I.B.

## 100 bonutik gora saldu dituzte Ibarraundi museoan

Salerosketak pizteko eta egoerak kaltetutako familiei laguntzeko Eskoriatza Bizirik bonuen kampaia bere fruituak ematen ari da. Izan ere, astelehen eta egubakoitzetan, goizez, 11:00etatik 13:30era bitartean, eta eguaztetan, berriz, soilik arratsaldean, 17:00etatik 19:30era bitartean, bonuak saltzen ari dira Ibarraundin, eta dagoeneko 100etik gora saldu dituzte.

## Bocabeats Comediak 'beatbox' saioa eskainiko du

Gaur, 22:00etan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, Bocabeats Comedia taldearen saioa ikusteko aukera izango da. *Beatbox*-a komediarekin nahasten dute taldeko bi partaideek, eta ez da izango Eskoriatzara datozen lehenengo aldia. Oraingoan, baina, *La que hemos liao* show-arekin izango dira taldea osatzen duten bi bizkaitarrak.





# Lehenengo eleberria argitaratu du Aranak

'Portuak' izeneko eleberria argitaratu du Oihana Arana eskoriatzarrak. Nerabezaroa ardatz, Ilargi izeneko neska gazte baten bizimodua aztertzen da, pertsona batek noiz uzten dion haur izateari eta noiz egiten den heldu, horrelako zalantzak azaleratuz

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Oihana Arana eskoriatzarrak *Portuak* izeneko bere lehenengo liburua idatzi du. Martxoan zen argitaratzekoa, baina pandemiaren eraginez atzeratu, eta itxaronaldiaren ostean kalean da. Arana bertso munduan ezagunagoa bada ere, liburua idaztera animatu da. Gaia nerabezaroa izanda, neska gazte baten bizimodua aztertzen du bertan; adibidez, pertsona batek noiz uzten dion haur izateari eta noiz egiten den heldu. Halako zalantzak azaleratzen ditu.

Fernando Morillo euskal idazleak xaxatuta animatu da liburua idaztera Arana: "Literatura egonaldi batean egon nintzen, eta Fernando Morillo ere bertan izan zen. Egonaldia amaitu ostean, etxera iritsi eta bere deia jaso nuen. Ez nuen espero, eta pozez hartu nuen, nahiz eta urduri. Izan ere, ez nekien nola idazten zen liburu bat, baina ikasten joan naiz, eta nire barruko idazleak nola funtzionatzen duen ikasi dut".

## Nerabezaroa ardatz

Liburuaren aginte makila Aranaren eraman badu ere, egonaldian izandako lagunen laguntza ere izan duela adierazi gura izan du eskoriatzarrak: "Harremanak landu ditut: pertsonaia nagusiak bere gorputzarekin dituenak, bere inguruko jendearekin, eta baita heriotzarekin. Liburuari *Portuak* izenburua jartzearen arrazoia da, metaforikoki esanda, nerabezaroa itsaso zabalean galduta ari garen garai bat dela, eta portu batzuk gura nituen eraiki, pixka bat non heldu izateko nerabeek".

13 urtetik gorakoei zuzendutako liburua da, eta, hain zuzen ere, galdera asko proposatzen dituela adierazi du Aranak: "Galdera asko proposatzen ditut liburuan; gero, erantzunak norberaren esku geratuko dira.



Oihana Arana, Eskoriatzako bibliotekan, liburuarekin. AITZIBER ARANBURUZABALA

## "PROTAGONISTA NERABEZAROKO MUNSTRO ASKOREN PERTSONIFIKAZIOA DA"

Ea, bada, horiek topatzen dituen irakurleak".

## Liburuaren azala

Malen Amenabar ilustratzaileari eskatu dio azala egiteko. Bere lana asko gustatzen zaionez, hari eskatu zion egitea, eta emaitzarekin pozik agertu da: "Liburua etorkizuneko Ilargi kontatzen du, eta bere buruari kontatzen agertzen da azalean, bere menpe edo bere eskuetan du iragan hori. Horrenbestez, uste dut liburuaren isla oso ona dela azala, eta irakurtzean argi geratzen da zertatik den halakoa".

## Nerabezaroko traumak hizpide

Ilargi Areitio da liburuiko protagonista, eta izan litekeen arren ez dela bere istorio autobiografikoa adierazi du Aranak: "Ilargi nerabezaroko trauma edo

munstro guztien pertsonifikazio bat moduan definitzen dut nik. Hala ere, nirekin ez dauka antz handirik; nik nerabezaroan nituen galdera asko berak ere baditu, edozein nerabek izan dituen edo izango dituen modu berean".

## Instagram kontuarekin

Liburuiko protagonistari Instagram kontua egin diola adierazi du Aranak: berrogeialdian, nerabeengana eta irakurleengana oro har hurbiltzeko bide zuzenagoa zela pentsatuta, Instagram kontua ireki genuen, *@ilargi.areitio* izenpean. Bere lagunen eta familiakoen, hau da, beste pertsonaien ilustrazioak eta haiekin lotura duten gauzak agertzen dira bertan, irakurri aurretik irakurleek, zelanbait, pixka bat liburuaz egazutzeko.

Olatz Zuazubiskar arrasatearrak egin ditu ilustrazioak, eta prestutasun osoa adierazi diola adierazi du Aranak. "Ezinezbestean aipatu beharreko izena da Olatz Zuazubiskarrena. Hasieratik prestutasun osoa agertu du, eta biok gaude oso pozik emaitzarekin".

# LEINTZ GATZAGA | 23

## EH Bildu nagusi Leintz Gatzagan, 66 boto eskuratuta

Aniztasun handiagoa izan arren, duela lau urteko emaitzekin konparatuta ez da aldaketa askorik izan


**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bildu gailendu da Leintz Gatzagan, 66 botorekin. EAJk 46 boto jaso ditu; Elkarrekin Podemos-IUK eta Equo Berdeak-ek, hiruna boto; Aulki Zuriak-ek, bi; eta alderdi sozialistak eta Voxek, bana. 2016ko hauteskundeekin alderatuta, EH Bilduren eta EAJren arteko al-

dea gutxitu egin da; beraz. Izan ere, orduko hartan, koalizioak 80 boto eskuratu zituen eta jeltzaleek, aldiz, 39.

"Aniztasun handiagoa izan da aurten, baina ez da aldaketa handirik izan Gatzagan. EH Bilduk normalean baino boto gutxiago jaso ditu eta EAJk batzuk gehiago jaso ditu", adierazi du Eugenio Otsoa alkateak.

## Emaitzak Leintz Gatzagan



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa Leintz Gatzagan

	2016	2020	Aldea
	Abstentzioa: %30,16	Abstentzioa: %30,51	Abstentzioa: %0,35
<b>EH BILDU</b>	80 %62,02	<b>66</b> <b>%53,66</b>	-14 -17,50 puntu
<b>EAJ</b>	39 %30,23	<b>46</b> <b>%37,40</b>	7 +17,95 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>3</b> <b>%2,44</b>	-
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	9 %6,98	<b>3</b> <b>%2,44</b>	-6 -66,67 puntu
<b>AULKI ZURIAK</b>	-	<b>2</b> <b>%1,63</b>	2 +1,63 puntu
<b>PSE-EE</b>	-	<b>1</b> <b>%0,81</b>	1 0,81 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>1</b> <b>%0,81</b>	1 0,81 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAILAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Hirigintza Saileko bi teknikari, prestatzen ari diren proiektu baten inguruan euskaraz berbetan, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

# Euskara mailan, urrezkoa Udalarari

Euskararen Bikain Urrezko Ziurtagiria jasoko duela jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzak asteon Udalarari, 1.000tik 850-899 eremuko puntuazioa jasota; 1990ean lehen euskara plana onartu zenetik, erabat aldatu dira udal barruko komunikazio ohiturak

## Jokin Bereziartua BERGARA

Euskararen presentziaren, erabilaren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-mailan txalotzeko lana egiten ari da Bergarako Udala, asteon jaso duen Eusko Jaurlaritzaren Bikain Euskaren Kalitate Ziurtagiriak ziurtatzen duenez. Urrezko ziurtagiria jaso du, puntuazio oso altuarekin: kanpo ebaluatzaileek 1.000tik 850-899 eremuko puntuazioa eman diote. "Udalak ez du Bikain ziurtagiria eskuratzea helburutzat hartu, hobekuntzaren aldeko pauso berri moduan hartu du", adierazi du, sariaren izendapenaren berri izan eta gutxira, Euskara zinegotzi Ekaitz Aranberrik. Otsaileko osoko bilkuran udalbatzak erabaki zuen ziurtagirirako kanpo ebaluaziorako prestateta-lanak egitea eta ordutik lanean "buru-belarri" aritu dira.

## "Langile guztiak inplikatu dira"

Euskara zinegotzi Ekaitz Aranberrik balioa eman nahi izan dio Urrezko Bikain agiria jaso izanari. "Orain arte egindako lanari aitortza bat da, bereziki langileen partetik egin dena. Euskara batzordea buru-belarri aritu da lanean, informazio piloa jaso dute, eta udal langile guztiak inplikatu dira. Gure indarguneak zeintzuk diren identifikatzen lagundu digu, eta baita non eragin dezakegun jakiteko ere. Etorkizuneko erronkei begira jartzeko ere balio izan digu", dio Aranberrik.

**UDALAREN HELBURUA EZ DA ZIURTAGIRIA IZAN, PROZESUAN SARTU ZIREN EGOERA HOBETZEA BAIZIK**

## Udalak, "jarrera proaktiboa"

Udalak ibilbide "luzea eta eman-korra" dauka euskararen normalizazioan. Ezin da ahaztu 1990ekoa dela euskararen erabilera sustatzeko lehen plana. Gainera, aurtun beteko dira 25 urte Bergarako Udalak, Antzuolakoarekin batera, AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) izeneko plan pilotua bideratu zuela. Plan aitzindari horren ostean, beste lau euskara plan onartu ditu Udalak, azkena 2018tik 2022ra artekoa.

Udalbatza eta udal langileak pozik daude lortutakoarekin, baina badakite euskararen normalizazioaren aldeko bideak jarraitu beharra duela: "Hain zuzen ere, Udalarentzat kanpo-ebaluazio horren helburu nagusia izan da uneko egoeraren gaineko informazio sakonagoa izatea, eta horretan hobetzeko

## "Gure itzulpenen %85 euskaratik gaztelerara egiten dira gaur egun"

ESTEPAN PLAZAOLA EUSKARA ZERBITZUKO TEKNIKARI-BURUA

30 urte bete berri dira Euskara Zerbitzuko teknikariburu dela Estepan Plazaola, 1990a ezker ari da-eta lan horretan. Hain justu ere, urte hartan bertan onartu zen lehen euskara plana Bergarako Udalean.

### Zer dakar Urrezko Bikain Ziurtagiria jasotzeak?

Urte hauetan guztietan egindako lanaren aitortza da ziurtagiri hau jasotzea, baina ez dugu helburu horrekin egin. Hau da, gure helburua gehiago izan da dagoeneko dugun maila hobetzeko bultzagarri bat izatea. Langileen eta politikarien artean komentatu ostean egoki ikusi zen Bikain ziurtagiria jasotzeko prestateta lan guztia martxan jartzea.

### Nola eragin du COVID-19ak ebaluazio hori egiteko orduan?

Martxoan, txostenarekin ari ginenean, esan ziguten ebaluazioa maiztean izango zela ebaluatzaileak bertara etorrita. Gogora ekarri behar da prozesua: ebaluazioa eskatzen duen entitateak txosten bat egiten du, dituen ebidentziak erakutsita.



J.B.

Gero, ebaluatzaileak ebidentziak

aztertu eta entitatek erortzen dira horiek frogatzera. Nola? Besteak beste, hizkuntza paisaia ikustera erortzen dira eta langileetako batzuekin elkarrizketak egiten dituzte. Baina COVID-19a dela-eta bigarren fase hori telematikoki egin da. Guri lan handiagoko eskatu digu horrek, baina balio izan digu Udalak euskararen bueltan bizi duen egoeraren berri zehatza izateko; ondo etorriko zaigu informazio hori guztia etorkizuneko proiektu berriak finkatzeko.

### Adibidez, zertan aldatu da 1990eko eta gaur egungo egoera?

1990erako euskara zerbitzuak lau urte zeroztan martxan eta gauza batzuk euskaraz egiten ziren. Herritarrei komunikazio oro ele bitan bidaltzen zitzairen ordurako, baina udal barruko funtzionamendu ia osoa gazteleraz egiten zen, bereziki idatziz. Osoko bilkurak, barne bilerak... gehienak gazteleraz ziren orduan, eta ele bitan bidaltzen zena euskara itzultzaileak itzulia izaten zen. Egun, gure itzulpenen %85 euskaratik gaztelerara dira; Udala euskaraz bizi da gaur egun.

aukeren gaineko ekarpen kualifikatuak jasotzea".

Eusko Jaurlaritzako ebaluatzaileen arabera, hiru indargune ditu Udalak. Lehena da hizkuntza politika adostasunean oinarritu dela betidanik, politikarien eta langileekin adostasunean; langileak izan dira eta dira planaren aktibo garrantzitsuak. Bigarren indargunetzat dute Udalak euskararen arloan duen ibilbide luzea, eta ibilbide hori akuilu moduan ulertzen dute. Eta hirugarrenik, baloratu dute euskararen erabilera sustatzeko Udalak jarrera proak-

**1990EAN LEHEN EUSKARA PLANA ONARTU ZENETIK HIRU ONARTU DIRA: AZKENA, 2018-2022**

tiboa erakutsi duela eta lan horretan eragile dela. Ziurtagiria urte amaieran egingo den ekitaldi batean jasoko dute.

### Hobetzeko hiru alor

Puntuazio altua jaso arren, ebaluatzaileek egoera hobetzeko proposamen batzuk egin dituzte. Batetik, hizkuntza politika kudeaketa orokorrean integrazteko aurrerapausoak ematen jarraitzeko eskatu diete Jaurlaritzatik, beste esparru batzuetan bultzatu izan duen bezala -kulturan, aisialdian eta kirolean, kasu-. Bigarren erronka moduan jarri dute Udalak euskararen normalizazioaren alde arlo sozioekonomikoan ere eragitea. Eta, hirugarrenik, langileen arteko ahozko harreman guztiak euskaraz izateko lanean jarraitzeko erronka zehaztu dute.





2019ko danborradaren amaiera, San Martin plazan; aurten egiten bada, ez da halako jende pilaketarekin egingo. GOIENA

# Jai batzordea lanean bai, baina izurritearen zain

Festa garrantzitsu guztiak suspenditu ostean, Udal Gobernuak "bereziki gogotsu" zegoen sanmartinetan "zerbait" antolatzeke, baina COVID-19aren azken agerraldiek dena jarri dute kolokan; egiten badira, azoka eta helduen danborrada ezohikoak izango dira erabat

## Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak Erramu Zapatua, Pentekosteak eta San Martzial jaiak bertan behera lagatzera behartu du, eta, horregatik, Udal Gobernuak hasita zegoen aurten go San Martin jaietarako lanean. "Duela aste batzuk, oso motibata geunden sanmartinak antolatzeke, badakigu eta herritarrek ezin izan dutela jaietz disfrutatu.

Baina egoera zeharo aldatu da ordutik azken asteotan, agerraldi berriek eraginda. Horregatik, planteamendua erabat aldatu behar izan dugu.", dio Jaietako zinegotzi Kristina Markinak.

## Izurriteak izango du azken hitza

Gaur-gaurkoz eta betiere izurritearen bilakaeraren arabera, Udal Gobernuak badu zerbait

antolatzeke asmoa: "Zerbait bai egin nahi dugula, ez ditugu sanmartinak ere bertan behera laga nahi. Baina, neurri handi batean, ez dago gure eskuetan; noski, ez lirakeste ohiko jaiak izango, normaltasun berriak eskatzen dituen neurri guztiak betez ospatu beharoko genituzke", aurreratu du Markinak. Azoka egin ahalko litzateke irailaren 12an, baina beste

era batera: bertako ekoizleekin bakarrik egindakoa, gehienez hamabi postuarekin eta oraindik zehazteke dagoen leku batean, besteak beste: "Orain artekoa baino askoz xumeagoa litzateke".

## "Proposamen zirriborro bat da"

Nagusien danborrada izaten da sanmartinetako ekitaldi bereziena eta jendetsuena. Datu bat ematearren: 2019an, danbor-joleak, barrika-joleak, sukaldariak eta bandera eramaileak kontuan hartuta 552 herritarrek hartu zuten parte –danborrada japoniarreko eta bandako kideak aintzat hartu barik–. Aurten, egiten bada, erdira jaitziko litzateke partaide kopurua, gutxi gorabehera. "Gure asmoa eta gogoia da helduen danborrada antolatzea San Martin bezperarako. Orain arte moduan egingo denez egin, proposamen bat egin genien uztailearen 8ko bileran danborradako zuzendariei. Proposamen bat da, zirriborro fasean dagoena", zehaztu du zinegotziak.

Gobernuaren proposamen zirriborroak jasotzen du, eguraldi onarekin betiere, irailaren 15eko danborrada bi zatitan egitea. Batetik, 22:30ean hasita, ikuskizun japoniarra egingo litzateke plazan, San Martinen heriotzaren errepresentazioa; ikusleentzat aukeragarriak jarriko lirakeste eserita egoteko. Errepresentazioan ere mugatu egingo litzateke agertokian une berean egongo den jende kopurua. Gobernuak uste du ondo baloratu behar dela ikuskizun hori egin edo ez, plazan eserita gehienez 356 lagun egon daitezkeelako metro eta erdiko tartea mantenduz.

## Gehienez hamabi lagun taldeko

Ondoren, 23:00etan, hasiko litzateke danborrada. Esandako

moduan, partaide kopurua mugatu litzateke. Proposameneko berezitasun bat da danborrada biltegian hasi eta bukatzea plazan gelditu gabe, jende pilaketak ekiditeko. Horrez gain, danborrak aurrez banatuko ziren taldeen artean, talde bakoitzeko gehienezko hamabi laguneko gehiengo ezarrita –hori horrela izanda, gehienez 262 pertsonak hartu ahalko lukete parte–. Danbor-jole bakoitzak bere danborra jasoko luke, eta 2019an parte hartu zuten hogeit hamar konpainiek soilik izango lukete aukera parte hartzeko. Eurria egingo balu danborrada bakarrik egingo litzateke, San Martin Agirreren heriotzaren errepresentaziorik gabe. Beste gomendio batzuk ere eman dituzte; adibidez, arrisku taldekoek parte ez hartzea –60 urtetik gorakoak edo gaixotasun kronikoren bat dutenak–. Era berean, umeen danborradarik ez da egingo kalean.

## Proposamen berrietara zabalik

Uztailearen 8an egin zuen jai batzordeak aurtengo sanmartinetarako lehen bilera irekia eta asmoa dute abuztu aurretik beste bat egiteko; udal ordezkariak –oposizioa barne– eta herriko hainbat eragilek osatzen dute batzorde hori: "Egoerak eskatzen dituen neurriak betez eta zuhurtziaz jokatu, zabalik gaude proposamenetara. Gogoia eta ilusioa ez zaizkigu falta, baina ez dakigu irailan jaiak ospatu ahal izango diren ere".

## PROPOSATZEN DUTE DANBORRADA BI ZATITAN EGITEA, ETA LEHENTASUNA IZATEA JENDEA EZ PILATZEA

## Udako euskarazko postal lehiaketa, irailaren 16ra arte

### Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Aurten bederatzigarren urtez antolatu dugu lehiaketa, formatu erraz baten jendea euskaraz idaztera animatzeko. Azken eguna da irailaren 16a eta sari bi zozketatuko dira: Elkar megadendako 50 euroko opari bonua eta euskal produktuz osatutako ota-rea. 943 76 36 61 / 605 71 24 69.



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

# TXIPI

## LEIHO ISOLATZAILEAK

**Amillaga 5, behea - BERGARA**

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8,  
943 76 59 54 BERGARA

# Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62



# Parte hartzea jaitsita ere, EH Bilduk nabarmen gora

EH Bildu izan da 2016ko hauteskundeetara aurkeztu zirenekin alderatuta botoetan igo den bakarra, eta bigarren izan den EAJk baino 736 gehiago lortu ditu; EAJk eta PSE-EEk behera egin dute botoetan, baina galtzaile nagusia Elkarrekin Podemos-IU izan da 2020an

## Jokin Bereziartua BERGARA

Uztailaren 12ko hauteskundeetan gaineko balorazioa eskatu die GOIENAK Udalean ordezkariak duten talde politikoei.

## EH Bildu: "Oso emaitza onak dira"

Bergarako EH Bilduren ustez, "oso onak" dira herriko emaitzak: "Parte-hartzea %4,68 eta 600 bozka inguruan jaitsita ere 333 boto gehiago jaso ditu EH Bilduk Bergaran, eta EAEn errepikatu den tendentzia da". Igoeraren arrazoiak "askotarikoak" izan arren, egin duten lana nabarmendu dute: "Bozkatzaileek esan beharko lukete, baina erakundeetan gauzak zintzo, herritarrengandik gertu eta egoki kudeatzeko gai da EH Bildu, eta hori gero eta argiago du gizarteak. Kontrara, gero eta nabarmenago ari da geratzen EAJ-PSEk ez zintzo eta ez ongi kudeatu dituztela erakundeak". Amaitzeko, EAEn abstentzio altuaren bultzatzen gogoeta egin du Bergarako EH Bildu: "COVID-19ak eragindako jaitsiera eta abstentzio aktiboa kritika bezala egiten dutenez gain, abstentzionisten gehiengoak erakundeekiko eta sistemarekiko atxikimendu falta erakusten du; bozkatzaile ez joatea ez da sistemaren osasunaren adierazle ona".


## EAJ: "Ezohiko egoeran egin dira"

Gipuzkoako zerrendatik hamaigarren zihuan Elena Letek nabarmendu du EAJk irabazi dituela hauteskundeak. Bergarara etorrira, emaitzak onak direla deritzo: "Testuingurua berezia izan da eta berezitasun horrek eragina izan du botoetan: pandemiak sortutako beldurra, uztailaren batzuk oporretan egotea, postaz eskatutako boto gutxiak ez gauzatzea, Gipuzkoan 25.000 pertsona gutxiago errolatuta egotea...". 2016an baino

207 boto gutxiago izanaren zergatiak galdetuta, egoera berezia izan dela dio Letek. "Nahiz eta sasoi onena ez izan, Legebiltzarra eratu beharra zegoen hurrengo olatua baino lehen. Abstentzioaren gorakada tokian toki aztertu beharko da", gaineratu du.

**PSE-EEko Alberto Alonso, pozik** Alberto Alonsok abstentzio altuari egin dio aipamen berezia PSE-EEren emaitzak baloratzerakoan: "Inoizko abstentzioa maila altuena izanda ere uste dut gure emaitzak oso onak izan direla; Debagoienean eta EAEn".

## Emaitzak Bergaran



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa Bergaran

	2016	2020	Aldea
	Abstentzioa: %33,01	Abstentzioa: %37,69	Abstentzioa: +4,68 puntu
<b>EH BILDU</b>	3.000	<b>3.333</b>	333
	%38,79	<b>%46,81</b>	+8,02 puntu
<b>EAJ</b>	2.804	<b>2.597</b>	-207
	%36,26	<b>%36,47</b>	+0,21 puntu
<b>PSE-EE</b>	522	<b>509</b>	-13
	%6,75	<b>%7,15</b>	+0,40 puntu
<b>ELKARREKIN</b>	983	<b>401</b>	-582
<b>PODEMOS-IU</b>	%12,71	<b>%5,63</b>	-7,08 puntu
<b>PP+C'S</b>	317	<b>107</b>	-210
	%4,10	<b>%1,50</b>	-2,6 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>78</b>	78
	-	<b>%1,10</b>	+1,10 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>24</b>	24
	-	<b>%0,34</b>	+0,34 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.  
ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

## Errekautan

Erosketa ohituren inguruan solasaldi luzea izan nuen duela gutxi dendari batekin. Azken hilabeteotan bezeroekin zuen harremana bere onera bueltatu zela kontatu zidan pozik. Dendariaren lana birbaloratu egin dela eta konfinamenduan bezeroek kontsulta asko egiten zizkiotela aipatu zidan: "Nondik dator hau?" Edo: "Arazo hau daukat, zer egin dezaket?".

Txikiak diren guztientzat –ekoizle, sortzaile, dendari eta tabernariarentzat– garai itogarri eta konplikatuak izaten ari da, ordea. Ertz asko ditu kontu honek, eta *Internet vs gertuko komertzio txikia* dikotomiaz haragoko soluzioak pentsatzea garrantzitsua iruditzen zait. Lehen urratsa enpresa eta kate handi askori boikot aktiboa egitea izan daiteke. Bigarrena, bitartekari ahalik eta gutxien dituzten salmenta bideak indartzea. Kontsumo eredu geroz eta *auto-zentratuagoa* dugun honetan ez da batere erraza inertzia batzuk aldatzea, sartu garen gupil zorotik ihes egitea. Baina, kontsumitzaile, ekoizle, banatzaile eta inguruarekin justuagoak diren harremanak antolatzeke indarrak ere sumatzen ditut.

## Agorrosinen eman ahalko da odola orain, irailaren 9ra arte

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman du odola emateko lekua aldatu egin dutela. "Odol-ateratzeak egiten genituen lokalak ez ditu baldintza egokiak betetzen. Udalariazaldu behar izan genion zeintzuk diren ateratzeak egoera onean egin ahal izateko baldintzak, eta, interes handia erakutsi ostean, Agorrosin kiroldegian

lokal bat utzi digute. Lekualdaketak ekar ditzakeen eragozpenengatik barkatu, baina emaitza onerako da aldaketa". Irailaren 9ra artean, odol-ateratzeak kiroldegiko lehen pisuan egingo dituzte. Horrez gain, azaldu dute Bergarako elkartetik jarraituko dutela zitak ematen, donazioak arintzeko asmoz. Horregatik, odola ematera animatu nahi izan dituzte herritarrek, eta horretarako bi telefono zenbaki eman dituzte: 610 39 32 97 eta 669 10 89 77.

## OHARRAK

### Lan eskaintza: Aroztegi aretoaren zaintza

Aroztegi aretoan harrera eta zaintza lanak egiteko langile bila dabilta. Interesatuak curriculumak bidali behar du [jardunkultura@topagunea.com](mailto:jardunkultura@topagunea.com) helbidera uztailaren 24a baino lehen. Informazio gehiagorako: 943 76 36 61 / 605 71 24 69.

### Osintxuko errepidea itxita, gaur arte behintzat

Euri uren hodi bat menditik errekarra bideratzeko lanak direla-eta astelehena ezkerreko itxita dago Osintxurako errepidea bi noranzkoetan, goizez. Gaur ere itxita egongo da. "Autobus zerbitzua normal dabil eta gainerakook errekaren beste aldetik ari gara, arazo gabe", adierazi dute auzo batzordetik.

### Udal euskaltegiaren ikastaro trinkoak irailean

C1 eta C2 mailetarako ikastaroa izango da, 2019-2020 ikasturtean euskaltegiaren baten aritu ziren ikasleei begira, irailaren 3tik 30era. Astean bi saio egingo dira, biak ere arratsaldean. Argibide gehiagorako: 943 76 44 53 / [euskaltegia@bergara.eus](mailto:euskaltegia@bergara.eus).

### Tasen ordainketa: zaborra, estolderia eta ura

Zabalik dago 2020ko bigarren hiruhileko ordainagiriak ordaintzeko epea, urriaren 9ra arte: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).



# "Taldeari laguntzeko gogoz nator, dena emateko"

**JOSEBA SARRIEGI** AURRELARIA

Bere ibilbide osoa Beasainen egin ostean, BKEren gizonzkoen Ohorezko Erregional Mailako taldea indartzeko asmotan dator Joseba Sarriegi aurrelaria

**Jone Olabarria** BERGARA

Bergara Kirol Elkartek Joseba Sarriegi aurrelaria (Beasain, 1994) aurkeztu zuen asteartean, datorren denboraldira begirako lehen fitxaketa, Andoni Escalona atezainak urtebetez berritu ostean. Bere ibilbide osoa Beasainen egin duen Sarriegi Hirugarren Mailan aritu zen orain dela bi denboraldi, nahiz eta azken denboraldia Preferente Mailan egin duen.

**Zergatik erabaki duzu Bergararen aldeko apustua egitea?**

Hirugarren Maila utzi ostean hainbat eskaintza izan nituen Ohorezko Erregional Mailako hainbat taldetatik, baina lana zela-eta Beasainen jarraitzea erabaki nuen aurreko denboraldian. Datorren denboraldira begira, Bergaratik eskaintza egin zidaten, eta, azken batean, banuen Ohorezko Erregional Maila probatzeko gogoia; hortaz, onartzea erabaki nuen.

**Lehen hartu-eman duzu taldearekin honako hau.**

Aurretik ez dut Bergararen aurka sekula jokatu, baina Andoni Escalona atezaina laguna dut, beasaindarra bera ere, eta, hortaz, ezagutzen nuen taldea. Berekin hitz egin nuen eta giro polita dagoela aitortu zidan, talde gaztea dela eta jokatzeko



Barkero, Elorza, Joseba Sarriegi eta Elorriaga, aurrelariaren aurkezpenean. BKE

**"TALDEAREN KASUAN, GAKOA HASIERATIK DENBORALDIA SALBATZEA IZANGO DELA USTE DUT"**

eta lehiatzeko gogo handia duen taldea dela.

**Zein da zure helburua datorren denboraldiari begira?**

Ez dut taldearen jokoa askorik ezagutzen, baina ni dena emateko gogoz nator, taldeari lagun-

tzeko gogoz eta, posible bada, golak sartzeko asmoarekin.

**Taldeari dagokionez, nola ikusten duzu egoera?**

Taldearen kasuan, denboraldia salbatzea izango da gakoa, nire ustez. Hasierako partiduetatik salbatzen saiatzea eta horrela lasaitasunez jokatu ahal izatea denboraldian zehar. Hala ere, ikusteko dago denboraldia hasten denean nola dagoen taldea. Denboraldi-aurrea abuztu amaieran astekoak gara, baina liga noiz hasiko den ez da ziurra oraindik; urrian izan daiteke.



Agorrosin futbol zelaia, eguaztenean, belarra moztu eta haziak bota ostean J.O.

## Agorrosingo zelaia prestatzen, datorren denboraldiari begira

Konfinamenduan belarra usteldu ostean, abuztu amaierarako erabilgarri egotea espero du BKEk

**J.O.** BERGARA

Bergara Kirol Elkarteen arabera, konfinamenduan ez dute baimenik izan Agorrosingo futbol zelaiaren mantentze-lanetarako, eta, ondorioz, zelaiaren egoera "tamalgarria" zen. Zelaiaren egoera txarra eta Ipintza erdia solarium modura erabiltzeko neurriak hala, entrenamendu saioak zailduko zituela azaldu zuten BKEtik alarma egoeraren ostean.

**Lanetan hasita**

Iosu Elortza presidenteak ekainean azaldutakoaren arabera, belarra usteldu egin zen beheko aldetik, eta, hortaz, belar hori aldatu beharra zegoen, horretarako kanpoko enpresa bat kontratatu beharrezkin, klubarentzat horrek dakarren inbertsioarekin. Egoera ikusita, azken egunetan hasi dira datorren denboraldiari begira Agorrosin-

go futbol zelaia prestatzen, denboraldi-aurreari begira egoera onean izateko lanekin: "Belarra moztu eta haziak bota dute; orain, abuztu hasierara arte, belarrari hazten utzi behar zaio. Abuztu amaierarako erabilgarri egongo dela aurreikusten dugu".

**Ohiko batzarra, gaur**

Era berean, Bergara Kirol Elkarteen urteroko batzar orokorra egingo dute Irizar Jauregian gaur, 18:30ean lehen deialdia eta 19:00ean bigarrena. Iosu Elorza lehendakariak azaldu duenez, ez dute aurreikusten "ezer berria" lantzea.

Gai zerrendak zehazten duenez, kirol sailaren txostena eta txosten ekonomikoa aztertu eta datorren denboraldirako aurrekontua eta kuoten onarpena izango dira gai nagusiak. Galderen eta bestelako txandarekin itxiko dute batzarra.

## Andoni Escalona, atezain berriz ere

Bergarak fitxatu berri duen Joseba Sarriegik aurtengoa izango duen bezala, iazkoa izan zen lehen denboraldia Bergara Kirol Elkarteko mutilen ohorezko erregional mailan Andoni Escalona atezain beasaindarrarentzat ere.

BKEk jakinarazi duenez, datorren denboraldiari begira ere taldearen atea zaintzen jarraituko du beasaindarrak.



Andoni Escalona, Ordiziaren aurka jokaturako partidu batean. I.S.

## Frontenis txapelketa kanporaketa fasean sartu da

Dagoeneko bi aste daramatza martxan Bergarako bikotekako frontenis txapelketak. Mutilei dagokionez, aste honetan zehar final-hamaseirenak erabakita utzi ostean, atzo hasi zituzten final-zortzireneko partidak, eta, nesken kasuan, asteburuan hasiko dituzte kanporaketa faseko partidak. Emaitza guztiak eta kanporaketen informazioa Arra-

no tabernan ikusgai daudela azaldu dute.

Hain zuzen, Bergarako pilota sailaren eta Udalaren laguntzarekin bikotekako frontenis txapelketa egiten ari dira uztailean zehar, herriko lau pilotaleku ezberdinetan. Guztira, 61 bikotek eman dute izena: hamaikak nesketan; 48k mutilen kasuan; eta bi mistok; antolakuntzatik azaldu zuten, parte hartze datu "oso ona". Hainbat bikote misto ere animatu dira eta dagoeneko bi aste daramatzate txapelketan.

# Ehyarts bergararrak eta Sara Zozaya entzungai

Bihar eskainiko dute kontzertua, 22:30ean hasita, Oxirondo plazan. Sara Zozaya donostiar gazteak indie-folk doinuak eramango ditu taula gainera, bere azken lana aurkeztuta: 'Lili'. Ehyarts bergararrek musika eta irudia izango dituzte ardatz nagusi

## Jone Olabarria BERGARA

Udako kultura eskaintzaren baitan antolatutako emanaldietako hainbatez gozatzeko aukera izango da asteburuan zehar. Oraingoan ere eskaintza zabala prestatu dute, eta bihurtik bertatik hasita, Sara Zozaya eta Ehyarts ikusteko aukera egongo da, Oxirondo plazan, 22:30ean hasita.

## Indie-folk doinuak entzungai

Donostian jaiotako abeslaria da Sara Zozaya. Akordeoiarekin hasi zen musikaren munduan, 12 urte zituela, eta bere abestiak sortzeari ekin zion, gitarra eta teklatuarekin. Gaur egun, Nerabe taldeko abeslaria izateaz gainera, bakarkako bideari ere ekin dio. Bergaran eskainiko duen kontzertuari dagokionez, batez ere ingelesezko abestiak aurkeztuko ditu, gai existentzialekin eta eguneroko bizitzako kontuekin zerikusia dutenak, guztiak artistak berak izendatzen duen darky indie-folk estiloen.

## "Laburra eta intimista"

Hain zuzen, ekainaren 19an argitaratu zuen abeslari donostiarrrak *Lili I* izeneko EParen lau garren aurrerapena. *Lili* lanean, "bizi dugun etengabeko frene-tismoa alde batera utzi eta geu-



Sara Zozaya donostiar gaztea, bere *Benetan* kantuko bideokliparen irudi batean. S.Z.

## BIHARKO EMANALDIAN INGELESEZKO KANTAK TAULARATUKO DITU, BATEZ ERE, SARA ZOZAYA ABESLARIAK

re burua entzuzera" gonbidatzen du entzulea Zozayak. Pop alternatiboarekin eta erritmo elektronikoekin esperimintatu nahi izan du *I* lanean, euskal musikaren tradizioarekin elkartzuz estilo bakarra sortuta. "Disko

labur intimista eta progresiboa da", artistaren hitzetan.

## Bergararren presentzia

Sara Zozayaren emanaldiaren ostean iritsiko da Ehyarts bikote bergararraren txanda. Azaldu dutenez: "Zuzenean dira gure emanaldi guztiak, eta, hortaz, ezberdinak dira denak". Hasierako doinu elektroniko dantzagarriak alde batera lagata, musika elektroniko lasaiagora eman dute saltoa, musika anbietalagora, taldeko kide Jokin Guridik adierazi duenez.

## Santa Marinako jaien bueltan, ekintza ugari asteburuan zehar

Txistulariek kalejira egingo dute domekan eta Aritzeta abesbatza Santa Marina eguneko mezan arituko da

## J.O. BERGARA

Zapatuan, uztailak 18, ospatzen da Santa Marina eguna, eta jai horien baitan zenbait ekitaldi antolatu dituzte astebururako. Hala, domekan egingo du Bergarako txistulari bandak kalejira, Poligono-Santa Marina inguruan, 11:00etan hasita. Ohiko egoeran kalejira eta kontzertua egiten dituzten arren, aurten kalejira soilik egitea erabaki dute. Horrez gain, Alberto Lascurain Cañok, Bergarako Txistulari Bandako zuzendariak, hitzaldi irekia eskainiko du, online, zapatuan. *Zuzendari batua* programaren baitan egingo du saioa.

## Aritzeta abesbatza, bueltan

Zapatuan, Aritzeta abesbatzak Santa Marina eguna dela-eta egingo duten elizkizunean kantatuko du. Arratsaldeko zazpie-



Txistulariak udaletxean kontzertuan. I.S.

tan izango da, Bergarako Santa Marina parrokiaren. Urtero legez, uztailaren 18an, Santa Marina eguneko meza egingo dute, baina, koronabirusaren pandemiak baldintzatuta, parrokiako koruak emanaldia eskaini beharrean Aritzeta abesbatza arituko da.

## Antzuolako eta Santa Marinako jaietan emanaldia Bandak


Uztailaren bi ekitaldi nagusi izan ohi ditu Bergarako Bandak urtero: Antzuolako jaietako kontzertua eta kalejira eta Santa Marinako jaietako. Aurten, baina, jairik egongo ez den arren, kalejira eta kontzertua egin beharrean, kalejira bakarrik egingo dute bihar goizean, hilak 18, Antzuolan. Domekan, berriz, kalejirari eta kontzertuari eu-

tsiko diote eta segurtasun neurriak betetzeko asmotan emanaldia Bergarako pilotalekuan egingo dute, 12:30ean. Alarma egoeraren osteko lehen kontzertua izango da Bergarako Bandarentzat, eta, emanaldia doakoa izango den arren, sarrerak alde aurretik hartu behar dira.

Era berean, dantzak ere bueltan dira; izan ere, domekan, hilak 19, dantza emanaldia eskainiko du Moiazpi dantza taldeak San Martin plazan, eguerdiko hamabietan.

## Musika eta irudiak nahastuz sortzen


Eyharts-ek ikus-entzunezko emanaldia taularatuko du bihar Oxirondon, ohiko kontzertu baten formatua mantenduta, baina zuzeneko musika elektronikoa eta era askotako irudiak nahasten dituena. Bi bergararrek osatua, Alayn Carazo musikaz arduratzen da eta Jokin Guridi irudiek aritzen da. Proiektua duela bi urte pasa abiarazi zuten.



Musika Garaikide eta Elektronikoaren Topagunean, Dantz jaialdian. DANTZ


## Bergaran jaiotako Leire Merino da Miss World Gipuzkoa

Miss World Gipuzkoa 2020 izendapena jaso du Bergaran jaiota den Leire Merinok. Hala, uztailaren 19tik 26era jokatuko den Miss World Spain lehiaketan parte hartuko du, Gipuzkoa ordezkatzuz. Azken urteetan edertasun lehiaketek izan dituzten aldaketek eta egungo lehiaketa ereduaz mintzatu da *Puntua* aldizkariko moda atalean.



Leire Merino, posatzen. GOIENA





# 16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA egin klik!



TXOKO EZKUTUETAN, ANBOTON | Argazkia: Agustin Zugasti



ACATENANGO SUMENDIA | Argazkia: Eneritz Larrea



FRANTZIAKO SAINT LARY | Argazkia: Egoitz Eraso



TOLOSA, FRANTZIA | Argazkia: Ana Bodes



Informazio gehiago lehiaketaren orrialdean: <https://labur.eus/uda2020>

## MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien Lehiaketa abian da! Non igaroko dituzu oporrak? Zu ikusi nahi zaitugu. Bidali zure argazkiak hiru kategoria hauetarako: **Protagonistak**, **Euskal Herrian** eta **Nazioartean**.

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 17tik irailaren 21era arte –biak barne–.

### Sariak

**Gertu zein urrun zoazela ere, zure berri izan gura dugu!**

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:

**Protagonistak:** Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Samsung Galaxy A20e smartphonea.

**Euskal Herrian:** Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

**Nazioartean:** Arrasate Bidaiak-i esker, Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarentzako zirkuitu termala eta Zelai menua.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia non ateratakoa den eta zein kategoriarako bidali den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 17tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Hiru kategoria egongo dira:
  - Protagonistak: pertsonak lehen planoan erakusten dituzten argazkiak, lekua baino garrantzi handiagoa dutenean pertsonak.
  - Euskal Herrian: Euskal Herriko paisaiak, eraikinak edo txokoak izango dira elementu nagusia, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
  - Nazioartean: Euskal Herriatik kanpoko txokoak, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
- Argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Kategoría bakoitzeko saritu bana aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 25etik 30era Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 2an emango da aditzera, GOIENA aldizkarian.
- Saria jasotzeko irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: *Goiena.eus* atarian, GOIENA aldizkarian, *Puntua* aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarri eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak2020>

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**EROSKI**  
ARRASATE

**GURE AMETSA**  
Restaurante • Jatetxea

**ARRASATE BIDAIAK**

**BERGARA**  
**EREIN DA JAN**



# EH Bildu garaile, botoen erdia baino gehiagorekin

EH Bildu nagusi 554 botorekin; EAJ bigarren indarra 370 botorekin; eta hirugarrena, PSE-EE alderdia, 74 botorekin. Ezohikoak izan diren hauteskunde hauetan herritar askok kale egin, eta abstentzioak gora egin du, 6,53 puntu

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemiaren egoerak guztiz baldintzatutako hauteskundeak izan diren arren, Antzuolan Olanan etxean jarritako bi hautesleketan normaltasuna eta lasaitasuna izan zen nagusi domekako jardunaldian. Orain dela lau urte baino herritar gutxiagok eman du botoa eta abstentzioak gora egin du nabarmen, 6,53 puntu.

EH Bildu izan da indar bozkatuena Antzuolan, botoen erdia baino gehiago eskuratuta -%51,39-. 2016ko hauteskundeetan botoen %48,76 eskuratu zuen EH Bilduk, eta oraingoan, emaitzak hobetu egin ditu. Bigarren indarra EAJ izan da, botoen %34,32 eskuratuta, eta jeltzaleek ere hobetu egin dituzte 2016an lortutako emaitzak -botoen %30,40 lortu zuten-.

Hirugarren indar bozkatuena PSE-EE izan da, botoen %6,86 eskuratuta, eta sozialistek Elkarrekin-Podemos gaituzte, aurreko hauteskundeetan alderdi morea izan zen-eta hirugarren indar bozkatuena. Moreek botoen %3,9 lortu dute -2016an botoen ia %10 lortu zuten-.

PP eta Ciudadanos alderdiek osatzen duten koalizioak 15 boto eskuratu ditu Antzuolan -bien artean 37 lortu zituzten 2016ko hauteskundeetan-, eta EQUO-Berdeak izan da seigarren alderdi bozkatuena, 9 botorekin. Voxek 4 boto lortu ditu.

## Alderdien balorazioak


EH Bilduk balorazio positiboa egin du. Botoak galdu dituen arren boto portzentajea gora egin duela azpimarratu du. "Eskerrak eman nahi dizkiegu EH Bilduren proiektu politikoa babestu duten antzularrei. Justizia sozialean oinarrituriko Euskal Herri aske, euskaldun eta feminista eraikitzeke lanean

jarraitzeko babesa dira emaitzok, eta dei egin nahi diegu herritarrei, hauteskudeez harago, arloz arlo bide horretan antola daitezten", gaineratu dute.

Ildo beretik, EAJ pozik azaldu da boto eta portzentajeetan gora egin duelako Antzuolan. "Pozik

gaude boto bat gehiago jaso dugun arren tendentzia ikusten dugulako zein den. Antzuola biztanleria galtzen ari da, eta gure boto-emaileak nagusiak dira. Domekan, aldiz, ikusi dugu gazte jendeak ere botoa eman digula, eta oso pozik gaude".

## Emaitzak Antzuolan



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa Antzuolan

	2016	2020	Aldea
	Abstentzia: %26,1	Abstentzia: %32,63	Abstentzia: +6,53 puntu
<b>EH BILDU</b>	592	<b>554</b>	-38
	%48,76	<b>%51,39</b>	+2,63 puntu
<b>EAJ</b>	369	<b>370</b>	1
	%30,40	<b>%34,32</b>	+3,92 puntu
<b>PSE-EE</b>	75	<b>74</b>	-1
	%6,18	<b>%6,86</b>	+0,68 puntu
<b>ELKARREKIN</b>	118	<b>42</b>	-76
<b>PODEMOS-IU</b>	%9,72	<b>%3,90</b>	-5,82 puntu
<b>PP+C'S</b>	37	<b>15</b>	15
	%3,04	<b>%1,39</b>	-1,65 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>9</b>	9
	-	<b>%0,83</b>	+0,83 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>4</b>	4
	-	<b>%0,37</b>	+0,37 puntu
<b>AULKI ZURIAK</b>	-	<b>2</b>	2
	-	<b>%0,19</b>	+0,19 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.  
ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



Urgentziako ezohiko osoko bilkura. LARRAITZ ZEBERIO

## Agorrosin auziko helegitea luzatzea aho batez onartu dute

Udalak Bergarako 2020ko ordenantza fiskalen aurka egitea berretsi du urgentziako osoko bilkuran

## L.Z. / M.A. ANTZUOLA

Antzuolako udalbatzak urgentziako osoko bilkura egin du eta aho batez onartu dute Agorrosin auziko helegitea luzatzea. Uste dute ez dela justua antzularrek, eta baita elgetarrek ere, bergarrek baino %30 gehiago ordaintzea kirol instalazio hori erabiltzeagatik.

Izan ere, Bergarako 2019ko udal ordenantza fiskalen kontrako helegitea jarri zuen Antzuolako Udalak bere egunean Elgetako Udalarekin batera, eta 2020ko ordenantzetan aldaketarik egon ez dela ikusita helegite hori luzatzea erabaki dute orain bi udalek. "Politika hori ez dela aldatu ikusi dugu eta berriro ere horren kontra joateko epai bideak eskatzen diguna da ekinbide hori berrestea. Auzitegiak arrazoia emanez gero pisuzko tresnarekin eseriko ginateke berba egitera", argitu du

Antzuolako alkate Beñardo Kortabariak.

## Ebazpenik gabe

Agintaldi ezberdinetan hainbat negoziatio izan dira, baina auziak argibiderik gabe jarraitzen du. 2005ean Bergarako Udalak eta Aldundiak sinatuta akordio bat aipatzen dute Elgetako eta Antzuolako udalek eskaera argudiatzeko. "Hitzarmen horren arabera, Bergarako Udalarari ematen zitzaion 2.100.000 euroko dirulaguntza bat eta kopuru horretan zegoen Antzuolari eta Elgetari zegokion parte ere".

## Bergarako Udala, zain

Txanponaren beste aldean da Bergarako Udala. Gorka Artola alkateak azaldu du defizit bat dagoela zerbitzuan eta modu bat aurkitu beharko dela bergararrak ez diren erabiltzaileek ere aurre egiteko horri.

## Uda sasoirako brigadako peoia kontratatuko dute

Aldi baterako brigadako peoia kontratatuzko deialdia egin du Antzuolako Udalak, eta gaur, uztailak 17, interesa dutenek eskaerak aurkezteko azken eguna dute. "Deialdi honen xedea aldi baterako brigadako peoi bat kontratatzea da, urtean zehar sortzen den lan-karga handia delako, eta udal langileen operaldiak zein osasun-gorabehe-

rek sortzen dituzten zerbitzuaren hutsuneak bete gura dira", adierazi du Udalak.

Aldi berean, baldintza guztiak bete eta probak gainditzen dituzten hautagaiek peoien lanpostua osatuko dute. Lanposturako izendatua, aldiz, puntuazio altuena lortzen duen izen-gaia izango da.

Eskaera orria, baldintzak eta lanpostuak beregan dakartzen betebeharrak Antzuolako Udalen webgunean jaso daitezke: [www.antzuela.eus](http://www.antzuela.eus).





Edurne Iturbe alardeko kapitaina eta Lander Dominguez buruzagia kanoiarekin plazan. AITOR AGIRIANO

## Kanoien sutzeak alardea gogoan izango du bihar

Herriko jai nagusietan murgilduta beharko lukete egunotan antzularrek. Baina, COVID-19ak dena hankaz gora jarri duen honetan, aurten ez da ospakizunik izango. Hala ere, aho zaporea goxatze aldera, uda sasoiko kultura agenda prestatu dute

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Jai eta Kultura Batzordeak eta Udalak elkarlanean uda sasoirako egitaraua kalera-tu dute. Joan den astean *Erradikalak ginen* ikuskizun musikatuak kultura egitarauari hasiera eman bazion ere, aste-buru honetarako ekintza gehiago prestatu dituzte. Antzularrek jaietan murgilduta egon behar luketen honetan, bihar, kanoiak sutuko dituzte, ohiko alardea gogoan izan dezan herriak.

### 'Uda kulturaldia', prest

Bihar, 10:00etan, txistularien goiz-eresia izango da eta kanoiak sutuko dituzte Herriko Plazan. 11:00etan, Bergarako bandaren kalejira izango da. Arratsaldeko zazpietan berriro sutuko dituzte kanoiak eta patioan kontzertuei ekingo zaie. Liv Wallace bakarlari antzularrak emango die hasiera. Ondoren, Ruper Ordorika eta Mugalaris taldearen txanda izango da -sarrerak 10, euro; ikasleendako, 5-.

Domekarako, Arrolak mugarriz mugarri mendi irteera antolatuko du, 09:00etarako. 12:30ean, aldiz, *Pronoia* ikuskizuna izango da Virginia Imazekin patioan. Erretiratuendako salda eta pintxoak izango dira patioan. 17:00etan, berriz, gaztetxoendako mimo ikuskizuna.

Uztailaren 25erako, *Lau eme* dantza emanaldia antolatu dute eta abuztuko egubakoitz gauetan zine emanaldiak izango dira.

### Zentzuz jokatzeko deia

Antolatutako ekintza eta emanaldietan maskara janztea derrigorra dela ohartarazi du Udalak. Esan gabe doa eskuak sarri garbitzea eta distantziak mantentzea ezinbestekoak izan-

**KULTURA EKINTZETARA JOATEKO, SARRERAK AURREZ ERRESERBATU BEHAR DIRA**

go direla. Ekintzetan osasun neurriak berma daitezzen, boluntario sarea eratu dute. Zentzuz eta arduraz jokatzeko eskaera egin die antzularrei Udalak; izan ere, COVID-19a ez dela desagertu ohartarazi du: "Elkar zaindu gaituzten, erabili maskarak kalean. Distantziak mantentzea eta eskuak maiz eta ondo garbitzea ere ezinbestekoak dira. Horrez gain, hondakinak ondo sailkatzea eta garbi jokatzea norbera, ingurukoak eta herria babesteko neurriak ere badira. Ekintzetan parte hartzeko, izena aurrez eman beharko da eta boluntarioen laguntzarekin kudeatuko dira ekintzak, gune seguruak eratuz".

Hala, ekintzetara joan ahal izateko, herritarrek sarrerak lortzeko 673 90 53 28 telefonora deitu edo mezua bidali beharko dute aurrez. Liburutegira ere jo daiteke (09:00-13:00). Beste aukera bat da sarrerak *laburus/sarrerakantzuela* helbidean eskuratzea.

## Pediatria zerbitzua irailean itzuliko da anbulatoriora

Dena ondo bidean eta koronabirusaren egoerak oztopatzen ez badu, astero jasoko da zerbitzua

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak jakinarazi du pediatria zerbitzua "dena ondo bidean" irailean bueltatuko dela herriko anbulatoriora.

Izan ere, COVID-19 gaitzak eraginda, martxoan ezkerro etenda dago, eta zerbitzua berriro ere itzuliko ote zen kezka eta ardura zegoen antzularren artean. Hala, zurrumuruak zurrumuru, pediatria zerbitzua irailean berriro abian jartzeko asmoa egon badago. Betiere, irailean izango den egoerak baldintzatuta.

"Azken urteotan, anbulatorioan astero izan da pediatria-zerbitzua. Koronabirusaren krisia hasi zenetik, ordea, ez da zerbitzurik egon. Zerbitzua bertan behera gera zitekeen zurrumurua azaldu denez, Udala harremanetan dago Debagoieneko osasun arduradunekin. Azkenean, garbi esan digute egoera ez bada okertzen irailetik aurrera pediatria berriro lehengora itzuliko dela eta zerbitzua astero jasoko dutela herritarrek Antzuolako anbulatorioan", azaldu du Beñardo Kortabarriak.

## Landatxope itxi egin dute, bazkideek ez dutelako erabiltzen

Irailean erabakiko dute elkarte berriro ireki edo ez, COVID-19aren bilakaera kontuan hartuta

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eta Landatxoeko Zuzendaritza Batzordeak erretiratuen egoitza ixtea erabaki dute. Izan ere, jarritako osasun neurri eta baldintzengatik elkarteko erabilera zeharo mugatua zegoen, eta bazkideek aisialdiaz egoitzatik kanpo gozatzeko hautua egin dute.

Hamabost egunez proba egin dute eta elkarte irekita egon da. Arratsaldero-arratsaldero, osasun neurri zorrotzak direla eta, bi batzordekide txandatu dira bertan osasun neurriak

berma zitezten. Baina beldurra nahiz aisialdiaz kalean gozatzeko hautua izaki, bazkideek ez dute gura izan elkartera joan. "Egoera baloratu ostean, egoitza berriro ixteko erabakia hartu dugu eta uztailaren 13tik ezin da erabili. Irailean, COVID-19aren portaera kontuan hartuta eta, betiere, bazkideen osasuna lehene-sita, elkarrekin hartuko ditugu erabakiak. Bien bitartean, arduraz jokatzeko eta nork bere burua eta ingurukoena zaintzeko eskatzen diegu, bereziki, herriko erretiratuei".

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Ostatuko Faustino eta Balbina, Panaderokuako Abelina eta Zeletaneko Hilari eta Patxi Gipuzkoako ostalarien bazkari batean. A.S.

# Taberna ugari izan ditu Elgetak

Tabernarekin batera zegoen askotan janari denda, harategia edo kinkila denda. Beste garai batzuk ziren, eta beste aisialdi bat. Egun bereziak ere izaten ziren, eta, Asentzión edo Kanpanzarren barra jarri behar bazen, trasteak gurdian hartu eta han izaten ziren

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA Herri txikia izanagatik tabernarik eta jatetxerik ez da sekula falta izan Elgetan. Aurreko belaunaldien ostalaritza estiloa gertutik ezagutu dute Ostatu tabernako alaba Arantxa Aretxagak eta Panaderokuako Ramon Ugaldek. Guria, Martintxo, Mantunekua, Lupiren bodega, Vazqueznekua, Bodega El Zamorano... "Ez dakit mila bat biztanleko herria izatera iritsiko ginen, baina pentsa zenbat taberna zeuden! Familia asko bizi ginen, orduan, ostalaritzatik", azaltzen du Aretxagak.

Gogoan dute garagardoa Leon markakoa izaten zela, eta Bergararik ekartzen zutela. "Ardoa, berriz, hasieran Gasteiztik ekartzen genuen, Diaz Hermanos etxetik. Gero, Bergararik", dio Aretxagak. Banatzaileek herriko mutil koskorrekin izaten

zizuten komeriak ditu gogoan Ugaldek: "Bi pertsona etortzen ziren banaketa egitera; izan ere, ezin zuten kamioia bakarrik utzi. Apur bat despistatuz gero, ume ginenok edariak lapurtzen genizkien kamioitik. Beste garai batzuk ziren!".

Orain baino errazio handiagoak izaten zirela uste du Aretxagak, eta jakiak ere bestelakoak zirela. "Gisatua, tripakiak, txerrihankak... barruki asko izaten ziren. Ehiza ere bai. Txoriak ekartzen zizkiguten prestatzeko".

Itxiera herriko aguazilak ematen zuten. "Kanturako zaletasun

**HERRI TXIKIA  
IZANAGATIK  
ELGETAKO FAMILIA  
ASKO BIZI ZIREN  
OSTALARITZATIK**

handia zegoen, eta 23:00etatik aurrera ezin zen abestu. Ordu horretan izaten zen aguazilaren lehen abisua, isiltzeko", dio Ugaldek. Gauerdian itzultzen zela azaltzen du Aretxagak, irribarrez. "Txalo jotzen zuen itxeko agindua emateko, eta esan beharra dago batzuetan kosta egiten zitzaioela txaloak jotzea, bera ere nahiko beteta etortzen zelako".

## Makina bat lan sukaldeetan

Makina bat lan egindako ostalariak dituzte biek gogoan, emakumeak asko. "Guria tabernak lau bat mahai izango zituen. Oso txikia zen. Sukaldea ere eskailerapean zeukan", dio Aretxagak. "Zenbat lan egin ote du hor Olivak!". Martintxo erreferentziatzeko ostalari zen herrian. "Handiena izango zen, taberna eta denda zituen". Ulazia ahizpek eramaten zuten. "Sukaldari oso

## Taberna, lantoki eta bizileku



Faustino eta Juan Andres Aretxaga bezero birekin Ostatu atarian. A. SENDIA

**Bezeroekin** Pasoko lekua zen Elgeta, eta Bergarako eta, batez ere, Eibarko bezero asko izaten ziren. Ostatu atarian ateratako argazkia da honako hau, 1967ko uztailekoa.



Elgetako *Gezurtiak* kuadrilla, afaldu ostean, kantuan. ARETXAGA SENDIA

**Kantuan** Otordu baten ostean kantuan egiten zen. Gitarrajolearen laguntzarekin dihardute Alkortak, Gallastegik, Juaristik, Agirreazaldegik, Basaurik eta Vazquezek, 1968ko martxoan.

onak ziren eta neska asko etortzen ziren bertara sukaldean ikastera. Athletic taldeko jokalariek, Kas taldeko ziklistak, udatiarrak, ezkontzak... denetik egoten zen hor", gogoratzen dute biek. "Izeba Nati, Zeletaneko Hilari eta Martintxoneko Maria hirurak ziren sukaldariak, eta hirurak onak. Lagun min-minak ziren, gainera. Izebak esaten zuen onena Martintxoneko Maria zela, eta hura baino hobea Hilari. Pentsa!", dio Aretxagak. Ostatuk harategia eta jatetxea zituen hasieran. "Panaderokuan ere oso ondo ematen zuten jaten.

**NEGOZIO BAT BAINO  
GEHIAGOKO  
ESTABLEZIMENDUAK  
ZIREN, ETA URTEETAKO  
ESKARMENTUAREKIN**

Makina bat lan egin dute hor ere!". Beste estilo batekoak ziren Lupiren bodega eta Torrealdean zegoen Bodega El Zamorano. Erdal hiztunak elkartzen ziren gehiago eta olibak, tipulak, antxoak, pepinoak, sardinak... ematen zituzten. "Zamoratik tintetan ekarritako ardoa izaten zuten. Hor edan genituen guk lehenengo Fanta laranja eta halakoak", dio Ugaldek. "Gogoan dut gaseosa ere izaten zutela".

Negozio bat baino gehiagoko establezimenduak izaten ziren asko. Mantunekua, esaterako, taberna kokkorra eta janari denda txikia zen. "Vazqueznekua oso berezia zen. Ardoa, erremintak, fruta, pilak, saguendako tranpak... Zer ez zegoen hor zintzilik! Eta dena garbi-garbi, beti", dio Aretxagak. "Jaten eta edaten ere ematen zuten", gogoratzen du Ugaldek.





# EH Bildu gailendu da, 109 botoko aldearekin

Elgetan EH Bildu izan da alderdi bozkatuena, botoen %53,18 eskuratuta. EAJ izan da bigarren indarra, eta 2016ko hauteskondeekin alderatuta botoak galdu ditu. Parte-hartzeak behera egin du, eta, horrenbestez, abstentzioak ia lau puntu gora

**Maialen Santos** ELGETA

EH Bildu izan da indar bozkatuena Elgetan; izan ere, botoen %53,18 eskuratu ditu. Azken Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan lortutako emaitzak hobetu egin ditu alderdiak, 2016an botoen %46,28 eskuratu zituen eta. Beraz, ia zazpi puntu egin du gora. Horren harira, balorazio "oso positiboa" egin du Elgetako EH Bilduk: "Marka itzela da, Gobernuia uztailean eta pandemia baten erdian hauteskundeak deitzera tematu denean, eta horrek abstentziorako joera indartu duenean. Beste behin, ezkertiar subiranisten aldeko apustua izan da gurean indartuta atera dena". Horretaz gain, adierazi dute herritarrek "aldaketaren alde" egin dutela: "Pertsonak erdigunera ekarriko dituzten politikak aukeratu dituzte, bizitza duin eta justuago baten alde azaldu dira".


EAJk, bestalde, botoetan behera egin du, jeltzaleek 200 bozka eskuratu dituzte eta, 2016an baino 27 gutxiago. Aintzane Oiarbide zinegotziak EAJrengan jarritako konfiantza eskertu gura izan du: "Iñigo Urkulluk 8 urtean gehiengo osorik gabe gobernatu du; gainera, legealdi bukaera oso zaila eta korapilatsua izan da kudeaketarako. Hala ere, euskaldun gehienek aurrera begira datozen pandemia kudeatzeko, pertsonen ongizatea bermatzeko eta lanpostuei eusteko, Urkulluren eta EAJren aldeko hautua egin dute". Gaineratu du aurrerantzean ere Iñigo Urkullu izango dela lehendakaria, baina lehen baino "babe" eta "indar" handiagoarekin oraingoan.

Hirugarren indarra Elkarrekin-Podemos izan da, 33 botorekin, eta alderdi moreak dezente egin du behera botoetan, 2016an 58 boto eskuratu baitzituen.

Laugarren indarra EQUO-Berdeak izan da, 11 botorekin, eta PP-Ciudadanos eta PSE-EEK 8na boto eskuratu dituzte. Azken bi alderdiek behera egin dute, sozialistek 21 boto eskuratu zituztelako eta PPK eta Ciudadanosek, bien artean, 13.

Parte-hartzeak behera egin du 2016ko datuekin alderatuta, eta, horrenbestez, abstentzioak ia lau puntu egin du gora, %28,44tik %31,93ra. Oiarbidek uste du bailaran izandako abstentzio "handiak" ez diola EAJri "mesederik egin".

## Emaitzak Elgetan



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Boto-konparaketa Elgetan

	2016 Abstentzioa: %28,44	2020 Abstentzioa: %31,93	Aldea Abstentzioa: +3,49
<b>EH BILDU</b>	286 %46,28	309 %53,18	23 +6,9 puntu
<b>EAJ</b>	227 %36,73	200 %34,42	-27 -2,31 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	58 %9,39	33 %5,68	-25 -3,71 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	11 %1,89	11 +1,89 puntu
<b>PP+C'S</b>	13 %2,10	8 %1,38	-5 -0,72 puntu
<b>PSE-EE</b>	21 %3,40	8 %1,38	-13 -2,02 puntu
<b>VOX</b>	-	4 %0,69	4 +0,69 puntu

• 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
• 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
• 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.  
ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Haurrei zuzendutako 'Plaza irrintzika' saioa izango da gaur

Hiru barikutan ikuskizun bana egingo dute. Gaur, gorputza eta ahotsa berotzeko saioa eskainiko dute

**M.S. ELGETA**

4 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoentzako ikuskizuna 19:00etan hasiko da, eta Espaloian egingo dute. Bertsozale Elkarrearen Lanku egitasmoaren proposamena da *Plaza irrintzika*, eta, berbena formatua bazuen ere, egoera berrira moldatutako ikuskizuna da orain. Gorputza eta ahotsa berotzeko jolasak, onomatopeien asmakizun antzeztuak, kanta parte-hartzaileak, bertsoak, dantza ezagunak... egingo dituzte. Saioa doakoa izango da, baina edukiera mu-

gatu egingo dute, segurtasun distantziak errespetatu daitezken. Gainera, sartu aurretik eskuak gelaz garbitu beharko dira, eta saioak irauten duen bitartean musukoa jarrita eduki.

Joan den egubakoitzean, *Errimak bi oinetan* ikuskizuna eskaini zuten; garai bateko eta gaur egungo bertsoekin eta doinuekin osatutakoa. Azkenik, datorren egubakoitzean, hilak 24, Dama Beltzak taldearen kontzertua izango da, Estitxu Pinatxoren eta Mikel Santxezen eskutik. Ordu eta leku berean izango da.

## Euskaltelen kable bitartez ikus daiteke Goiena telebista

Euskaltel Elgetan zerbitzua eskaintzen hasi dela eta, kable bitartez Goiena telebista ikus daiteke herrian. Tokiko telebistek 11. kanala hartu ohi dute, baina Euskalteletik adierazi dute Telefonicarearen sarea erabiltzen dutela Elgetan; eta, horrenbestez, 933 kanalean dago Goiena telebista. LTD bidez ere ikusi daiteke, bestalde.

## XVI. mendeko elizako erretaula ezagutzeko bisita egingo dute

Ezkutuko Altxorrek egitarauari jarraituta, XVI. mendeko Elgeta ezagutzeko bisita gidatua egingo dute bihar, zapatua, 12:00etan. Hain justu, garai hartako elizako erretaula ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek. Joan nahi duenak aurrez egin beharko du erreserba, 943 71 89 11 telefonora deituta, gaurko 18:00ak baino lehen.



LARRAITZ ZEBERIO

## Banangoa dantzatzeko ikasi dute

Udako dantza-ikastaroa burutu berri du herritar talde batek, Patxi Montero elgetarraren gidaritzapean. Uztailaren 6an hasita, ordu eta erdiko bost saio egin dituzte, eta banangoa Durangaldeko eran dantzatzeko ikasteko aukera izan dute. Hori ez ezik, jauziak, fandangoa eta arin-arina nola egin ere aritu dira ikasten. Edozelan ere, segurtasun neurriak hartu dituzte.



Usakon bi ume hankak bustitzen. O.E.

## Belardian txandak eta putzua mugatuta Usakon

Ur putzuan 30 pertsona bainatu ahal izango dira aldiro eta inguruko eremuan hamabostekoa da edukiera. Goiko belardian bi txanda egongo dira arratsaldeetan, gaurtik hasita. Ibilgailuendako aparkalekuak Munazategira eta hilerri ondora bideratu dituzte

### Oihana Elortza OÑATI

Usakora ere heldu da prebentzio plana eta gaur, egubakoitza, aplikatuko dute hirugarren neurria: bi txanda egongo dira belardia erabiltzeko: 15:00etatik 17:45era lehena eta 18:15etik 21:00etara bigarrena. Aste honetatik aurrera, putzuan egon daitekeen pertsona kopurua ere mugatuta dago; 30 pertsonako edukiera du. Jende asko batuz gero, hamar minutuko txandak egingo dituzte uretan egoteko.

### Ur eremuan hamabost lagun

Usakon ere ez da ohiko uda izango aurtengoa. Udalak prebentzio neurriak hartu ditu bainu eremu horretan ere. "Jende asko ez pilatzea da gura dena. Osasun krisiak eraginda, ezin daiteke betiko moduko zerbitzua eskaini. Hori argi izan dugu hasieratik, eta, besteren artean, sorosle gehiago, osasun prebentziorako neurri bereziak... jarri ditugu. Dena den, uste baino jende gehiago dabilenez, beste-

lako neurriak hartu beharrean gaude", azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak.

Neurrietako bat izan da ur putzuan edukiera jartzea. Aste honetan hasi dira hori kontrolatzen. "Egia esan, aste honetan ez du aparteko berorik egin eta jende askorik ere ez da ibili. Astebururako beroa iragarri dute eta hori izango da neurri horren benetako proba. Jende asko elkartzen bada, 30na sartuko dira, hamar minutu talde bakoitza. Besteek zain egon beharko dute kanpoan. Ondoko eremuan, berriz, hamabost pertsona egon ahal izango dira aldiro", dio Joseba Erañak, sorosleen arduradunak. Gune horretan ezingo dira toallak jarri, ezta egonaldi luzerik egin

**JENDE ASKO  
DAGOENEAN, HAMAR  
MINUTUKO TXANDAK  
EGINGO DITUZTE  
URTEAN EGOTEKO**

ere. Sorosleak arduratuko dira hori betearazten.

Hain zuzen ere, sorosleak ur eremuaz arduratuko dira eta bi udaltzain laguntzaile kontratatu dira belardia zaintzeko. Ordutegia ere luzatu egin da aurren: 15:00etatik 21:00etara; 16:00etatik 20:00etara bi sorosle egongo dira. Belardian txanden ordutegia errespetatu beharko da eta asteburuetan 14:00etarako libre utzi beharko da, lehen txandakoak sartzeko; langile bat gehiago ere egongo da asteburuetan. Eguen arratsaldean zuten bilera belardia nola antolatu zehazteko.

### Aparkalekuak

Bestalde, Usako sarreran eta inguruan ezingo da aparkatu. Udalak hilerri ondoko eta Munazategiko aparkalekuak erabiltzeko kartelak jarri ditu. Alkateak gaineratu du aparkatzeko neurri horiek hartzeko kontuan hartu dituztela auzotarren eta herritarren esanak.



Martitzenean plazan egindako elkarretaratzea. MAIALEN REGUEIRO

## Eraso matxista salatzen elkarretaratzea egin dute astean

Udalak, Aldundiak eta Sare Feministak gaitzetsi egin dute joan den astean herrian izandako eraso sexista

### O.E. OÑATI

Oñatiko Sare Feministak deituta, joan den asteburuan gertatutako eraso matxista salatzen elkarretaratzea egin zuten herriko plazan martitzenean. Erasoa hura kasu isolatua ez dela adierazi zuten: "Eta horren aurrean gaitzespen osoa azaltzen dugu". Publiko egiten ez diren beste hainbat kasu ere izan zituzten gogoan. Aipatu zuten Oñatiko Gizarte Zerbitzuek 2020an bost kasu berri atzeman dituztela eta "salatzen ez diren kasu gehiago" egongo direla. Matxismoa "gure gizartean erro-

tuta" dagoela eta identifikatzeko eta salatzen "izugarritzko lana" dagoela ere esan zuten Sare Feministako ordezkariak, eta bide hori lantzeko, gainera, feminismoaren beharra berretsi zuten, eta "etengabeko lanketa" dela aitortu. Babesa eta elkartasuna erakutsi nahi izan zieten horrelako erasoak jasaten dituzten emakumeei, eta bakarrik ez daudela gogorarazi.

Urruntze agindua hausteagatik eta bikotekide ohiari eta alabari lesioak eragiteagatik atxilotu eta espetxeratu egin dute 44 urteko oñatiarra.



NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE

### Hausnarka

Kosta ahala kosta egin beharreko hauteskundeak pasatu dira. Nonbait, batzuentzako erabateko lehenetsua zuen. Logikoa? Beharrezkoa? Interesen arabera?... Egin dira eta kito. Eta orain zer? Zer aldatu da? Euskaraz gehiago, gehiagorekin, gehiagotan. Horixe aurtengorako Euskaraldiak zehaztutako helburua. Iradokitzailea, erronka argia eta euskaraz bizi nahi dugunontzat behar-beharrezkoa. Izango gara arigune?

Bertako produktuak, bertako komertzioak, gertukoak, 0 kilometrokoak... Ados. Euskara ere bertakoa da, ez dago euskara baina bertakoagorik. Euskara hemengoa da eta hemengoa bakarrik. Guk erabiltzen ez badugu, nork erabiliko du? Nork bere burua animatzea behar-beharrezkoa da, are gehiago egoera zailetan. COVID-19ak sortutako egoerak, batzuen ustez, indartu egingo omen gaitu. Gizarte berdina erakitzeko baliatuko omen dugu izurrite hau. Non daude horren zantzuak? *Izan bidea, ibiltarien sarea* Sare herritarrak abian jarri duen dinamika. Etxerako bidea egitea du helburu. Elkarbizitzarako bidea. Noiz arte presoen eskubide urraketak? Noiz konponbidea?





# EH Bildu garaile, botoen erdia baino gehiagorekin

EH Bilduren eta EAJren arteko diferentzia handitu egin da, alderdi bozkatuena izaten jarraitzen duten arren; botoen %52 lortu ditu koalizioak eta %37 alderdi jeltzaleak. Abstentzioa batez bestekoa baino txikiagoa izan da Oñatin: %35,77koa

## Oihana Elortza OÑATI

Hauteskunde bezperan orde, bi egun lehenago hasi ziren udal brigadako langileak hauteslekuak prestatzen, ezohiko egoerak agindutako neurriak betez: sarrera-irteerak bereizi, kartelak jarri, gelak eraman, mahaiak distantzia mantenduz jarri, gortinarik ez botoak egon ohi diren txokoetan... Lau eraikinetan egon ziren hauteslekuak eta sarreran herritarrek egon ziren tenperatura hartzen eta maskara jartzea eta eskuak gelarekin garbitzea beharrezkoa zela esanaz. Hauteskunde eguna bera,

domeka, egun lasaia izan zen, ez zen gorabeherarik egon.

## Batek gora eta besteak behera

Duela lau urte baino ia hiru puntu handiagoa izan zen abstentzioa, baina batez bestekoa baino txikiagoa: %35,77koa Oñatin -EAEn %47-. Postaz, berriz, aurrekoetan baino hiru aldiz gehiagok eman zuen botoa: %7,32.

Emaitzetan, hamabost mahaitatik hamaikatan EH Bilduk izan zituen boto gehien; beste lauretan EAJ izan zen bozkatuena. Bi alderdi horien arteko diferentzia, baina, handitu egin

da duela lau urtekoetik hona: gora egin du koalizioak eta behera alderdi jeltzaleak.

## Balorazioak

Egunaren balorazioa alderdiei eskatuta, EH Bilduko Izaro Elorzak adierazi du pozik dagoela:

"Eguna bera ondo joan zen. Eta emaitzei begira ere oso pozik: %16ko gorakada izan dugu Oñatin. Debagoieneko emaitzak ere onak dira. Legebiltzarrerakoak ziren, baina gauzak ondo egiten ari garen erakusgarri da emaitza, eta animoak ematen ditu horrek. Mila esker konfiantza eman diguzuen herritarrei".

Ainhoa Galdos ere, EAJko udal bozeramailea, pozik dago emaitzekin: "Hauteskundeak irabazi ditugu. Herritarrek euren babesa eman digute; eskerrik asko gure aldeko botoa eman duzuenoi. Bailaran, abstentzioak ez dio mesederik egin EAJri, eta EH Bilduk emaitza onak lortu ditu. Oñatin, uste dut Elkarrekin-Podemoseko botoak hartu dituela EH Bilduk".

## 'Bertatik bertara' dioten mahai-zapiak jatetxeetan

Uemak aurtengo udarako bultzatu duen kanpainarekin bat egin du Oñatiko Udalak

## O.E. OÑATI

Uemak antolatu duen *Bertatik bertara* kanpainan, udalekin eta zerbitzu sektoreko eragileekin batera, herritarrek eta bisitariak sentsibilizatzeko ekimena jarri gura dute martxan, eta Oñatiko Udalak bat egin du egitasmo honekin.

Aurtengo udan barneko turismo indartuko dela baliatuta, ekimen honekin bisitarien zein herritarren artean euskara sustatu gura da: "Ikusarazi eta gogorarazi nahi dugu herriak erakusteko dituen altxor guztiez gain euskara ere baduela; gure beste ondare bat da hori ere", dio Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako teknikariak, Ikerne Altubek.

Oñatiko Udalak paperezko 10.000 mantel banatu gura ditu *Bertatik bertara* kanpainarekin bat egiten duten herriko tabernetan eta jatetxeetan. Horietan, euskarazko oinarritzko hitz eta esamoldeak egongo dira, bost hizkuntzataraz itzulita. Ostalariek egin beharko dute eskaera, eta, horretarako, 943 71 88 08 telefonora dei dezakete, edo [ialtube@onati.eus](mailto:ialtube@onati.eus) helbidera mezua idatzi. Oñatiko Turismo eta Euskara sailek elkarrekin egindako proposamena da.


## Boto-konparaketa Oñatin

	2016 Abstentzioa: %00,00	2020 Abstentzioa: %35,77	Aldea Abstentzioa: %00,00
<b>EH BILDU</b>	2.554 %43,31	<b>2.962</b> <b>%52,31</b>	408 +10 puntu
<b>EAJ</b>	2.349 %39,83	<b>2.115</b> <b>%37,35</b>	-234 -2,48 puntu
<b>PSE-EE</b>	208 %3,53	<b>217</b> <b>%3,83</b>	9 +0,3 puntu
<b>ELKARREKIN PODEMOS-IU</b>	553 %9,38	<b>186</b> <b>%3,29</b>	-367 -6,09 puntu
<b>PP+C'S</b>	165 %2,79	<b>78</b> <b>%1,78</b>	-87 -1,01 puntu
<b>EQUO BERDEAK</b>	-	<b>39</b> <b>%0,69</b>	39 +0,69 puntu
<b>AULKI ZURIAK</b>	0 %0,00	<b>13</b> <b>%0,23</b>	13 +0,23 puntu
<b>VOX</b>	-	<b>10</b> <b>%0,18</b>	+10 +0,18 puntu

\* 2016AN, PP ETA CIUDADANOS BANATUTA AURKEZTU ZIREN; TAULAN BIEN BOTOAK BATUTA DAUDE.  
\* 2016AN, EQUO-BERDEAK ELKARREKIN PODEMOS KOALIZIOAREN BARRUAN AURKEZTU ZEN.  
\* 2016AN, VOX EZ ZEN AURKEZTU GIPUZKOAN.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

## Emaitzak Oñatin



ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

**ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLKULARITZA**

**ABOKATUAK**

**KONTU IKUSKARIAK**

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • [onati@gualbiasesores.com](mailto:onati@gualbiasesores.com) • [www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# "Momentu batzuetan terapia ere egin dugu"

**JOXEFE DIAZ DE TUESTA** 'OÑATIKO EMAKUMEAK' LIBURUAREN EGILEA

Liburuaren bigarren edizioa atera berri du argazkilaria, eta herriko hiru tokitan dago salgai: Txokolateixan eta Natxo Santos eta Nagore Goñi argazkilarien estudioetan

**Maialen Santos** OÑATI

Joxefe Diaz de Tuestak *Oñatiko emakumeak* izeneko liburua argitaratu du. Argazkilaritza ikastaro batean otu zitzaion proiektua egiteko ideia, eta "pozik" dago emaitzarekin. Liburua baino gehiago, "esperientzia" izan da aberasgarria.

**Nola otu zitzaizun, zehazki, ideia?** Argazkigintza ikastaro bat egin nengilena, Gasteizen, eta horri amaiera emateko proiektu bat egiteko aukera suertatu zitzaigun. Nik emakumei buruzko proiektu bat egitea aukeratu nuen; emakumeen genero berdintasunari buruzkoa.

**Nola aukeratu dituzu emakumeak?** Gura nuen emakumeak gertukoak izan zitezen; herrikoak, eta, batez ere, emakume soilak –marka politikorik gabekoak–. Beraiei hitza eman eta euren balioak balioan jarri gura nituen. Horretarako, euren egindako argazkiak eta euren hitzak bateratu ditut. Emakume moduan barruan daramatena argitara atera, nolabait.

**Emakumeak familiak elkarrizketatu dituzu...**

Hasieran, banaka egiteko asmoa nuen, baina gero, pentsatu nuen ideia ona izan zitekeela familia bakoitzeko hiruzpalau protagonistak hartzea, belaunaldi ezberdinetakoak. 11 familia islatu ditut liburuan –35 emakume–; aberasgarria izan da.

**Nolako izan da eurekin hartu-eman?**

Oso prozesu polita izan da eurekin egotea. Hitz egiten hasi bezain pronto kontatzen zidaten euren bizitza, emakume diren aldetik. Momentu batzuetan terapia egitera ere iritsi gara. Bakoitzak bere kontuak kontatzen zituen; baita nik ere. Eta askotan, hunkitu egin naute euren hitzek. Ez hori bakarrik: gazteek euren amonei buruzko gauza asko jakin dituzte bilera horiei esker.



Joxefe Diaz de Tuesta. MARTA LETURIA

## "ABERASGARRIA IZAN DA BELAUNALDI EZBERDINETAKO EMAKUMEEN BIZIPENAK JASOTZEA"

**Noiz hasi zinen lan honetan?**

2018ko udazken inguruan. Emakumeekin beranduago egon nintzen. Jakina, aurretik lan-keta bat egin behar izan nuen, lana nola egingo nuen zehaztu ahal izateko. Liburuaren lehen edizioa iaz azaroan atera nuen.

**Argazkiak non atera dituzu?**

Arantzazun atera genituen; Gandiaga Topagunean, zehazki. Hori iruditu zitzaidan leku egokia. Zuri-beltzean daude guztiak.

**Liburua bera nola sortu duzu?**

Esango nuke liburuak izan duen arrakastan garrantzi handia izan duela koadernaketak eta diseinuak. Horren harira, esan beharra daukat Nahikari Morak egin duela diseinua eta Zigor Anguianok, aldiz, koadernaketa. Eskuz egin dute guztia, eta izugarritzko lana egin dute. Liburua asko gustatzen zait estetikoki zein fisikoki.

**Eta barruan zer aurkitu daiteke?**

Kanpoko ez ezik, barrukoa ere garrantzitsua da, jakina. Emakumeen argazkiak eta hitzak aurki ditzake irakurleak; eta ez hori bakarrik, emakumeen eta nire artean sortutako giroa ere islatzen dela esango nuke.

**Lehen edizioa erraz agortu zen...**

Egia esan, bai. 60 ale bakarrik atera nituen lehen edizioan. Gehienbat, familiek hartu zituzten liburuak, eta gero, inguruko jendeak, pertsonalki eskatu zidatenek. Ia-ia ez nuen saldu beharrik izan, jendea etorri baitzitzaidan eskatzera.

**Zein harrera egin diote protagonistek?**

Oraindik ez dakit, baina ona izan dadin espero dut. Bigarren edizioa ekain amaieran iritsi zait, eta, beraz, salmentek euren kabuz hitz egingo dute.

**Zein asmo duzu, bada?**

Orain artean, liburua ezin izan da dendetan eskuratu. Oraingoan, baina, 100 ale jarriko ditut salgai herriko hiru toki ezberdinetan: Txokolateixan, Natxo Santos argazki-dendan eta Nagore Goñi argazkilaria-aren estudioan. Salmenta prezioa, bestalde, 35 euro izango da.



Maialen Lujanbio bertsolaria, Oñatin egindako bertso saio batean. GOIENA

## Puntako bertso saioa egingo dute domekan Lazarragan

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu arituko dira. Ekitaldi gehiago egongo dira asteburuan

**M.S. OÑATI**

Udalak udara begira antolatutako *ESKU-LTU-RA Kultura Eskura* programaren baitan, puntako hiru bertsolari saioa eskainiko dute domeka honetan Lazarragako lorategian. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Agin Laburu izango dira bertsoan arituko direnak, eta, bestalde, Amaia Agirre izango da gai-jartzailea. 19:00etan hasiko dute bertso-saioa, eta joan nahi duenak aurrez hartu beharko du sarrera –doakoa izango da– Txokolateixan edota udal webgunearen bitartez. Edukiera mugatu egingo dute, segurtasun neurriak errespetatu daitezela.

**Ekitaldi gehiago**

Herritarren gozamenarako, kultura ekitaldi gehiago ere antolatuko dituzte asteburura begira.

Gaur, 19:00etan Ainhoa Larrañaga eta bere bandak kon-

zertua eskainiko dute Lazarragako lorategian, baina hori ikusteko sarrerak dagoeneko agortu dira.

Bestalde, domeka goizean, Musika Bandaren kontzertua egongo da toki berean, eta horretarako sarrerak oraindik har daitezke ohiko tokietan. Bi emanaldi hauek ere doakoak izango dira, baina, segurtasunagatik, edukiera mugatu egingo du Udalak.

**Dama Beltzak ere bai**

Datorren egunean, uztailak 23, Dama Beltzak proiektuaren baitan emanaldia eskainiko dute Estitxu Pinatxok eta Mikel Santxezek, iraultza eta borroka egin zuten bost emakume beltzi aitortza xumea egiteko asmoz. Joan den astean ziren egitekoak kontzertu hori, baina "egoerak behartuta" Udalak atzeratu egin behar izan zuen.

## 'Gazteak gaztetxetik' saioa egingo dute gaur arratsaldean

Konfinamenduak iraun duen bitartean etxetik eta *streaming* bidez emanaldiak eskaini dituzte herriko musikariek, *Gazteak etxetik* ekimenaren baitan. Orain, baina, *Gazteak gaztetxetik* saioak ari dira aurrera eramaten, egubakoitzetan. Gaur, 20:00etan hasita, Julen Murua eta Sukena hasita, Julen Murua eta Sukena bikotea eta Jone eta Alex Markuleta arituko dira kantuan.

## Jon Basaguren ikatz tabernako terrazan arituko da, domekan

Jon Basaguren musikariak emanaldia eskainiko du asteburuan. Ikatz tabernako terrazan arituko da domekan, bakarlarik, eta 19:30ean hasiko da kontzertua. Izaki Gardenak taldeko abeslaria da Basaguren, eta *Dena osko* izeneko diskoa da kaleratu duten azkena. Horretaz gain, Euskadi Irratiko *Zidorrean* irratsaioa esataria ere bada.



# Aizkorrra iritsiko da Urmuga astelehenean

Uztailaren 14an hasi zuten mendi zeharkaldia, eta Aizkorrrin egingo dute hirugarren geldialdia, datorren astelehenean. Musikariak Urbian arituko dira, halere. Bailaran egingo duten geldialdi bakarria izango da, eta parte hartzeko izena eman daiteke

## Maialen Santos OÑATI

Mendia eta kultura uztartu gura dituen Urmuga ekimena ari dira aurrera eramaten egunotan, eta euskal naziotasuna oinez eta kantuz aldarrikatzea da helburua. Mendi ibilaldien bitartez Euskal Herria osoa zeharkatu gura dute. Hain zuzen, uztailaren 14an abiatu zuten zeharkaldia, Angulo Bortun (Salvada mendilerroa, Araba) eta, dena ondo bidean, abuztuaren 1ean borobilduko dute, Hiru Erregeen Mahaiaren gailurrean. Felipe Uriarte mendi-gidariak eta lantaldeak gidatuta, hemeretzi mendi ibilaldi egingo dituzte, guztira, eta Aizkorrrin egingo



Tologorri mendian egin zuten lehen geldialdia uztailaren 14an. URMUGA

dute hurrengo geldialdia; datorren astelehenean, hilak 20.

## Kontzertua, Urbian

Astelehenean, 07:00etan abiatuko da mendizale taldea Urbiatik; izan ere, bertako fondan pasako dute gaua. Migel Zeberio proiektuaren sustatzaileak azaldu duenez, Aizkorrra iristea izango da helburua; eta San Adriandik jaitsiko dira gero mendizaleak, Urbiara itzultzeko. "Hori da asmoa, baina eguraldiak ere eragingo du ordutegian", gaineratu du. Horren ostean, 16:00etan izango da musika emanaldia, Maddi Oihenart, Juantxo Zeberio eta Gorka Benitezen eskutik.

Sustatzaileak aitortu du orain artean "zoragarri" eta "jendarte politean" aritu direla mendiz mendi, eta oraingoan ere hala aritzea espero dutela: "Lehen mendian, Tologorri, 100 bat pertsona izan ginen emanaldia ikusten". Urmuga zeharkaldian parte hartu gura duenak 685 75 07 63 telefonora deitu edo [info@mendiaketaherriak.eus](mailto:info@mendiaketaherriak.eus) helbidera idatzi dezake. Zeharkaldi osoa zein ibilbide zehatz bat soilik egiteko eman daiteke izena.

## Izan Bidea ekimena jarraituta, Aloñara bizikletan igoko dira

Aloñara bizikletan joateko irteera antolatu dute biharko, zapatua, Sarek martxan jarri duen Izan Bidea ekimenaren barruan. Hori horrela, 10:00etan elkartuko dira plazan parte-hartzaileak Aloñara igotzeko; eta nor bere erritmoan igoko dela adierazi dute antolatzaileek. "Bizikletan igotzeko irteera bat da, baina herritar guztiak animatu gura ditugu oinez edo korrika izanda ere Aloñara igotzeko", diote deialdia egin dutenek. Asmoa da iritsitakoan, 12:30ean, talde argazkia ateratzea igo diren guztiek batera, tontorrean. Horren harira, zera adierazi dute: "Zenbat eta lagun gehiago elkartu, orduan eta lehenago egingo ditugu helburutzat jarrita dauzkagun 3.127.326 kilometroak". Hain zuzen ere, Euskal Herriko biztanleria gutia islatzen du kopuru horrek.

Errepresaliatuen etxeratzea, elkarbizitza eta bakearen alde bidea egitea da ekimen honen helburu nagusia.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conot.es](mailto:blasaga@conot.es)

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

#### ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

#### LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa  
Tel.: 636 89 92 11  
[larraitz.arkiestudioa@gmail.com](mailto:larraitz.arkiestudioa@gmail.com)

Eneko Azurmendi / Xabier Urzelai

ARETXABALETA

Euskal Herriko Oinez eta Hegan txapelketaren hirugarren edizioa egingo dute bihar, zapatua, Aretxabaletan. COVID-19aren pandemiak ez du aparteko eraginik kirol hitzordu hau antolatzeke orduan, irteera puntuan ez da eta jendetzarik batuko. Guztira, 22 lagunek eman dute izena –zenbatekoarekin oso pozik daude antolatzaileak–, eta, eguraldi iragarpenen arabera, bihar normaltasunarekin egin ahal izango dute proba. Izan ere, kirol jarduera horretan eguraldiak agintzen du.

**Ze itxura du zapatuko egunak?**

Eguraldia lagun izango dugula diote iragarpenek. Egunotan ipar haizea izan dugu, eta badirudi zapatuan ere ez dela aldaketarik egongo. Ez du euririk egingo eta baldintza egokiak izango dira. Kontua da hemen mendi-hegal bat dugula eta horrek asko laguntzen duela hegan egin ahal izateko, baina, Orkatzategira joan nahi badugu, edo ondoren Aretxabaleta aldera etorri, beharrezkoa da aktibitate termikoa izatea. Kontua da jakitea aktibitate termiko hori noiz hasiko den.

**Aktibitate termikoa...**

Aktibitate termikoa martxan jartzen da lurra berotzen hasten denean eta berotasun horrek haize korranteak sortzen dituen. Korrante horiek goranzkoak izaten dira, eta hegan gabiltzanean korrante horietaz baliatzen gara garaiera hartzeko. Hala, korrante horiek beharrezkoak ditugu zeharkaldiak egin ahal izateko.

**Izan ere, biharko lasterketan kontua ez da izango soilik Kurtzebarrira azkar igo eta ondoren jaistea.**

**Lasterketak badu mamia.**

Bai, estrategiatik ere badu asko. Hasteko, Kurtzebarrira igotzeko pilotu bakoitzak erabakiko du ze bide erabili. Goian sinadura kontrola egongo da, baina mendi tontorrera lehenengo igotzen denak ez du garaipena ziurtatuta izango. Izan ere, lehenengo igotzen denak ikusten badu aktibitate termikoa oraindik ez dela egokia, ezingo du askorik egin. Akaso, hobe izango da behetik gorako bidea lasaiago egitea eta ondoren aireko lanak ondo burutzea.

**Hegaldian ere pilotuek lan batzuk burutu beharko dituzte.**

# "Kurtzebarrin lehenengoak ez du garaipena ziurtatuta"

HARITZ OIANGUREN AMILLENA TALDEKO KIDEA

**PARAPENTEA** Bihar 22 pilotu abiatuko dira Aretxabaletatik Kurtzebarrira, parapentea bizkarrean daramatela. Urkulun lurreratuko dira, eta herrian amaituko dute proba



Haritz Oianguren, lasterketa hasiko duten puntuan, Ibarra. E.A.

Hala da. Behin aireratuta, pilotuek GPS bidez adierazita dauden puntu konkretu batzuetatik igaro beharko dute parapentearekin, antolatzaileek jarriko dituzten baliza horiek errespetatu egin behar dira, eta helmugara iristerakoan antolatzaileei GPS track-a emanda –osatutako ibilbidea– baieztatuko dute puntu horietatik guztietatik pasatu diren ala ez. Baliza horietatik pasa ez dena kanporatua izango da.

**Parapente pilotuek ze ibilbide bete beharko dute?**

Seguruenik, Aretxabaleta gaineraino etorri beharko dute hegan, eta baita Orkatzategi aldera joan ere. Lur hartzeko tokiak, berriz, Urkulu izango da. **Lasterketa ze ordutan hasiko duzuen erabakitzeke duzue oraindik.**

Bai; eguraldi iragarpenen arabera hartuko dugu erabakia, hori da halako probetako ezagarrietako bat, irteera ordua baldintzatuta egoten dela. Hasierako asmoa da 11:30ean hastea, baina goizean ez badugu baldintza egokirik arratsaldera atzera genezake irteera ordua.

[Goiena.eus atarian izango duzue behin betiko ordutegien berri]. **Eta ze leku izan daiteke egokia lasterkariak animatzeko?**

Pilotuak leher eginda iritsiko dira Kurtzebarriko tontorrera, eta hura bada leku aproposa lasterketa ikusteko. Gainera, motxilak bizkarrean soinean eramanda lasterkariak eskertuko dituzte animo mezuak, seguru [Barre]. Beste aukera polit bat izan daiteke Urkulun zelan lurreratzen diren ikustea, momentu ikusgarria izaten da.

**Parapente guztiak berdinak dira?**

Ez, askotariko modeloak daude, ezaugarri ezberdinekin. Badira oso parapente azkarrak, baina horiek erabiltzea pilotaje aldetik zailagoa da. Mendira oinez joaten direnek, berriz, ekipo oso arinak erabiltzen dituzte, 10 kilo ingurukoak, eta badira 20 kilo-ko ekipoak ere.

**Lasterketa sarean ere jarraitu ahal izango da.**

Bai, *streaming* bidez eskainiko dugu proba, *Livetrack24* webgunean.

**Hogeita bi lagun batuko zarete irteera puntuan, kopuru polita da.**

Alde horretatik, espero baino parte-hartzaile gehiago izango dira eta oso pozik daude. Gehienak gipuzkoarrak dira, baina bizkaitarrak, arabarrak eta nafarrak ere badaude. Orain, falta dena da eguraldiak laguntzea eta proba arazo gabe egin ahal izatea. Oraingo, behintzat, iragarpena ona da.



Parapentearekin hegan. H.O.





Kadrilla bergar bat helmugan, 2016ko Antxintxika krolean. GOIENA

# Irailean erabakiko dute probak antolatu edo ez

**HERRI LASTERKETAK** Urriaren 25ean dira egitekoak Oñati-Arrasate lasterketa eta astebete geroago egingo dute Soraluze eta Bergara arteko Antxintxika krosa. Baina antolatzaileek irailean erabakiko dute aurtengo edizioak antolatuko dituzten edo ez

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Beste urte batzuetan, udazkenean egiten dituzten lasterketa horietarako, antolatzaileek sasoi honetarako hasita zituzten etxerako lanak. Izen-emateak zabalitzen joan, urteroko babesle fidelekin hartu-emanetan hasi... Hala, bai Antxintxikako ordezkariak eta baita AEDko lagunek irailerako utzi dituzte lanok: "Martxan jartzearekin batera lasterketen bueltan ibiltzen den jendeak gomendatu digu iraileira itxarotea. Izen ematea orain zabaltzea zen asmoa, baina esan digute ez duela merezi, hobe da irailean gauzak zelan dauden ikusi eta orduan erabakia hartzea", dio Itxaro Artolak. Izan ere, aste gutxian goitik behera alda daitezke gauzak.

**Antxintxika krosa, berdin**

Antxintxika krolean presidente Patxi Torres ere iritzi berekoa da. "Gu ere egoera berean gaude. Oraindik ez dugu erabaki aurrera egingo dugun edo aurtengo edizioa bertan behera utziko dugun. Zorionez, oraindik badugu tartea ikusten joateko egoerak ze itxura hartuko duen

uda igaro eta gero; horrenbestez, zain egongo gara".

**Behobia-Donostia birtuala**

Azaroaren 8an egingo dute Behobia-Donostia lasterketa, eta, oraingoz, Fortuna Kirol Elkarteko ordezkariak lasterketa antolatzeko lanetan dabilta. Hala, zabalik dago izen-ematea, eta Fortunakoen asmoa da azaroaren 8ko lasterketa segurtasun neurriak errespetatuko dituen protokoloarekin egitea.

Horrekin batera, baina, aste barruan aurkeztu dute Behobia birtualaren lehenengo edizioa: "Formatu berri hau eta ohiko lasterketa batera izango dira; era honetan, parte-hartzera etorri ezin duten eta horrelako erronka bati aurre egiteko momentua ez dela uste duten pertsonen beste era batera parte hartzeko aukera izango dute", adierazi dute antolatzaileek. BSS birtuala azaroaren 2tik 8ra egingo dute, eta atletek denbora tarte horretan 20 kilometro egin beharko dituzte korrika. Runneak garatutako *app*-arekin egingo dute erronka, eta izena eman behar da.



GOIENA  
20 URTE  
ALBISTE

## ZERESAN HANDIA EMAN ZUEN BISITALDIA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

2004AN ESPAINIAKO ERREGEAK EGIN ZUTEN BISITAZ

goiena  
20 URTE ZUEKIN





Leire Etxezarreta, Keu Agirretxea eta Pablo Novoa eguaztenez Aldai parkeko agertokian. A. A.

# Traben gaineratik, kultura gozagarri

Kultura arloko profesionalak formula berriak sortu behar izan dituzte lanean jarraitu ahal izateko, eta asmatu dute; horren erakusle, Debagoieneko herri guztietan dagoen eskaintza oparoa ikus-entzuleen partetik izaten ari den "harrera ona eta eskertua"

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Ikuskizunen guneak hesituta, aurrez hartutako sarrerekin eta eserlekuetan jarrita, maskarak soinean, gelak eskuragarri eta distantziak gordeta; hori da Debagoieneko kultura ikuskizune-

tan ere egunotan ikusten den argazki orokorra.

**Ikusleak, "jarrera onarekin"** Egoera berrira moldatu behar izan dute ikusleek ere, eta, orokorrean, "jarrera ona" dutela

ikusitako antolatzaileek. "Jendearen jarrera bikaina da, oso ulerkorra da egoerarekin, eta esandakoa ondo betetzen dute. Ekitaldi bakoitza guretzako erronka bat da, gune bakoitzak edukiera zehatz bat du eta horren

arabera banatzen ditugu sarrerak, baina eguraldiaren eraginez azken orduko toki aldaketak egin behar izaten ditugu batzuetan; une oro moldaketak egitea eskatzen du egoerak", dio Arrasateko Kultura teknikari Jon Garaik, eta zera gaineratu du Bergarako Udaleko Mainer Osak: "Esango nuke jendea ohitu dela bete beharreko baldintzetara, eta lasai eta pozik datorrela kulturaz gozatzera. Egin beharreko moldaketak asko dira; horien artean, aurreko urteetan baino langile gehiago egon behar dugula ikuskizunaren unean".

Oñatiko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde dio herritarrek asko eskertu dutela eskaintza: "Agurtzeko moduagatik ere adierazten digute hori. Harrera oso ona izan dute orain artekoek, eta datozen ekitaldietako sarrerak ere ondo doaz; kanpoan inor ez geratzea lortu dugu, oraingoz". Aretxabaletako Udalak 7x7 ekimena antolatu zuen ekainerako, eta antzerki emanaldiak uztailerako. "Formatu txikikoak izan dira, haurrei eskainitakoak gehienak; gaur Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izango dira. Herritarrek eskertu egiten dute, animoa igotzen laguntzen dutelako. Orokorrean neurriak ondo betetzen dituzte, baina batzuen atzetik ere ibili behar dugu. Gauzak antolatzeko gogoia dugu, baina modu bakarra neurriak beteta da", dio Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

## Artistak eta langileak, "pozik"

Zalantzan zegoen kultur sektorean udan lanerako aukerarik izango zuten, eta hala bazen zein baldintzatan; honela dio Ruper Ordorikak: "Itxialdian bi kontzertutarako proposamena jaso nuen, baina ezezkoa eman nien

ez nuelako garbi ikusten; hala ere, egun batetik bestera aburua aldatu eta pentsatu nuen guk ere hasi beharko genukeela onartzen beste batzuek ekitaldiak antolatzen egiten duten ahalegina, eta taldekideekin komentatu eta gero, baiezkoa ematea erabaki genuen; hala, ekainaren 27an Sorluzen bakarka izan nintzen, eta taldearekin izango naiz gaur Gasteizko Printzipal antzokian eta bihar Antzuolan. Arduratuta joan nintzen Sorluzekora, baina taularen gainera igo orduko musikak hartu zuen bere tokia. Jendeari, publikoari, asko eskatzen zaiola uste dut bizi dugun giroan emanaldietara joateko orduan. Oso eskertuta gaude antolatzaileek eta zaleek egiten duten ahaleginagatik. Udan emanaldi batzuk ditut, baina musikarion kezka handiena da udazkenean zer gertatuko den; izan ere, gure zirkuituaren parte handi bat diren areto asko itxita daude".

R. Sound soinu enpresa duen Iñigo Herrerosen, hainbat hila-betetan gelditu egon ondoren, uztaila lanpetua du; Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko hainbat emanalditako soinuaren ardura

## HERRITARREK ASKO ESTIMATU DUTE AURTEN ERE UDAKO KULTURA ESKAINTZA ABIATU IZANA

## EKITALDIEK EDUKIERA MUGATUA DUTE ETA GEHIENETAN AURREZ SARRERA ESKURATU BEHARRA DAGO

## KANTUZ ZURE ETXEAN

GOIENA TELEBISTA, KONTZERTUA

UZTAILAREN 18AN, ZAPATUAN, 16:30EAN ETA 20:30EAN

UZTAILAREN 19AN, DOMEKAN, 22:00ETAN

OÑATIKO GANBARA ETA HOTS ABESBATZAK

goiena  
20 URTE ZUEKIN







Hika Teatro taldeak *Tonbola* ikuskizuna egin zuen eguaztanean Aretxabaletan. X. U.

du bere lantaldeak. "Nahiko lanekin ari gara orain, eta alde horretatik pozik nago, baina arduratuta nago etorriko denarekin; izan ere, langileak ERTEtik atera ditut eta datorrenak ez dauka itxura onik, abuztuaz zortzi ekitaldi bakarrik ditut, eta irailan, momentuz, bi besterik ez. Musikariak ere hala topatu ditut, sentsazio gazi-gozairekin: alde batetik, pozik, jotzeko aukera dutelako, baina,

bestetik, oso triste, kultur arloan eskatzen diren segurtasun baldintzak askoz gogorragoak direlako. Publikoa lasai eta gustura ikusi dut, eta harritu egin naiz emanaldi askotan zenbat jende batu den ikusita. Berumugan, esaterako, izugarri".

#### "Kalitatezko eskaintza"

Bergarako Udalak Gaztelupeko Hotsak-en laguntzarekin antolatzen duen Espoiloiko egubakoitz

gauetako Berumuga musika zikloak urteroko zaleak eta berriak batu ditu. Anaut madrildarra izango da gaur; antolaitzaileen esanetan, "goraka doan gitarra-jole eta soul konpositore bikaina". Hirukote formatuan dator eta "zuzeneko onak" ditu.

Kulturaren mahaia sortu dute Bergaran herriko eragileekin, eta hala osatu dute egitaraua. "Agertoki berri batzuk eta hainbat ekitaldi atera dira handik; aberatsa izan da kultur mahaia-aren ekarpena". Arrasaten ere toki berriak estreinatu dituzte: Usaetxe eta Jokin Zaitegi plazak. "Harrera ona izan dute agertoki berriek ere. Ekitaldiei dagokienez, lau bakarrik izan dira oraindik, baina inpresio onak ditugu, ia sarrera guztiak agortu dira". Gaur, dantza garaikidea emanaldia izango da Zaldibar frontoian eta Ibai-arte merkataritza elkartearekin elkarlanean antolatutako Arrasate Blues jaialdia gaur eta bihar herriko txoko ezberdinetan.

Oñatin ere egitarauarekin asmatu dutelakoan daude. "Askotariko da eskaintza eta jasotako feedbacka ona da".

## "Arrasateko kontzertua, pertsonalki, oso berezia izango da niretzako"

LA FURIA ABESLARIA

Cascanten jaiotako musikaria Arrasaten bizi da; gogotsu" dago berriz agertokira igotzeko. Uztailaren 22an Cordoba y Oro plazan izango da, 19:30ean.

#### Zer moduz zaude?

Kontzertuak egiteko deseatzten. Martxoaren 8an, nire amatasun etenaldiaren ondoren, Bruselako rap jaialdi batean abiatu genuen *Pecadora. Vol1* diskoaren bira, baina bertan behera geratu ziren ondorengo emanaldi guztiak; hortaz, Arrasatekoa izango da itxialdiaren osteko lehenengoa.

#### Zuretzako berezia dela diozu.

Bai, hala da. Arrasaten abestea oso gogoko dut betidanik; nire ustez, jendeak musika-kultura oso handia du, eta orain bertan bizi naiz; horregatik, ilusio handia egiten dit beste alor batzuetatik ezagutzen nauen jendearen aurrean ere abestean. Kontzertu berezia eta pertsonala da niretzako.



LA FURIA

#### Agertokian hiru lagun zarete. Zeintzuk dira besteak?

Bira honetan DJ berria dugu, DJ Lara Teman, eta Carla Montoto dantzaria da taldeko hirugarren kidea.

#### Zelako kontzertua egiteko asmoa duzue?

Oinarrian *Pecadora. Vol1* lana aurkeztuko dugu, baina sorpresa batzuk ere izango dira; inon argitaratu bako kantutatik eskainiko ditugu, eta baita prestatzen ari naizen hurrengo diskoiko aurrerapen bat ere.

#### Laster beste disko bat argitaratzeko asmoa duzu, hortaz?

Hasiera batean, datorren urtean ateratzea da asmoa; izan ere, *Pecadora* bi zatitan banatutako lana da. Iaz lehenengoa atera nuen eta bigarrena borobiltzen ari naiz orain.

#### Beste proiektu batzuk ere badituzu. Zeintzuk?

Ondo sentitzen naiz, eta gauza asko egiteko gogo handiarekin, eta, gehienetan moduan, bizi dugun egoeragatik aukerak mugatuta ditudanez, irtenbide berriak bilatzen saiatzen ari naiz, inoren zain egon barik. Rap ikastaroak eskaintzen ditut, eta itxialdian *online* egin nituen hiru; arrakasta itzela izan zuten eta gehiago egiteko asmoz nago. Era berean, zaldiekin *coaching* lanetan jarduten duen lagun bat dut eta harekin proiektu berezi bat abiatzeko gogoz ere banago.

#### Udako agenda nola duzu?

Emanaldi askorik ez dugu, eta irailerako genituenak kolokan daude orain; azarorako bat edo beste lotuta dugu. Egoera zaila da, eta ikusteko dago datorrena.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko uztaileko sariak!

**Kindle Ebook**  
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook

#### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

**ARRIKRUTZ**  
ONATIKO O D A K

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sarearen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indonandegian (DPO 157000) laguna dira jaioterako diruak eta pertsonak. Ezin dira saldu. Zozketaren irabazitako diruak zozketaren helburuak betetzeko erabiltzen dira. Indonandegian zozketaren irabazitako diruak zozketaren helburuak betetzeko erabiltzen dira. Indonandegian zozketaren irabazitako diruak zozketaren helburuak betetzeko erabiltzen dira.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### TXOPEKUA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkeriko Otorduan atala eta hartu parte!  
Parte hartzea: Uztailaren 21era arte

943 25 05 05 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

KLUBA Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



#### ESKAITZA BEREZIA!!

Uztaitetik abendurako bazkideza: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

**Deba.** Eroski ondoan, 2 pertsonendako egokia den apartamentua salgai, ganbara barne. Lehenengo solairua, igogailuarekin. Aurten fatxada berri-tuta. 659 41 90 54

102. EROSI

**Baserría erosi.** Baserrí baten bila gabilta Oñatin, erosteko asmotan. Telefonoa: 653 01 71 65

103. ERRENTAN EMAN

**Donostia.** Erdigunean bi logelako etxebizitza ematen da errentan irailetik ekainera. Animaliak ez dira onartzen. Ezta erre-tzaileak ere. Telefonoa: 658 72 54 23

104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Igogailua duen etxebizitza behar du errentan. Logela batekoa edo bikoa izan daiteke. Altzaririk gabe ere bai. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 634 69 29 62

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza behar du errentan hartzeko, irailetik aurrera. 678 75 80 01 (Mikel)

105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Errentan hartzeko libre dagoen gela baten bila nabil. 642 96 68 82

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume eskalduna behar da irailetik aurrera bi ume goizez zein arratsalde zain-zain. 659 03 85 29

**Zaintza Bergaran.** Emakume eskaldun bat behar da irailetik aurrera, goizetan, umeak zaindu eta etxeko lanak egiten laguntzeko. 605 70 83 93

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu orduka, egunka edo gauean zaintza lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta titulazioa daukatzat. 685 22 54 01

**Arrasate.** Garbiketaren, umeak eta nagusiak zaintzen edota lisatzen lan egingo nuke. Telefonoa: 611 24 26 64

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke, egunean zehar zein gauean. Legezko agiriak eta etxeko lanetarako ziurtagiria daukatzat. Deitu 632 39 87 73 telefono zenbakira.

**Bergara eta inguruak.** Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko gertu. 688 74 00 14

**Bergara eta inguruak.** Pertsona nagusi eta umeen zaintza edo lokal, bulego eta etxeko garbiketaren lanetan jarduteko prest nago. 610 34 97 88

**Bergara.** 23 urteko mutil euskalduna, pedagogoa diplomatu eta umeak zaintzen esperientzia duena, irailetik aurrera, goizez umeak zaintzeko gertu. Telefonoa: 689 24 85 89 (Jokin)

**Bergara.** Emakume lan bila, astelehentik ostiralerara. Pertsona helduak zaintzeko eta garbiketaren lanak egiteko prest. Telefonoa: 671 54 59 72

**Bergara.** Etxeak garbitzen eta umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 661 06 06 63

**Bergara.** Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketaren lanetarako. Cecilia: 602 65 07 72

**Bergara.** Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketaren lanetarako. 643 59 76 06

**Bergara.** Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketaren lanetarako. 643 59 76 06

**Bergaran, umeen zaintza.** Neska gazte eskalduna, magisteritzan graduatu eta esperientziaduna, udan haurrak zaintzeko prest. 663 70 01 15

**Debagoiena.** 15 urtez nagusiak zaintzen aritutako neska lan bila. Soziosanitario titulatuarekin. 687 27 01 37

**Debagoiena.** 20 urteko neska arduratsua lan bila. Esperientzia dut dendarri lanetan, apalak betetzen, kutxan, nagusiei laguntzen zein garbiketaren. Telefonoa: 605 63 83 40

**Debagoiena.** Arratsaldetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota estetik eta ile-apaindegi lanetan. Titulazioa daukat bi arloetako. Autoa daukat. 631 98 15 50

**Debagoiena.** Arratsaldetan orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketaren egiteko gertu nago. Gauetan zaintza lanak egiteko ere bai. Autoa daukat. 632 56 92 32

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientzia eta titulazioa dituena, nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 688 72 88 97

**Debagoiena.** Denetarik garbiketaren egiteko gertu nago. 600 32 95 26

**Debagoiena.** Denetarik garbiketaren egiteko gertu nago. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko prest dagoen emakume bat naiz. Legezko agiriak egunean ditut. 647 31 48 17

**Debagoiena.** Egunez, gauzez zein orduka, nagusiak zaintzeko prest nago. 632 65 76 96

**Debagoiena.** Emakume arduratsua zaintza lanetarako gertu. Esperientzia eta erreferentzia onekin. 602 53 68 24

**Debagoiena.** Emakume gertu nagusiak zaindu eta garbiketaren egiteko. Orduka zein jardun osoz. Autoa daukat. 605 63 83 40

**Debagoiena.** Emakume lan bila, garbiketaren lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 627 03 16 40

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska arduratsua zaintza eta garbiketaren lanak egiteko gertu. Orduka eta asteburuetan ere bai. 600 02 74 13

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea naiz eta pertsona nagusien zaintza lan egiteko prest nago. 600 02 74 13

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri eta baimen guztiekin. Autoarekin. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea pertsona helduak zaindu eta garbiketaren egiteko prest. Ikasketak arreta soziosanitarioan eta etxeko lanetan. 642 96 68 82

**Debagoiena.** Mezularitzan, garbiketaren, zaintza lanetan, eraikuntzan, ostalaritzan zein okindegian lan egingo nuke. Telefonoa: 603 28 34 98

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketaren, nagusiak zaintzen, ingulterro laguntzaile moduan edota okindegian lan egiteko. 611 21 35 77

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzen, tabernan edo peoi moduan lan egiteko. Telefonoa: 642 90 41 05

**Debagoiena.** Mutila gertu lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta

garbiketaren egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. 638 31 54 66

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke. Eusko Jaurralitzako ziurtagiria daukat. 612 20 35 71

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 653 54 24 16

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak daukat. 631 12 51 27

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketaren lanetan esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Telefonoa: 641 64 99 05

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, asteburuetan edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 722 56 41 16

**Debagoiena.** Neska eta mutil bat gara eta nagusi

siak zaintzen, denetarik garbiketaren egiteko zein baserriko lanetan jarduteko gertu gaude. Yesid eta Nancy. 643 47 39 37

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldetan nagusiak zaintzen lan egiteko. Titulazioa daukat eta baita eskarmentua ere. Autoarekin. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska gertu lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketaren egitean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen 10 urteko esperientzia duen gizakumea lan bila. Telefonoa: 634 69 29 62

**Debagoiena.** Titulazioa eta legezko agiriak daukan neska arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketaren egiteko gertu. Asteburuetan ere bai. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Zaintza eta garbiketaren lan egiteko nituzke. Deitu 631 19 12 64 zenbakira.

**Lan bila.** Neska arduratsua lan bila. Esperientzia eta soziosanitario titulatuarekin. Berehala hasteko moduan. 667 35 72 77

## 6. MOTORRA

602. EROSI

**Land Rover Defenderra** behar dut baserri-erriko. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata edo kolpearekin. 623 17 95 37

## 7. ANIMALIAK

703. EMAN

**Katakumeak.** Bi katakume daukagu opari emateko. Deitu telefono honetara: 608 63 39 49

## 8. DENETARIK

807. AURKITU

**Haurren eguzkitak beturrekoak eta telefonoa.** aurkitu genuen zapatu arratsaldean Elgetan, Bola Toki inguruan. Udaletxean entregatu ditugu. 943 76 80 22 edo 943 78 90 70

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

### ESPAINIAKO ERREGE-ERREGINEK EGINDAKO BISITA

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' Egubakoitza, 23:00



IMANOL SORIANO

### 'KANTUZ ZURE ETXEAN' KONTZERTUA

'Bereziak' Zapata, 16:30 eta 20:30; eta domeka, 22:00

## EGUBAKOITZA, 17

09:00 Kantari Aretxabaleta 6  
09:30 Kantari Aretxabaleta 5  
10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 Eskulanak etxetik  
11:30 Hala Bazan  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Errezeta beganoak  
13:30 Elkarrizketa: Joli Pascualena  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albistek  
15:30 Kantari Aretxabaleta 7  
16:00 Albistek  
16:30 Errezeta beganoak  
17:00 Albistek  
17:30 Adinberri 29  
18:00 Hemen Debagoiena: Antzuolako jaiek  
18:45 Albistek  
19:00 Hala Bazan  
19:30 Elkarrizketa: Joli Pascualena  
20:00 Hemen Debagoiena: Antzuolako jaiek  
20:45 Albistek  
21:00 Hala Bazan  
21:30 Antzuolako jaiek  
22:00 Hemen Debagoiena: Antzuolako jaiek

## ZAPATUA, 18

09:00 Kantari Aretxabaleta 5  
09:30 Kantari Aretxabaleta 8  
10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 Eskulanak etxetik  
11:30 Erreportaje: Hirigintza  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Errezeta beganoak  
13:30 Kantari Aretxabaleta 5  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albistek  
15:30 Jaiek: Antzuolako jaiek  
16:00 Albistek  
16:30 Hala Bazan  
17:00 Albistek  
17:30 Adinberri 30  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Jaiek: Antzuolako jaiek  
19:30 Erreportaje: Mairer Unda, brontzeko emakumea  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Hala Bazan  
21:30 Etxetik plazara  
22:00 Hemen Debagoiena  
23:00 Erreportaje: Erregeak Arrasaten

## DOMEGA, 19

09:00 Kantari Arrasate 2  
09:30 Kantari Arrasate 1  
10:00 Kantari Arrasate 3  
10:30 Etxetik plazara  
11:00 Galdegazte: Serge  
11:30 Erreportaje: Erregeak Arrasaten  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Galdegazte: Serge  
13:30 Elkarrizketa: Joli Pascualena  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Hemen Debagoiena  
15:30 Astearen errepaso  
16:00 Jaiek: Antzuolako jaiek  
16:30 Kantuz zure etxean  
17:30 Erreportaje: Erregeak Arrasaten  
18:00 Hileko errepaso  
19:00 Hemen Debagoiena  
20:00 Astearen errepaso  
20:30 Kantuz zure etxean  
21:30 Hemen Debagoiena  
22:30 Astearen errepaso  
23:00 Hemen Debagoiena

## EGUBAKOITZA, 17

### HERRITARREKIN BERRIKETAN

'Etxetik plazara'

21:30

## EGUATZENA, 22

### LUTXO EGIARI ELKARRIZKETA


'Elkarrizketa'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista) Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA



GOIENA

### ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'

17:30

## EGUNERO

### ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00 arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarria bertan behera utzirik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.



**MEZA**

**Juste Errasti Arrizabalaga**  
Lekaimea

2020ko martxoaren 28an hil zen, Madrilen, 97 urte zituela.

---

Haren aldeko meza domekan, uztailak 19, izango da, 11:00etan, Aramaioiko San Martin parrokiari.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aramaion, 2020ko uztailaren 17an.

**ESKER ONA**

**Juan Ramon Berecibar Uribarren**  
'Txaparro'

2020ko uztailaren 9an hil zen, 62 urte zituela.

---

Lerro hauen bidez Juan Ramonen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

---

Arrasaten, 2020ko uztailaren 17an.

**ESKER ONA**

**Jesus Ruiz Casas**

2020ko uztailaren 14an hil zen.

---

Lerro hauen bidez Jesus Ruizen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

---

Arrasaten, 2020ko uztailaren 17an.

**1. URTEURRENA**

**Mari Carmen Lete Lazpiur**

2019ko uztailaren 28an hil zen, 74 urte zituela.

---

Urteurreneko meza domekan, uztailak 19, izango da, 12:00etan Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Ahazten dugun hura hiltzen delako soilik beti gure bihotzean zaitugu bizirik. Asko maite zaitugu.*

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2020ko uztailaren 17an.

**ESKER ONA**

**Antoni Etxeberria Sagasta**  
Felipe Unamunoren alarguna

2020ko uztailaren 10ean hil zen, 83 urte zituela.

---

*Gugandik joan zara baina gurekin jarraitzen duzu. Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik betiko maiteko zaitugu.*

---

Eskerrik asko une latz hauetan zuen babesba eman diguzuen guztioi.

---

Bergaran, 2020ko uztailaren 17an.

**ESKER ONA**

**Arantzazu Amasorrain Linacisoro**

2020ko uztailaren 9an hil zen, 71 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesba eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

*Maitasuna egunero ospatzen delako, maite zaitugu. Eskerrik asko, ama.*

---

Bergaran, 2020ko uztailaren 17an.

**OROIGARRIA**

**Jose Javier Zabala Viana**

2020ko uztailaren 13an hil zen, Azkonan, 62 urte zituela.

---

*...gaztetatik atera zinen bizi bila pausuz pausu gizon handia izan zara bihotz onekoa ta ahaltzu egun joan-etorria zu gabe ez da sekula berdintsu Javier mesedez artzai-makilaz egunero zain gaitzazu. (Isaak)*

---

Etxekoak. Eskoriatzan, 2020ko uztailaren 17an.

**OROIGARRIA**

**Rosario Belastegi Ojanguren**  
'Aierdi'

2019ko uztailaren 20an hil zen.

---

*Orain dela urte bat sentitu arren adioaren zirrarra denbora hontan beti ondoan zaudela ohartu gara ze oroitzen guztiak gugan dabilta hona eta hara gure itzala argitzen duen eguzki printza baitzara.*

---

Etxekoak. Bergaran, 2020ko uztailaren 17an.

**OROIGARRIA**

**Arantzazu Amasorrain Linacisoro**

---

*Arima lasai, aurpegia irrifartsu arantzarik gabeko Arantzazu.*

---

Amasorrain lehengusuak. Bergaran, 2020ko uztailaren 17an.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 17	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Zapatua, 18	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 19	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Martitzena, 21	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 22	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 23	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 17	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 18	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 19	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 20	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 21	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 22	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 23	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
ONATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 17	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 18	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 19	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 20	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 21	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 22	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 23	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**DABESLEA**

**Oroilore**  
Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

---

*Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

---

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

**Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA**



## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Denboraldi bukaerak ospatzen**

Bergara Kirol Elkarteak kadete mailako taldeak Euskal Ligarako igoera ospatu zuen, gurasoekin eta taldearen arduradunekin bazkaltzen. Era berean, Lehenengo Erregional mailako taldeak ere denboraldia bukatutzat eman zuen aurreko asteburuan. Oporretan daude orain.

**2. Kultura ibilbidea egiten**

Loramendiko toponimia taldekoak ederto ibili ziren aurreko zapatuan. Herriko Plazan, 82. kilometroa adierazten duen harriari elkartu, kanposantutik gora abiatu, Oro eta Larrino auzoetatik pasa eta Ojala Zelain bukatu zuten ibilbidea, Gorka Madinabeitiaren pasadizoak entzuten.

**3. Mondrako campuseko diplomak**

Mondrako campusak bigarren astea betetzen dihardu. Hala, aurreko egubakoitzean, lehen txandan egondako jokalariei diplomak banatu zizkieten. Futbol taldeko jokalariei eta arduradunen aginduetara, gustura ibili ziren futbol zelaiari. Aste honetan, kirol inklusiboa eta kirol egokitua dituzte oinarri, eguneroko entrenamenduetan.

**4. Doinu goxoak Otala Zelain**

HemenGaz ekimenaren baitan, emanaldia egin zuten Pettik eta John Galdosek Otala Zelain. Bakarka aritu ziren biak ala biak, euren gitarren laguntzarekin. Loramendiko toponimia taldearen ibilaldian parte hartu zutenetako asko elkartu ziren, bi bakarlariei doinuak erakarrita.

**5. Artisauen azoka**

Oñatin egin diren auzoko lehen jaietan, artisauak euren produktuak atera zituzten kalera. Poltsak, nezeserrak, bitxiak, osagarriak, motxilak, arropak... Horiek eduki zituzten herritarrek eskura. Segurtasun neurriak beteta, gustura ibili ziren saltzaileak eta erosleak.

**6. 25 urte ezkontida**

Oñatiko Begok eta Bixenek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte uztailaren 18an. "Zorionak, bikote! Ederki ospatuko ditugu zilarrezko ezteiak. Familiako kide guztiak elkartuko gara! Zorionsuak izaten jarraitzea opa dizuegu! Muxu erraldoi batzuk, Galiziako eta Oñatiko familien partetik! Zorionak! *Parabéns!*".






## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Shere Moreno**  
Uztailaren 23an, 37 urte. Zorionak, amatxo! Espero dugu egun polita pasatzea, merezi duzu-eta! Besarkada eta patxo erraldoi bat, Kenarren eta Alaineren partetik. Asko maite zaitugu.



**OÑATI**  
**Aihoa Dorado Hernandez**  
Uztailaren 19an, 8 urte. Zorionak, politt hori! Zortzi urte! Egun zoragarria euki eta mila patxo familia osoaren partetik. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Maite zaitugu.



**ARRASATE**  
**Jare Bergaretxe Arkauz**  
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak, pitxin, eta urte askotarako! Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Elene San Miguel Erostarbe**  
Uztailaren 19an, 5 urte. Zorionak, sorgintxi! Ederto pasatu eguna eta jarraitu holako zoragarria izaten! Patxo itzelak, familixaren partetik!



**ARAMAIO**  
**Nahikari Rivera Garaitonandia**  
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak, *Mariflor*, zure lehenengo urtebetetzear. Patxo handi bat ebeko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Mikel Segovia**  
Uztailaren 18an, 3 urte. Zorionak, laztana. Hiru urtetxo jada. Mutiko handia egin zara. Ondo pasatu eguna. Amatxoren partetik, muxu handi bat.



**ESKORIATZA**  
**Iradi Aramendi Altuna**  
Uztailaren 18an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ederto ospatu zure eguna lagunekin eta familiakoeekin. Asko maite zaitugu eta horrelakoa izaten jarraitu. Muxu erraldoi bat etxeko danon partetik eta topera disfrutatua. Mua!




**ARRASATE**  
**Naia Nilsson**  
Uztailaren 17an, 2 urte. Zorionak, Naia! Egun ederra izan dezazula. Patxo bat, amama Anttoniren eta Donostiako familiaren partetik.




**ARAMAIO**  
**Izar Ezkurra Errasti**  
Uztailaren 17an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Hiru urte, neska handi! Merezi dozun moruen ospatukou! Patxo handi bat danon partetik!



**ELGETA**  
**Aner Garciagango**  
Uztailaren 17an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, danon partetik. Muxuak.




**BERGARA**  
**Dylan Fernando Galindo**  
Uztailaren 17an, 2 urte. Zorionak, txapelduna! Asko maite zaituztegu guztiok.



**BERGARA**  
**Adei Ernabide Sebal**  
Uztailaren 17an, urtebete. Zorionak, Adei! Urtebete bat! Fenomeno ospatu, familiarekin eta, batez be, Xabatekin.



**ARRASATE**  
**Iare otxoa**  
Uztailaren 16an, 14 urte. Zorionak, Iare! Ospatu zure eguna eta disfrutatu! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



**ARETXABALETA**  
**Oier Portalo**  
Uztailaren 15ean, 11 urte. Orain dela 11 urte jaio zinen eta gure bihotzak zoriontasunez bete zenituen. Zure urtebetetzea da. Muxu handi bat familiako guztien partetik. Prestatu belarriak!




**ARRASATE**  
**Eneko Garcia Torres**  
Uztailaren 15ean, 8 urte. Zorionak, Eneko! Ondo pasatu zure egunean, pirata! Muxu asko, 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



**OÑATI**  
**Malen Caro Arriaran**  
Uztailaren 14an, 7 urte. Jada zazpi urte! Zorionak, laztana! Muxu potolo bat etxeko partetik. Segi holako alaitsu eta ondo pasatu zure egunean!



**OÑATI**  
**Luka Galdos Etxeberria**  
Uztailaren 14an, 10 urte. Zorionak, Luka! Oso ondo pasatu zure eguna. Asko maitte zaitugu! Etxekuak.



**ARETXABALETA**  
**Nora Toledo Gallego**  
Uztailaren 13an, 10 urte. Zorionak, Nora! Handitzen handitzen, 10 urte honezkeroko... Primeran pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo-potolo bat, etxeko partetik! Infinituraino eta bueltan maite zaitugu!



**ARRASATE**  
**Maddi Garcia del Fresno**  
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna, maitia. Muxu asko, 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



**ELGETA**  
**Markel Larrañaga Mandaluniz**  
Uztailaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Marke!! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo potolo bat, danon partetik.



**ARRASATE**  
**Juan Francisco Fernandez**  
Uztailaren 8an, 31 urte. Zorionak, Juan! Ondo pasatu zure egunean. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.

# AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



GOIENA

## ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute. Konfinamenduaren ostean, indartsu dator pailazo hirukotea, dantzan eta kantuan egiteko gogoarekin.

*Gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegian, 18:00etan.*



ARGAZKILARIAXXXX

## BERGARA Sara Zozaya eta Eyharts taldeen emanaldia

Udako kultura eskaintzaren baitan. Katapultatua Tour Gipuzkoaren baitan ezagun egin den musikari donostiarra ezagutzeko aukera. Debalde.

*Bihar, zapatua, Oxirondo plazan, 22:30ean.*

## EGUBAKOITZA 17

### ARAMAIO 'Porrusalda' ikuskizuna

Umeendako.  
*Kanpoko frontoian, 12:00etan.*

### ARRASATE 'Desioaren orientazioa' tailerra

Udaixe programaren baitan.  
*San Andresen, 12:30ean.*

### BERGARA 'Lorategien taupada berdeak' bisita gidatua

Bergarako lorategi historikoak ezagutzeko aukera.  
*Laboratoriumen, 18:00etan.*

### ELGETA 'Plaza irrintzika' berbena umeendako

Irekia.  
*Espaloian, 19:00etan.*

### OÑATI Ainhoa Larrañaga eta banda

Jazz, neo-soul eta swing doinuak Hernaniko bakarlariekin.  
*Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

### ARRASATE The Song

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua. Debalde.  
*Euskal Herria plazan, 19:00etan.*

### ARRASATE 'Expectations will not kill you' ikuskizuna

Ametsak errealitate bihurtzen ez direnean sortzen den porrot sentimenduari buruzkoa, Raymond Navalekin eta Jaiotz Osarekin.  
*Zaldibar frontoian, 20:00etan.*

### ARRASATE 'Fight' ikuskizuna

Dantza ikuskizuna, Judith Argomanizek zuzenduta.  
*Zaldibar parkean, 20:00etan.*

### OÑATI 'Gazteak gaztetxetik' kontzertua

Julen Murua eta Sukena eta Jone eta Alex Markuleta.  
*Gaztetxean, 20:00etan.*

### ESKORIATZA 'La que hemos liao' ikuskizuna

Protagonistek bakarriketak egingo dituzte, zenbait abeslari imitatuz eta publikoaren eskaerei erantzunez.  
*Santa Marina plazan, 22:00etan.*

### BERGARA Anaut taldea

Alberto Anautek 2013an sortutako bandaren zuzenekoak.  
*Espaloian, 22:00etan.*

### ARRASATE Serious Busines taldea

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua. Debalde.  
*Herriko plazan, 19:00etan.*

## ZAPATUA 18

### OÑATI Aloñara igoera bizikletan

Izan Bidea ekimenaren baitan, herritik abiatuta. 12:30ean, talde argazkia.  
*Foruen plazan, 10:00etan.*

### ANTZUOLA Txistularien goiz-eresia eta kanoiak sutzea

Ohiko alarde eguna gogoratzeko.  
*Herriko Plazan, 10:00etan.*

### ARRASATE Txakolin Eguna eta baserritarren azoka

Salmenta eta dastatzea.  
*Sebero Altuben, 10:00etan.*

### ARRASATE 'Arrasate monumentalak ezagutzen'

Historiaurretik gaur arteko pasarte nagusiak ezagutzeko. 11:00etan euskaraz eta 12:30ean gaztelera.  
*Herriko Plazan.*

### BERGARA 'Los latidos verdes de los jardines' bisita

Lorategi historikoak ezagutzeko.  
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

### ELGETA 'Elgeta, XVI. mendean' bisita

Izena, uztailaren 17a baino lehen.  
*Elgetako parrokiaren, 12:00etan.*

### ARRASATE Patakbra taldea

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua.  
*Izozkitegi inguruan, 13:00etan.*

### ANTZUOLA Kanoiak sutzea

Ohiko alarde eguna gogoratzeko.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

### ANTZUOLA Ruper Ordorika eta Liv Wallace

Emanaldi irekia.  
*Eskolako patioan, 19:00etan.*

### BERGARA Aritzeta Abesbatza

Udako kultura eskaintzaren baitan.  
*Santa Marinaran, 19:00etan.*

### ARETXABALETA Etxekalte taldea

Bermeoko taldearen zuzenekoak.  
*Skate parkean, 19:30etan.*

### ARRASATE Broken Brothers Brass Band

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua.  
*Kaleetan, 19:30ean.*

### ARRASATE Iker Piris And His Dual Electras With Niko Wayne Toussaint

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua.  
*Herriko plazan, 20:00etan.*

### ARRASATE Travellin' Brothers

Arrasate Blues jaialdiko kontzertua.  
*Herriko plazan, 22:30ean.*

## DOMEKA 19

### ARRASATE 'Arrasateri bira' mendi irteera

Kurtzetxiki-Zigarrolako balkoia-Anporreta-Monterron ibilaldia egingo dute, oinez edo bizikletaz.  
*Biteri plazan, 09:00etan.*

### ARRASATE 'Gongetako meatzak' bisita gidatua

Udalatx magaleko meatzea ezagutzeko aukera.  
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

### ANTZUOLA Udako Kulturaldia

09:00etan, *Mugarriz mugari* ibilaldia; 12:30ean, Virginia Imazen *Pronoia* antzezlan; eta 17:30ean, *Gabe* mimo ikuskizuna.  
*Eskolako patioan.*

### ESKORIATZA 'Apotzaga elizatea ezagutzen' bisita gidatua

Izena emateko azken eguna, uztailaren 18a.  
*Apotzagako elizan, 11:00etan.*

### OÑATI Musika bandaren kontzertua

Debalde, baina edukiera mugatuarekin.  
*Lazarraga lorategian, 13:00etan.*

### OÑATI Bertso saioa

Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu bertsoan. Amaia Agirrek egingo ditu gai-jartzaile lanak.  
*Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

### OÑATI Jon Basaguren

Izaki Gardenak taldeko liderraren kontzertua. Debalde.  
*Ikatz tabernan, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 20

### DEBAGOIENA Urmuga, Aizkorri

Maddi Oihenarten eta Juantxo Zeberioaren emanaldia, mendian bertan.  
*Aizkorri, 17:00etan.*

### BERGARA 'Begiradak-Miradas' erakusketa

Arizondo Argazkizale Elkarteko hamahiru kideren 39 erretratu ikusteko aukera, hilaren 26ra arte.  
*Aroztegin, 18:00etan.*

## MARTITZENA 21

### OÑATI 'Ezagutu streaming plataformak'

Hitzaldi telematikoa KZgunearen eskutik, euskaraz.  
*Telematikoki, 18:00etan.*





GOIENA

### ARRASATE Txakolin Eguna eta baserritarren azoka

Bailarako hiru txakolingile egongo dira: Bedoñako Otxia eta Oñatiko Belaskua eta Murgialdai. Gainera, baserritarren azokako jeneroarekin egindako pintxoak ere egongo dira.

*Bihar, zapatua, Seber Altuben, 10:00etan.*

### BERGARA 'Asterix eta edabe magikoa' pelikula

Umeendako.  
*Espolain, 19:00etan.*

### ARRASATE Udaixe: 'Konkis akanpada'

Urkulun egingo dute. Monterrondik abiatuko dira, 19:00etan; hurrengo egunean itzuli, 10:00etarako.  
*Monterronen, 19:00etan.*

### OÑATI '80 egunean' filma

Txikitako lagunak diren Axun (Itziar Aizpuru) eta Maite (Mariasun Pagoaga) Donostiako ospitale batean elkartuko dira, 50 urte pasa ostean.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## EGUAZTENA 22

### OÑATI Mendi irteera

Arantzazu azpitik irten eta Iturrigorria joango dira ibaia jarraituz.  
*Gaztetxean, 16:00etan.*

### ARETXABALETA 'Aukerak' ikuskizuna

The Funes Troup konpainiaren eskutik, kale antzerkia. Zirku garaikideko proposamena da, dimentsio metaforikoa eta poetikoa duena.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

### ARRASATE La Furia eta Dupla taldeak

Udazabalen baitan.  
*Cordoba y Oro kalean, 19:30etan.*

### ARRASATE Udaixe: gaubeila

Monterronen.  
*Monterronen, 21:30ean.*

## EGUENA 23

### OÑATI 'Android sekreturik gabe' hitzaldia

Hitzaldi telematikoa KZgunearen eskutik, gazteleraz.  
*Telematikoki, 11:00etan.*

### OÑATI Dama Beltzak

Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezen proiektua da. Musikaren bitartez iraultza eta borroka egin zuten dama beltz batzuei omenaldi gisa.  
*Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

### BERGARA Antzerki arinak

Udako kultura eskaintzaren baitako ekintza.  
*Errekalde parkean, 19:00etan.*

### ARRASATE Urban fest

Udaixe.  
*Bowl parkean, 21:00etan.*

## EGUBAKOITZA 24

### BERGARA Aire zabaleko margotze saioa

Irekia.  
*Basalgo auzoan, 16:30ean.*

### ELGETA 'Dama beltzak' musika emanaldia

Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezen proiektua da.  
*Espolain, 19:00etan.*

### ARAMAIO Nhil Band taldea

Eskoriatzako eta Aretxabaletako musikariek osatutako taldeez gozatzeko aukera: Sara, Beñat, Xabi, Asel, Lia eta Aitor dira taldeko kideak.  
*Parkean, 19:30ean.*

### ARRASATE 'Turistreando'

Trapu Zaharrak taldea. Bidaia agentzia kalera ateratzen duen bikote baten istorioak. Santi Ugalde eta Mila Espiga dira aktoreak.  
*Seber Altube plazan, 20:00etan.*

### OÑATI 'Gazteak Gaztetxetik'

Haritz Olaetaren, Ane Irazabalen eta Autore Erotuaren emanaldia.  
*Gaztetxean, 20:00etan.*

### ARRASATE Udaixe: pelikula emanaldia

Uztaileko gitaraua bukatzeko ekintza izango da.  
*Monterronen, 21:00etan.*

### BERGARA Mice-ren kontzertua

Miren Narbaizaren emanaldia, Berumuga jaialdiaren baitan.  
*Espolain, 22:00etan.*

## ZAPATUA 25

### ARRASATE 'Arrasate monumentalak ezagutzen' bisita gidatua

Historiaren pasarte inportanteenak historiaurretik gaur arte. Herriko hainbat bitxikeria ezagutzeko aukera ere egongo da.  
*Herriko Plazan, 11:00etan.*

## ZINEMA

### GASTEIZ

#### BOULEVARD

#### Scooby

Egubakoitza eta zapatua: 17:45, 18:15, 20:15, 21:15.  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:15, 19:45.  
Domeka: 18:15, 21:15.  
Astelehenetik eguenera: 18:15.

#### Madre oscura

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:20.  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:30, 22:00.  
Martitzena: 17:00, 19:30.

#### Superagente Makey

Egubakoitza eta zapatua: 17:50, 20:10, 22:30.  
Egunero: 17:20, 19:40, 22:10.

#### Dunkerque

Egubakoitza eta zapatua: 20:30.  
Egunero, martitzena izan ezik: 20:30.

#### Zapatos rojos y los siete trolls

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:05.  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:40, 19:50.  
Martitzena: 17:40.

#### The gentlemen

Egubakoitza eta zapatua: 22:25.  
Egunero, martitzena izan ezik: 22:05.

#### Onward

Egubakoitza eta zapatua: 18:00.  
Domeka: 18:00.

#### Que suene la música

Martitzena: 20:00.

#### First love

Astelehenetik eguenera: 21:15.

#### GORBEIA

#### The gentlemen

Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.  
Astelehenetik eguenera: 20:00.

#### Onward

Egunero: 17:10.

#### La lista de los deseos

Egubakoitzetik

domekara: 19:50.  
Astelehenetik eguenera: 17:20.

#### Zapatos rojos y los siete trolls

Egunero: 17:10.

#### Dersu uzala

Egunero: 19:30.

#### La maldición del guapo

Egubakoitzetik domekara: 17:20, 19:40.  
Astelehenetik eguenera: 19:40.

#### Donde estás, Bernardette?

Egubakoitzetik domekara: 17:40, 20:10.  
Astelehenetik eguenera: 17:40.

#### Scooby

Egunero: 17:30, 20:00.

#### Superagente Makey

Egunero: 17:30, 20:00.

#### La familia que tú eliges

Egubakoitzetik domekara: 17:50, 20:10.  
Astelehenetik eguenera: 17:35, 20:10.

**Madre oscura**  
Egunero: 17:45, 20:15.

#### FLORIDA

**La lista de los deseos**

Egunero: 19:50.

#### Todo pasa en Tel Aviv

Egunero: 17:10, 19:45.

#### La maldición del guapo

Egunero: 17:30, 20:00.

#### Under the skin

Egunero: 17:15.

#### Dersu uzala

Egunero: 19:30.

#### Scooby

Egunero: 17:00, 19:30.

#### Superagente Makey

Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 20:00.  
Martitzena: 17:30.

#### La familia que tú eliges

Egunero: 17:45, 20:15.

#### La profesora del piano

Egunero: 17:45, 20:15.

### KRITIKA

#### Under the skin ★★☆☆☆

**Zuz.:** Jonathan Glazer. **Herr.:** Britania Handia (2013). **Aktoreak:** Scarlett Johansson, Jeremy McWilliams. **Iraupena:** 108 minutu.

## Eusteko heldulekua faltan

### ANTONIO ZABALA

Zinema proiektzioen egoera oraindik nahasi samar dabil. Areto asko itxita daude, eta ez da erraza jakitea zein lekutan ematen dituzten pelikulak, proiektzio gutxi daudelako. Dena den, hasi dira heltzen film interesgarriak. Horien artean, Jonathan Glazeren *Under the Skin* dago. Filma 2013. urtekoa izanik, orain heldu da gure pantailera. Entzundako eta irakurritako kritiken arabera film zoragarri baten aurrean gaudela ematen badu ere, oso bestelako iritziarekin irten naiz aretotik. Ona baino gehiago, berezia dela esango nuke. Berezia, ezberdina eta nahiko nahasia.

Ez dago gaizki, noizbehinka, gure eskemak hausten dituen filmak ikustea. Gauzak gehiegi zehaztu gabe, ikuslearen

irudimena piztu eta kontaktaren hutsuneak betetzera bultzatzen duten lanak. Baina hori horrela izateko, istorioan heldu ikusleak eusteko helduleku bat topatu behar du; bestela, kontaktzen zaigunaren aurrean nahiko galduta geratzen gara. Horixe da *Under the Skin* filmarekin gertatu zaidana. Filmaren irudiak erakargarriak dira. Gizonak seduzitzeko emakume baten itxura hartzen duen lurretik kanpo etorritako izakiaren istorioa kontatzeko hitz gutxi erabiltzen dira, eta erritua erabiltzen du zuzendariak, behin eta berriz. Proposamen iradokitzaila izateko asmotan, pertsonaien asmoak apur bat zehaztea falta izan zaio.





AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

## Lehengo lepotik?

Laster osatuko da Eusko Legebiltzar berria eta irailean espero da Eusko Jaurlaritzaren berriro martxan egotea. Lehendakaria eta koalizioa lehengoak izango dira; eta harriruko nintzateke sailburuen erdia baino gehiago berria izango balitz. Lehengo lepotik burua.

Baina hastear den legealdiak argituko ditu galdegai batzuk ere. Nagusia, pandemiaren bilakaera, eta nola eragiten duen ekonomian. Jaso dugun astinduak aukera ematen du izaera komunitarioa indartzeko eta gizartearen eragina areagotzeko gai publikoen kudeaketan; baina hori ez da berez etorriko, lana egin beharko da. Dinamika eraldatzaileen arteko lankidetzak izango da gakoa, eta euskaltzaleok hori sustatu behar dugu. Politikan, ikusiko da EH Bildu indarberrituak nola egiten duen gobernu alternatiba bihurtzeko ibilbidea, nolako bidesariak ordaintzen dituen gehiengo ordezkatzeko ahaleginean. Argituko da ea bi alderdi nagusiek autogobernuak duten akordio/desakordioa norantz mugitzen den, bien artean zazpi eserleku gehiago lortu ondoren. Eta pentsatzekoa da Urkulluren hirugarren agintaldi hau izango dela lehendakartzan azkena; emakumezko bat izango da ondorengoa?

## BUKATZEKO

# Telefono kabinak, 'estaldurarik' gabe

Telefono kabinak herritarrei bermatu beharreko oinarriko zerbitzu unibertsalen baitan daude oraindik ere, baina zenbat herritarrek erabiltzen dituzte kabinak? Eta zenbat daude erabilgarri Debagoieneko herrietan eta auzoetan?

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Kalean jarritako telefonoek aspaldi utzi zioten errentagarri izateari, baina, legez hala jasota dagoelako, Madrilgo Gobernuak eutsi egin behar dio zerbitzuari. Hala, urtero Telefonica enpresari egozten dio kudeaketaren eta mantentze-lanen ardura –ez da beste inor lehiaketa publiko-aurkezten–, baina baliteke 2020a azken urtea izatea.

Egun, ezarritako araudiari jarraituz, kabina bat egon behar da 1.000 biztanleko gorako udal-erri bakoitzean, eta beste bat gehitu 3.000 biztanleko. Dena den, ez da araua betetzen, eta bailaran –udal-erri gehienetan kabinaren bat baldin badago ere–, gehienak apurtuta edo linearik gabe daude.

Leintz Gatzagan, adibidez, ez dago martxan dagoen kabinarik, Markola plazakoa kendu zutenetik. Eskoriatzan, ostera, batek funtzionatzen du: San Pedro auzokoak, hain zuzen ere.

Bestetik, Antzuolan, lehen hiru kabina zeuden arren, orain bakararra dago plazan, eta Aramaion ere bat: zehazki, Ibarran, Santakurtz Abadearen plazatxoan.

Elgetan ere kioskoaren ondoan dago herriko kabina bakararra,



Arpolapetan (Arrasate) dagoen kabina. IMANOL SORIANO

baina izorratuta dago, ezin dira txanponak sartu. Horri lotuta, Aretxabaletan dauden biak ere –Otaola kalean eta Araba ibilbidean– apurtuta daude. Esan gabe doa *Aretxabaleta* eta *telefono kabina* esaldi berean irakurtzen duten askok ezin izango duela saihestu "Basurdearen kabinaz" oroitzea. 2012ko azaroaren 18an, basurde bat agertu zen kabinaren gainean, hilda, eta, egunak joan ahala, frutaz beteriko otarra, eskegitako barruko arropak eta motor bat ere agertu ziren.

Bergaran, Ibargarai ibilbidean dago bat, eta beste bat Osintxun.

Oñatin, bestalde, plazan dago kabina bat, eta Arrasaten, kabinak bai, baina zaila da horietan telefonoak aurkitzea –Arbolapetan dagoenean, kasu–.

Hala, Debagoieneko gutxienez 10 kabina daudela baieztatuta daiteke, baina telefono gehienak ez daude erabilgarri.

### Kabinen etorkizuna, zalantzan

Estatu mailako zerbitzuak arduratzeak 4,5 milioiko kostua eragiten dio Telefonicari, eta enpresak ez dio ardurari eutsi nahi. Azaldu duenez, zerbitzua ez da errentagarria; horren adibide da 2018an kabinen erdietatik ez zela dei bakar bat ere egin.

2021ean, ordea, legea alda daiteke: Espainiako Gobernuak bere egin duen Komunikazio Elektronikoen Europako Kodeari jarraituz, baliteke kabinak eskubide unibertsal izateari uztea eta zerbitzua bertan behe-geratzea. Gauzak horrela, komunikazioetan adituak diren arabera, bi aukera egongo lirake: kabina guztiak herrietatik kentzea edo horietako batzuk antena gisa erabiltzea.

LENTILLAK EROSTEAN

**GRADUATUTAKO**

**MÓ SUN BETAURREKOAK**

**39€** -ren truke

R.P.S. 175/15 I.E.G.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com